

ttipi-ttapa

FERIAK BUELTAN DIRA

Azken bi urteotako mugak alde batera utzita, Elizondoko feriek normaltasunez ireki dute udazkeneko hitzorduen denboraldia. Azaroaren 18an, berriz, Doneztebeko feriek hartuko dute lekukoa, eta ondotik, Lesakakoen eta Goizuetakoaren txanda izanen da. / 27




ALICIA DEL CASTILLO

Hitzez ekiteko garaia da

Euskaraldiaren hirugarren edizioa azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingen da. 'Belarriprest' eta 'ahobizien' izen ematea zabalik da / 10



'Isildutako eskuak' bere azken liburuaz Jon Abril beratarrarekin / 7



Ibai Marizkurrena Doneztebeko Erreka elkarteko mendiko arduradun / 23



Langileen ongizatea aztertu du Ezkurrako Lourdes Gastearenak / 32



Elizondoko eskolako Kukuline proiektua aurkeztu du Zuriñe Zubillagak / 44

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

 **EUSKARALDIA**

   **euskaraldia.eus**

 **euskaratzaren topagunea**

 **Gobierno de Navarra**

 **Nafarroako Gobernua**

 **2030**

BERA

LESAKA

Agenda 2022



URRIA AZAROA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

 **BERAKODUTALA**
Nafarroako Kultur Erakundeak

 **LESAKAKO UDALA**

LEHIAKETA

LESAKAKO BITXIKERIAK

URRIA AZAROA ETA ABENDUKO

LEHEN ASTEETAN

Informazioa:
www.beragazte.net
Antolatzailea:
Beti Gazte

LESAKA



10

ORTZEGUNA

LIBURU

AURKEZPENA

MIÑAN

Amets Arzallus

18:00 Liburutegian

LESAKA



12

LAGUNBATA

BERTAKO

EKOIZLEEN

MERKATUA

10:30-13:30 Beralandetan

BERA

12

LAGUNBATA

BERTSO

GAZTAINA

JATEA

Maialen Lujanbio

eta Amets Arzallus

20:00:
Lesakako Baserden
Izen-ematea:
618 96 30 11
Antolatzailea:
Bertsarietako
Bertsu Eskola

LESAKA



5

LAGUNBATA

SOKATIRA

NAFARROAKO

TXAPELKETA

2022

17:00 Udal Piletakua

LESAKA

11

ORTZIRALEA

DOKUMENTALA

GERNIKA

BATZORDEA.

1976.URTETIK

KONTAKIEN

KALEIDOSKO-

PIKOA

ERAIKITZEN

18:30
Kultur etxean
Laguntzailea:
Nafarroako Gobernua

BERA



5

LAGUNBATA

KONTZERTUA:

BASTARDIX

Bira Nafarroan

barna programa

Sarrera: 5€
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

BERA



16

ASTEAKENA

SOLASALDIA

ZAHARREN

EGOTZAK,

EGUNEN

EGOTZAK

ETA PISU

TUTELATUAK

Jokin Apeztexea

17:00
Beralandetan
Antolatzailea:
Artzapeak

BERA



NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Behin bakarrik hilko gara

Zein ariketa aukeratuko zenuke: aste batez egun bakoitza lehenbizikoa balitz bezala bizitzea ala azkena dela irudikatzea? Lehenak ekarriko luke haurrarekin bat egitea, dena galdetu eta ohikoa harrigarri bilakatzea. Bigarrena, ilunarekin konektatzea, erronka handiagoa litzateke, baina norberarentzat garrantzitsua zer den jakiteko baliagarria. Ez dira ilunabarrekoak kolorerik ederrenak?

Bronnie Ware (Australia, 1967) erizaina, urteetan zainketa aringarrietan lan egin ondoren, jendea bost gauzatzat damutzen dela ohartu zen: -Ez naiz neure buruarekin aski fidela izan, gehiegi segitu diet bertzeen nahiei. -Ez nuen hainbertze lan egin behar. -Sentimenduak gehiago adieraztea nahiago izanen nukeen. -Denbora gehiago eskaini behar nien lagunei. -Zoriontsuago izanen nintzen ez banintz ohitura zaharretan gelditu.

Sarri aditzen dugu behin bakarrik bizi garela, baina hori bezain egia da behin bakarrik hilko garela.

**«EGUN BAKOITZA
LEHENBIZIKOA EDO
AZKENA BALITZ
BEZALA BIZI?»**



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Garrasirik ozenena

Solfeorako belarri kaxkarra genuenok ere badakigu soinuaz jabetzeko hainbat modu daudela. Egund osoa pasa dezakegu autoen motor eta bozina soinuak eta obretako zulagailuen tarrata aditzen baina landetxe batera joan eta behi baten marruak geure onetik aterako gaitu. Zer erranik ez goiko-beheko gelakoaren sexu jardunaren oihiak ozenegiak badira.

NABARMENTZEKOAK



**OINATZ
BENGOETXEA**
PILOTARIA




**CHARLY
SPERATTI**
KIROLARIA

Azken partida Leitzako plazan jokatu, erretiroa hartu du Oinatz Bengoetxea Leitzako pilotariak. Egund osoko pestarekin borobildu zuen leitzarrek 20 urtetako jarduna.

Europako jiu jitsu txapelketa irabazi du Igantzin bizi den Charly Sperattik. Bigarren izan da, gainera, Europako txapelketa. Doneztebeko Dojo Seyru akademiako irakaslea da.

GIBELERA BEGIRA



2012-11-01 · TTIPI-TTAPA · 577 zk.

Diabetesari buruz solasean

Diabetesa duten Idoia Gilleneak eta Nerea Petrirenak gaitzarekin bizitzea nolako den kontatu zioten TTIPI-TTAPAri duela 10 urte. Gilleneak 25 urte zeramatzan gaitzarekin orduan, eta Petrirenak 22. Denbora horretan «gaixotasunarekin bizitzen» ikasi zutela kontatu zuten, eta «oztopoak baino gehiago zailtasunak» zituztela egunerokoan. Heziketaren beharra nabarmendu zuten, eta hori gizarte osoak hartu beharko lukeela: «Diabetesa aunitz edo gutti dugun galdetzen digute, horrek argi uzten du jendeak gaixotasuna duen ezagutza maila. Ez da ulertzeko erraza den gaixotasun bat, ez maila teorikoan ezta praktikoko edo emozionalean ere. Diabetesa hor dago, baina ez da ikusten, ez du minik ematen, horregatik da ulertzeko hain zaila».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea

TTIPI-TTAPA Fundazioa
Kontaktak bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutz Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin
Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo
Irastortza, Maite, Ana eta Itziar,
Juan Mari Barriola, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Arantza Iturralde, Ainhoa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz,
Ganex E., Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebetea

Kudeatzailea

Joxemaneul Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbizuen
Mankomunitatea.

2022ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	42€
eta Malerreka	33€
Leitza	50€
Hego Euskal Herria	98€
Ipar Euskal Herria, Europa	147€
Amerika eta Australia	



KOLABORAZIOAK

XABIER MARITORENA ZUBIETA

2060an...

Bazen behin lurralde aberats bat. Aberatsa ez sos aunitz mugitzen zelako, baizik eta bertan bizi ziren animalia, landaredi, intsektu, organismo, arbola eta akuiferoek, bertzeak bertze, paraje eder eta garbi bat osatzen zutelako.

Herriko xaharrek erraten dutenez, inguru horretako aireak birrikak eta guzti garbitzen omen zituen, horko urak ez omen zuen inongo zikinkeriarik eta inguru horretako asots bakarrak behi, ardi eta behorren joareak bertzerik ez omen ziren izaten.

Lurralde hori Natura 2000 sarean zegoen kokatua eta Europar Batasunak Kontserbazio Bereziko Eremu bezala izendatua zuen.

Ez zegoen legez bakarrik babestua, bailarako biztanleriak argi zuen inguru hori bere horretan zaindu behar zela. Hola erakutsi zuten inoiz eskualde horretan izan diren herritarren elkarretaratze handienetarikoz batzuetan, bai 2007an baita 2022an ere.

Abeltzainek bazekiten Urbasa-Andian eta bertze bazkatoki aunitzetan idortek bazka gutitzen eta desagerrarazten zutela, baina lurralde aberats horretako Foehn efektuari esker inon baino maizago euria egiten zuenez, parajea beti berde mantentzen omen zen. Hortaz, inguruko bazkaleku hoberenetarikotzat zuten.

Ez zuten abeltzainek bakarrik maite lurralde hori. Herritarrek oro har bazekiten inguru hori babestu beharra zela. Zer eta

«KONTAKIZUNA NOLA AKITZEA NAHI DUZU? GURE ESKU DAGO»

naturaguneak xehatzen ari ziren garaian, zer eta klimak argi erakusten zuenean jendarteak zeraman norabidea lehertzeaz zegoela gero eta idorte, uholde eta sute gehiagoren artean.

Baina kanpotarrek bazuten interes handia lurralde horretan. Roullier talde frantses batek munduko hainbat tokitan, Brasilen eta Iberiar penintsulan bereziki, magnesioa lortzeko alimaleko ahaleginak egiten zituen eta lurralde aberats horretan magnesioa aunitz izaki. Enpresa arrotz horrek han eta hemen bertako biztanleria lau sosekin engainatzen zuen, urte batzuetako soldata aginduz, baina lurralde horretatik bereganatzen ahal zuen materiala akitze-rakoan, inolako begirunerik gabe, bertze norabait mugitzen zen. Gibelean erabat xehatutako inguru bat utziz, noski.

Zoritzarrez enpresak bazituen lagun aunitz eta Cementos Portlandeko gerente ohi bati esker lurraldean magnesioa atera ahal izateko aukera guziak ematen ahalegindu ziren. Ez ziren, ordea, bera eta bere taldekoak txikizioa babesten zuten bakarrak. «Berdeak» gisa ezagutuz ematen ziren batzuek ere enpresa frantses honi ate guziak edeki zizkioten, bertze enpresa bati familia bakarreko berrehundik goiti etxebizitza egiteko bermea ematen saiatu ziren berberak izaki.

Eta zuk irakurle, nola nahi duzu akitzea kontakizun hau? Ehun hektareako zabalpena izanen duen harrobi batekin? Hitza kendu nahi digute, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak herri galdeketa debekatu du eta guti batzuen interes ekonomiko herritarren gainetik paratu. Gure esku dago proiektu hau gelditzea, lehenago egin genuen eta honetakoan ez gara gutiago izanen. ERDIZ BIZIRIK!



ANE INTXAUSTI LASARTE

Maite ditut tximuak

2022. urteko irailaren 26a. Hogeita batgarren mendea. Aldizkari honen orrialdeetan zetorren berria. Bai, bueno. «Berria». Leitzako herritar bati ohar bat jarri zioten autoko kristalaren gainean: «Fuera de Leiza putos monos!». *Fuera-de-Leiza. Putos-monos.* «JR HDP». Ez du azalpen beharrik testuak. Hori nahikoa ez, eta zarrata egin zioten autoko gurpil batean.

Tximuaren hori ez zuten herritarrentzat berarentzat idatzi, noski. Eta ez zuen inork berarengan pentsatu ere ohar horren argazkia sareetan zabaldu zenean. Hemen jaioa da JR. Azal zuria du JR-k. Zuri-zuria. Puru-purua. Hemengoa da.

Bera da hemengoa. Ez bere emaztea. Hamabost urte daramatza herrian bizitzen, baina kanpotarra da. Hangoa da. Ez da hemen jaioa. Ez du azal zuria. Ez du. Ezta bere familiak ere. Ez dira hemengoak. Horregatik ez zuen inork JR-rengan pentsatu ohar hori irakurtzean. Sorpresa?

Jakin, badakigu diskurtsoa, berez. Guztiok garelako berdina, inor ez dela inor baino gehiago, guztiok dauzkagula eskubide berak, azal koloreak ez gaituela desberdin egiten... Denok dakigu hori. Bai, ezta? Badakigu. Edo berez bai. Hori ikasten dugu. Eta umetan Gaztelaren ikasitako preposizioen zerrenda bezala erreztatzen dugu ondoren. (Nahiz gero

«EROSOAGOA DELAKO KANPOKOA EPAITZEA»

margoen kaxan gure azal koloreari deitzen diogun «haragi kolorea»). Eta sinetsi ere egiten dugu benetan horrela pentsatzen dugula. Edo hala izaten da, behintzat, norbait seinatzeko ordua iristen

den arte. Aukeratu edota errua banatu behar dugun arte. Orduan, bai. Azkar hasiko gara bereizketak egiten. Azkar bereiziko ditugu kanpoko eta bertako. Hemengo eta hango. Onak eta txarrak.

Erosoagoa delako kanpoko epaitzea. Hemen eta hemengoekin bizi den baina beste edozein kondizioetatik hemengo sentitu ez eta beti «hango» esanzen diogun hori. Hemengo hangoa. Begirada «han» jartzeak norbere burua perspektiba horretatik atera eta epaiketarik kanpo uzten duelako. Zaparrada hemen hastean, berriz, lur bustiaren usaina sentitzen dugu etxeko leihotik. Jasak aterkirik gabe kalean harrapatzen gaitu beste batzuetan ere. Eta bustita ibiltzea ez zaio inori gustatzen.

Badirudi ohar hori idatzi zuenak berak dabilkiela ekaitzik handiena barnean, nonbait. Eta ekaitza ari duenean wifia joaten den moduan joan zaiola neuronen arteko konektibitatea honi ere.

Animalia inteligentia da tximua. Bere gorputz-adarrek zuhaitz batetik bestera mugitu eta enbor berriari tinko eustea ahalbidetzen diete. Maite dute askatasuna. Baita nik ere. Eta maite ditut tximuak.

11 GALDERA LABUR

ITXASO MINDEGIA MITXELENA AURTIZKO GAZTEA

«Aurtizko bestek xarma berezia dute guretako»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Neska alaia eta arrunta naiz, eguneroko gauzekin disfrutatzeko dut.

Zein dira zure zaletasunak?

Konpainia ona izanez gero, edozein plan da ona! Eguraldi onarekin, nire zaletasun handiena mendira joatea da. **Aurtizko bestak prestatzen ari zarete. Zenbat zarete antolakuntza taldean?**

Bestak hurbiltzen ari direnean bileretan parte hartzeko aukera herritar guztiei ematen zaie, baina antolakuntzan zortzi-hamar gazte egonen gara gutti goiti-beheiti.

Lan handia da?

Gustura egiten dugunez ez zaigu lan gogorra iruditzen. Bileretan erabakitzen dugu

nor arduratuko den ekitaldi bakoitza prestatzeaz eta bakoitzak bere lana betez gero errazagoa da dena ongi lotzea.

Zer hartzen duzue kontuan egitaraua prestatzerakoan?

Herritar eta bisitari guztien dako ekitaldiak antolatzen saiatzen gara, adin guztietako jendea animatu nahi izaten baitugu bestetan parte hartzera.

Bi urteren ondotik bestak normaltasunez ospatuko dituzue. Gogotsu?

Bai, zeinen ongi! Aurtengoak bereziak izanen dira, beldurrik gabe eta lasaitasunez egiten ahalko dugu besta.

Aurtiztarrak ere gogotsu egonen dira, ez?

Bai, pentsatzen dut aurten denok aspaldiko partez bestak



behar den bezala ospatzeko gogoz gaudela eta ilusioa nabaritzen da. Zenbat eta jende gehiago animatu, hobe!

Zer da gehien gustatzen zaizuna sanmartinetatik?

Dudarik gabe, ortziralean egiten dugu herri bazkaria da gehien gustatzen zaidana. Mahai inguruan kantuan eta dantzan sortzen den giroa hagitz polita izaten da eta ordu tikiak arte luzatzen dugu.

Zerk bereizten ditu Aurtizko bestak?

Urteko azkeneko bestak izanik, guretako xarma berezia dute. Herritarrak elkartzeko aitzakia polita da eta azaroan batzuetan eguraldi txarra egin arren, beti ematen diogu buelta!

Zure asmoak epe motzera?

Oposizioetan irakasle plaza finkoa lortzea da nire nahia eta asmoa.

Eta epe luzera?

Ez dut aunitzik eskatzen; nire familia eta ingurukoekin zoriontsu izaten segitzearekin nahikoa dut!



Bilduma berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Euskaraldiaren Garrantzia Eta Ahalmena

GIKE AMONARRIZ GORRIA

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO
PRESIDENTEA

Gaiane dugu Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Lehenengoak sekulako eragina izan zuen. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialak berrikuntza handia suposatu zuen ordura arte «euskararen alde» antolatutako egitasmoen aldean, Euskal Herri osoko erakundeek eta eragile sozialek elkarlanean antolatututako, berrehun mila partaide baino gehiago izan zituelako eta milaka pertsonen beren gorputzetan sentitu zituztelako euskarara jauzi egitearen edo lehen hitza euskaraz egitearen sententzioak, euskaraz egiteko konplizitate eta sare berriak sortu zirelako eta euskara agenda komunikatiboaren erdigunean kokatu zuelako. Bigarregoa, pandemia betean (...), eta burutu ahal izatea bera sekulako arrakasta izan zen. Gainera, (...) milaka argune sortu ziren.

Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarrera baten adierazpena, jokoera praktikoko baten inguruko konpromisoa baizik; norbanako mailan nahiz kolektiboan. Ez da euskarak dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina, erabilera aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala.

Bere ahalmen nagusien artean dago eragin masiboa-

rena. Euskaraldiaren bidez, milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonen eta egoeratan. Euskaraldiari esker, horretarako bultzada eta motibazioa sentitu dute, eta urrats hori emateko baldintza egokiak sumatu dituzte inguruan. Horregatik da horren garrantzitsua parte hartzea masiboa izatea, ahalik eta txapa gehien ikustea leku guztietan, eta kaleak berriz hartzea banderolekin, muralekin, etab. Gutxien uste dugu pertsona, giro horretan, euskara erabiltzera animatu daitekeelako, baita gurean ere!

Bestalde, era guztietako entitateetan *ariguneak* sortzea, hizkuntza biziberritze prozesurako oinarriak jartzea da. Batetik, entitate horietan euskararen erabilera erorako aukerak non dauden identifikatzen dugulako, eta bestetik, aurrera begira, normalizazio-prozesua abiatzeko edo indartzeko urratsa ematen delako.

Garrantzi handiko beste aspektu bat da, Euskal Herri osoan, berau prestatzeko ehunka batzorde sortzea. Euskararen inguruko elkar-terik edo bestelako antolakuntzarik ez duten herrietan, ahalik eta gehienak egonkortzea eta iraunaraztea dugu helburu, Euskaraldiaren ondoren ere, erabilera sustatzeko dinamikarekin jarrai dezaten.

Euskaraldia, azken batean, heldulekua da, palanka, abiapuntua. Inertziak puskatzeko

heldulekua da, erabilera urrats bat aurrera eman nahi duten pertsona edo entitate guztientzat. Eta aitzakia egokia, euskarari buruz hausnartzeko eta erabakiak hartzeko. Palanka da, ariketa praktikoa delako eta konpromisoak eta erronkak eskatzen dituelako. Ez da manifestu bat sinatzea eta kito. Hausnarketa kolektibo izugarria ere bada Euskaraldia, non pertsonen eta erakundearen kontraesanak ere agerian geratzen diren: jarreraren eta praktikaren arteko kontraesanak, nahiaren eta portaeraren arteko distantziak. Eta abiapuntua izan nahi du, egun horietako lorpenak eta dinamika iraunaraztea baita ariketa honen helbururik behinena.

Badakigu, (...) lorpenetatik batzuk mantendu egingo direla eta beste batzuk inertziak jango dituela, baina aurreko Euskaraldiak erakutsi diguten bezala, bukatu eta hilabeteetara, egoera ariketa egin aurretik baino hobea da. Ariketa bakoitzean, partaideek helburu berriak lortzen dituzte eta partaide berri asko integratzen dira lehen aldiz. Horregatik, jarraitu beharko dugu Euskaraldiarekin «kolpeak» bi urtez behin ematen, eta tartean, euskararen erabilera sustatuko duten bestelako egitasmoak bultzatzen, hemen eta Euskal Herri osoan.

Honengatik guztia eragatik, eman izena Euskaraldian. Hitzek ekiteko garaia da!



JOANES ALTZU



Jon Abril Olaetxea idatzitako liburua eskuetan duela Berako Udaletxe aitzinean. TTPI-TTAPA

«Gure historiaren parte haundi bat galtzen ari gara»

JON ABRIL OLAETXEA KAZETARIA ETA IDAZLEA

Tene Mujika bekari esker argitaratu du Abriale 'Isildutako eskuak' liburua. Gerraostean etxetik kanpoko lanean aritutako 11 andrearen testigantzak bildu ditu liburuan

A. LARRETXE A BERA

11 lanbide eta 11 emakumeren bizipenak. Euskal Herriko hamaika txokotan izan da Jon Abril idazle eta kazetaria *Isildutako eskuak* liburua osatzeko. Mito bati kontra egin nahi izan dio liburuaren bidez, XX. mendean, gerraostean, emakume denak etxean gelditu zirela, familia zaintzen eta haurrak hazten, kanpoko lana gizonen utzita. Legeek eta usa-

dioek horretara bultzatu arren, izan ziren hainbat hainbat, beharrak eta ausardiak hauspotuta, giroari aurre egin eta hainbat arlotan aritu zirenak.

Horietako hamaika andrearen istorioak bildu ditu liburuan: Pakita Burguete Irazoki neskatoarena; Libe Goñi Garate Seaskako lehenbiziko andereñoarena; Michelle Rosier espartingilearena; Milagros Landa Compains unaiarena;

Mercedes del Burgo Alava eta Rosario Aizpurua Donazar paper fabrikako langileena; Josefina Lopez Diez eta Belen Lersundi Artola, barazki eta arrain kontserba fabrikako langileena; Pilar Espinosa Caballero krema-leria-lantegiko langilearena; Marta de los Hoyos Cantera fabrikako langilearena; Felisa Mujika Garitano Algodonera-ko langilearena; Serafina Puy Lekuona saregile, batelari,

arrantzale eta arrain-saltzalearena eta Maite Solozabal Iturrioz eta Pili Jauregi Zinku-negi Tabacalerako langileena. **Eskuarte duzu liburua. Zer sentsazioekin zaude?**

Egia erran prozesua bera polita izan da. Gozatu dut aunitz elkarrizketak egiten, idazten, eta denbora dezente pasa da lana bukatu eta argitaratu bitartean. Tene Mujika beka bik irabazi genuenez, horrela erabaki zuten, eta hagitaz lasaia izan da zuzenketa eta make-tazio lana. Hartu dudanean banuen gogoa esku artean izateko. Sentsazioa ona da, formatua aunitz gustatu zait, azala... Orain irakurlearen esku utzi eta ea bueltan zer hartzen dudana.

2016an egin zenuen *Neskatoak* dokumentala, eta orain etorri da *Isildutako eskuak* liburua. Zer dute emakumeen istorioek?

Neskatoak dokumentalaren kasuan argi zegoen amatearen istorioa zegoela gibeletik. Hau segida bat izan da. Dokumentalaren zabalkundearekin hantzen ibili nintzen emakume nagusi aunitz hurbiltzen zen pelikula ikustera, eta behin eta berriz aipatzen zidaten euren ere gisako bizipenak izan zituztela, bertze lanbide batzuetan ibiliagatik ere lan mundua ez zela erraza izan eurentzat. Hor ikusi nuen neskatoak bezala bertze lanbide eta hari aunitz zeudela, eta hari segida bat eman, eta zor hori edo kendu nahi izan dut.

Zergatik kontatu nahi izan dituzu istorio horiek?

Erakartzen nauen gaia da batez ere memoria ariketa hori egitea. Ahantzitako edo isildutako ahots horiei boza paratzea. Gure historiaren parte haundi bat galtzen ari gara, belaunaldi bat joaten ari zaigu, eta hurrengo belaunaldiek bertze bizimodu bat ezagutu dute edo dugu. Testigantza horiek biltzeko beharra da kasik gehiago. Egia da emakumeengan paratu dudala fokua, batez ere ikusten dudalako arrontean ahantziak izan direla. —>

Adineko emakumeen istorioak dira.

Neurri handi batean gaur egun agian feminismoak badu presentzia literaturan, baina, justuki adineko emakumeak nahiko ahantziak izaten ari dira. Hor ikusten dut agian badagoela ekarpen bat egiterik, eta gizon bezala uste dut badagokigula begirada emakumeengan paratzea.

Zein izan da liburuaren helburua?

Liburuak aitortza bat egin nahi die garai jakin batean lan ikaragarri gogorra egin zuten emakume batzuei, erabat bigarren edo hirugarren mailakotzat hartu ditugunak eta segitzen ditugunak hartzen. Herri bezala horretan gure kontakizun propioa eraikitzearen inportantzia nabarmendu nahiko nuke. Horrelako istorio eta pertsona anonimoen istorioekin osatu behar dugula eta ez bakarrik historia haundia. Horretarako horrelako kontakizunak biltzea garrantzitsua da. **Izenburutik beretik ikusten da intentzio hori, ezta?**

Hasierako izenburua ez zen hori baina... Proiektua aurkeztu nuenean *Ezkutatutako eskua* zen izena, baina, gero ikusi genuen ahoskatzeko hagitz konplikatu zela 'ezkutatu' hitza eta 'gorde' hitzarekin jokatu nahi izan genuen. Azkenean 'isildu' paratu genuen, eta 'eskuak', eskuekin egindako lana izan delako batez ere, isildutako horiei aitortza egitea, eta argitara paratzea.

Neskatoak dokumentaleko protagonistetako batena da lehen testigantza: Pakita Burgete betarrarena. Zergatik aukeratu duzu Pakita?

Neskatoak dokumentalarekin hasi nahi nuela argi neukan, hari horri segida emateko eta zentzu hori bilatzeko asmoarekin. Dokumentaleko edozein emakumeren istorioak balio zezakeen. Pakitak erranen nuke, bazituela elementu batzuk hagitz erakargarriak zitzaizkidanak, 50eko hamarkadan joandakoa zela eta gehienak

60koan joan ziren, mendiz, gordeka, paperik gabe... Epika puntu hori bazuen. Bere kontatzeko manera ere, bere espresibitatea ere aunitz gustatu zitzaidan grabatu nuenean, eta bere espresio aunitz buruan iltzatuta nituen.

Pakitarenaz gain, bertze hamar emakume elkarrizketatu dituzu libururako. Nolako izan da horiek aukeratzeko prozesua?

Normalean lanbidea aukeratu dut lehenbiziko, eta horren arabera gero emakumea. Sari-ketara proiektua definitua aurkeztu behar da, eta ordurako pertsonak ez, baina, lanbideak aukeratuak nituen. Lehendabiziko lana lanbide horiek arakatzea izan zen, ikerketa lan hori egitea, ikustea zer lanbideetan aritu ziren emakumeak. Elementu geografikoa ere sartu nahi nuen, Euskal Herri osoa izatea. Horrek neurri batean baldintzatzen zuen, eta toki batzuetan bereziak izan diren lanbideak ikusarazi nahi zituen: Maulen espartingileak, edo Lodosa edo Ondarrun kontserberak... Ezkerraldean, adibidez, meatzaritza landu nahi nuen, baina bizirik zegoen emakumerik aurkitu ez eta metalurgiarako salto egin nuen. Horrek ere baldintzatu du lana.

Nolako izan da elkarrizketak egiteko prozesua?

Aitzinetik eurekin harremanetan jarri, eta ondotik eurengana joan eta elkarrizketa egin dut. Alde horretatik hagitz kazetari lana izan da. Aitzinetik dokumentazio lan dezente eginda joan naiz, gehienetan emakumearen beraren ez, baina, lanbidearen beraren dokumentazioa eginda, baina, galdetegi nahiko irekiekin aldi berean. Badira gauza orokor batzuk denei galdetu dizkidanak, eta bertze batzuk espe-

«EMAKUME DENEK HASIERATIK HARRERA HAGITZ ONA EGIN DIDATE»



Liburua idazteko prozesua «ederra» izan dela dio Abrilek. TIPI-TTAPA

zifikoagoak. Gasteizko kasuan, adibidez, banekien Pilar Espinosa elkarrizketatua martxoaren 3ko gertakarietan parte hartutako emakume bat zela, greben antolaketan eta. Bistan da bere bizipen horiek ere bildu nahi nituela.

Nolako erantzuna hartu duzu elkarrizketatuengana joatean?

Hagitz ona. Emakume ia guztiek hasierako momentutik baietz erran zidaten. Hasieran batzuek zalantza zuten beren istorioak zer interes edo garrantzia izan zezakeen. Baina proiektu osoa kontatzean hagitz estimatuak zeuden norbaitek aditzen dituelako. Aditza bada zor diegun errekonozimendu horretarako errepazioaren lehendabiziko

«EROSO SENTITU NAIZ NARRATZAILEAREN PAPEREAN»

zattia bederen. Uste dut hori aunitz eskertu dutela emakumeek. Osasun arrazoiak eta lotsa tarteko izan dut ezezkoren bat, baina, gainerakoan emakumeen aldetik prestutasun erabatekoa, eta harrotasuna hartu ditut.

Elkarrizketak dira muina, baina, ondotik liburuan kontakizun forma hartu dute. Zergatik kontakizuna?

Uste dut naturalki horrela aterazaidala, eta igual errazagoa egiten zaidalako. Segur aski prentsarako balitz elkarrizketa formatuaren alde egingen nuke, baina, liburu batean kontakizuna eskatzen zidan. Irakurle bezala ere gehiago bilatzen dut formatu hori.

Kosta zaizu elkarrizketa horiek ondotik kontakizun formatura eramatea?

Orokorrean ez. Ez naiz ni batiere metodikoa eta ordenatua, baina, kasu honetan elkarrizketa fresko-fresko nuela hasten nintzen idazten, eta nahiko erraz egituratu ditut istorioak.

Eroso sentitu naiz kanpotik heldu den narratzailaren paperean.

Kontakizun berean ageri dira beraien hitzak, dokumentazio lana... Bereziki nabarmena da dokumentazio lan hori egin duzula.

Kontziente izan nahi nuen batetik ofizio edo lantegi horren inguruan, eta batez ere ofizio horrek inguru jakin horretan zuen garrantziaz. Elkarrizketa prestatzeko hagitz lagungarria egin zait dokumentazio hori. Eta nahi nuen istoriotik ateratzen zen elementu tikiren bat bilatu irakurleari bertze pizgarriren bat emateko. Bertze elementu batzuk bilatu ditut istorioak eramaten laguntzen zutenak.

Argazkiak adibidez.

Aunitzetan ez ikusitzat edo ikusezin bihurtu ditugun emakume hauek eta argazkiak jartzeara bada erakusteko bertze modu bat. Emakumeen arabera, lantegien arabera, lanbideen arabera aunitz aldatzen da argazki kopurua, baina, kasik 100 argazki bildu ditut eta 70 bat inguru sartu dira. Grafikoki emateak ere laguntzen du kontestu hori dena osatzen.

Protagonisten partetik ze erantzun hartu duzu?

Bi protagonisten erantzunak hartu ditut —irail erdialdean egin zen elkarrizketa—, denak ez dira euskaldunak eta horrek ere mugatzen du. Horietako batek telefonoz deitu zidan hunkituta, erranez zeinen ongi bildua nuen bere bizitza historia. Bertze batek erran zidan hain ongi ikusten zituela berak izandako bizipenak sekulako tristura sartu zitzaioela bere gaztetako bizia nolakoa zen ikustiz. Kasik gogorra eta dena egin zaiola berri ere oroitaraztea bizimodu hori. Aldi berean, harrotasun puntu batekin gaur egun non dagoen eta zer ibilbide egin duen ikustean. Pozgarria da ikustea hunkitu egin direla, eta beren burua islatuta ikusi dutela. Alde horretatik kontent nago.

Zer eman dizu idazteko prozesuak?



Pakita Burguete, ezkerretik lehena, Ziburuko etxeko jantokian. PAKITA IRAZOKI



Otsagabiko unaia, 1924an. ROLDAN ESTUDIO - NAFARROAKO ARTXIBOA

Ikasketaz kazetaria naiz, kazetari bezala lan dezente egin dut, baina, gero nire lan ibilbide profesionala kazetaritza-tik kanpo edo garatu dut azkeneko urte aunitzetan. Idaztea

beti gustatu izan zait aunitz eta ofizioarekin lotura hori eman dit dudarik gabeliburuak. Gainera, Tene Mujika bekak epe bat ematen dizu, proiektu bat egikaritu beharra... Auni-

«AUNITZETAN IKUSEZIN BIHURTU DITUGU EMAKUME HAUEK»

«BADAKIT HONEN ONDOTIK BERTZE PROIEKTU BAT ETORRIKO DELA»

tzetan ipuin solte bat idazten dut eta bukatu gabe edo erre-matatu gabe gelditzen da. Honen eman dit egitura batekin lan egitea, diziplina. Horrek aldi berean zure idazkeran ere laguntzen du gauza batzuk fintzen, estilo aldetik...

Eta zer espero duzu hemendik aitzinera? Neskatoak aurkezteko herriz herri ibili zinen luzaroan. Antzekorik baduzu buruan?

Aurkezpen batzuk lotuak ditut. Argi dut gaur egun ikus-entzunezkoek bertze oihartzun bat dutela, zenbait publiko-rengana ailegatzeko errazagoa dela eta liburuak eta euskarazko liburuaren zirkuitua alde horretatik aunitzez ere muga-tuagoa dela. Ea ikasturte honetan pixka bat mugitzen den. Irakurleek gustura hartzen badute, eta irakurle talderen batean eurekin kontrastatzeko aukera sortzen bada helburua beteta.

Elkarrizketa hasieran hurrengo proiektu bat aipatu duzu. Baduzu zerbait burutan?

Burutan baditut bizpahiru gauza, baina uste dut orain atsedena behar dudala, momentuaz gozatu ere bai. Neskatoak egitean momentu hartan banituen ideia pila bat, eta erabaki nuen lasai hartu, momentuaz gozatu, proiektuari bere tarte eta bizitza eman, eta gero hastea bertze proiektu batzuekin. Eta uste dut orain ere hori egiten dudala. Beharbada orain burutan ditudan ideiak hor geldituko dira, edo horietako bat berreskuratuko dut. Alde horretatik zerbait etorriko dela badakit, behar dudalako baina ikusiko dut zein formatutan, zein modutan eta zein gairekin.

Idaztea beharra da zuretzat, orduan?

Bai, tarteka behar dut. Eta laguntzen dit aunitz eguneroko lanak eragiten digun egunerokotasunetik ateratzen; bertze gauza batzuk leitzen, bilatzen bertze estilo batzuk, bertze idazle batzuk ezagutzen ez ditudanak. Bertze bide batzuetatik aberasten nau.

Karrika berreskuratu nahi du Euskaraldia

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izanen da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. 'Arigune' gisa izena emateko epea itxita badago ere, herritarrek badute oraindik izena eman eta 'ahobizi' edo 'belarriprest' izateko aukera

G. PIKABEA

Euskararen aldeko ariketa sozial erraldoirako falta diren egunak kontatzen hasteko momentua da; ate joka baita Euskaraldia. *Hitzez ekiteko garaia* lelopean azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte izanen da Euskaraldiaren hirugarren edizioa, eta oraindik izena eman ez duten herritarrek oraintxe dute aukera www.euskaraldia.eus atarian.

Euskaraldirako gutti falta den honetan, beroketarekin ari dira azken asteotan eskualdean. Herrietako batzordeekin elkarlanean ari da, erraterako, Ekhi-ne Txokarro Malerrekan eta Bortzirietako Euskaraldiko dinamizatzailea. Irailaren 15ean hasi zen lanean, eta abenduaren 15era bitarte Euskaraldia izanen du begiz joa. Aitortu duenez, «irailean herriak itzaliak» sumatu zituen, «Euskaraldia ez zegoen sobera bor-bor, baina geroztik martxa hartu du». Herri-herriko eta eskualdez eskualdeko batzordeak lanean ari dira eta Euskaraldia girotzeko eta «ikusgarritasuna emateko» hainbat ekintza egiten ari

dira Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen, Xaretan eta Leitzaldean. Tartean Euskaraldiaren gune ibiltaria ere pasatu da eskualdetik, Euskaraldiari buruzko informazioa zabaltzeko helburuarekin. Urriaren 5ean Donezteben eta 12an Lesakan egin zuen geldialdia. Baina azaroaren 18ra bitarte, eta ondotik ere, hainbat ekitaldi egitekoak dituzte: mahaia-ak paratu han eta hemen, herri argazkiak atera eta gehiago. Horien jarraipena egiteko atal berezia sortua du TTIPI-TTAPAK ERRAN.EUSEN, eta interesatuz gero, irakurleak hantxe izanen du informazio zehatza (www.erran.eus/bereziak/euskaraldia).

Herritarren izen ematea zabalik
Ahobizi eta *belarriprest* rolak eta *ariguneak* –euskaraz lasai

«EUSKARALDIAK INDARRA EMATEN DIO EUSKARARI»

EKHINE TXOKARRO, EUSKARALDIA

aritzeko guneak – mantendu dituzte hirugarren edizio honetan. Urriaren 31n bukatu zen elkar-teentzat eta enpresentzat *arigune* gisa izena emateko epea, baina herritarrek oraindik egin dezakete, aitzineko aldietan bezala, *ahobizi* edo *belarriprest* izanez. Lehenbizikoek euskaraz konprenitzen duten guzti-ekin euskaraz aritzeko eta lehenbiziko solasa euskara zegiteko konpromisoa hartuko dute, baita, ahal duten neurrian, elkarriketa elebidunei eustekoa ere. Eta *belarriprest*ek, berriz, gaitasunaren eta aukeren arabera, eurek erabakiko dute noiz eta norekin egin euskaraz, baina euskaraz dakitenei horixe eskatuko diete.

Ariketa hasten den egunera arte izanen dute herritarrek izena emateko epea, baina Jon

«PROBATU, SEGURU EROSO SENTITUKO ZARETELA»

JON ZAPATA, EUSKARALDIA

Zapata Euskaltzaleen Topagune-ko kidearen eta Euskaraldiko sustatzailearen hitzetan, «nahiko harrera ona» izan du Euskaraldia gure eskualdean: «Alde batetik, aitzineko edizioetan parte hartu dutenek izen ematea berresteko aukera dute, eta hagitx ongi joan da. Horrez gain, lehenbiziko aldiz izena ematen ari direnak ere badira, eta hori ere positiboa izaten ari da».

2018koa gogoan

Hirugarren edizioa du aurten-goia Euskaraldia: 2018an egin zen lehenbizikoa eta aldi hartan 225.000 herritarrek parte hartu zuten *ahobizi* eta *belarriprest* txapa soinean; horien artean eskualdeko 4.016 lagunek.

2020an bigarrena etorri zen, pandemia garaiko murrizketekin. Baldintzatutako edizioa izan zen, baina 178.184 *ahobizi* eta *belarriprest*ek bat egin zuten ariketarekin. Aitzineko edizioarekin konparatuz, Euskal Herrian izen emateak behe-ti egin zuen, baina eskualdean igo egin zen: 4.094 lagun apun-tatu ziren, 78 gehiago.

Ariguneak izan ziren bigarren ariketaldiko berritasun nagusia: Euskal Herri osoko entitateek izan zuten ariketa egiteko aukera. 8.000 egoitza baino gehiagok eman zuten izena eta 24.000 *arigune* baino gehiago sortu ziren, horietatik 255 eskualdean.

Txokarroren hitzetan, 2018koa da herritarren oroimenean il-tzatua gelditu dena: «Jendeak ilusio haundiarekin oroitzen du, eta ordukoa errepikatzeko

MALERREKAN ERE
HITZEZ
EKITEKO GARAIA

Malerreko
Mankomunitatea

EUSKARALDIA

www.euskaraldia.eus



Jon Zapata eta Ekhine Txokarro Euskaraldiko sustatzaileak. TTPI-TTAPA

motibazio berezia sumatzen dut. 2020koak ez zuen halako indarririk izan». Horixe berretsi du Zapatak: «2018koa boom modukoa izan zen, ederra. Parte hartu zutenen kopurua hagitz

haundia izan zen, baina ez hori bakarrik, karrikan ikusgarritasun haundia izan zuen Euskaraldiak». Lehenbiziko edizio hartan «ariketa taldeetan egiteko aukera falta» sumatu zuten, eta

hortik sortu ziren 2020an *ariguneak*. Bat dator Txokarroekin «2020koa aunitz ere lausoagoa» izan zela erraterakoan, baina «guttinez Euskaraldia erdigunean jartzea lortu genuen».

Horregatik bereziki «ikusgarritasuna» ematean jarri nahi dute aurtengoan arreta. Karrikak berrartu nahi ditugu. Kopuruak interesgarriak dira baina batez ere ikusgarria →

EUSKARALDIA

**Ahoak bizi,
eta belarriak prest.
Hitzez ekiteko garaia!**

euskara ZERBITZUA
ARANO, ARESO, GOIZUETA eta LEITZA

izatea nahi dugu; *ahobiziek*, *belarriprestek* eta *ariguneek* ariketa ongi egitea. Alde kualitatiboa kuantitatiboa baino aunitzez gehiago indartu nahi dugu».

Detaile tikiak, aldaketa haundiak

Eremu euskalduna da gurea, baina beti bada zer hobetu euskararen erabilerari lotuta. Bortzirietako eta Malerreka dinamikizatzailarentzat «gurea eremu euskalduna dela errateak ez du balio. Inguru euskaldunengan gaudenez igual du lagunekin erdaraz egiten badut? Gure jarrera zuritzeko esaldia da, beti bada zerbait egiteko. Gure esku dago lehenbiziko solasa euskaraz egitea. Igual bertze aldean dagoenak ez du euskaraz jakinen, baina igual konprenituko du. Egin dezagun bada esfortzua. Detaile tikiak dira, eta horiek egiten dute haundi aldaketa».

Batak zein bertzeak egin dute Euskaraldian parte hartzeko gonbita: «Euskara da gure oinarria, eta euskarari indarra eta ikusgarritasuna emateko balio du Euskaraldiak, baita ohitura txarrak kentzeko ere», dio Txo-karrok. Eta Zapatak «ariketak indibidualetik kolektibora salto egiteko duen gaitasuna»

Zer da Euskaraldia?

Euskara konprenitzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua.



Ahobizi: Euskara konprenitzen duten guztiekin euskaraz eginen dut aldiro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehenbiziko solasak, beti, euskaraz eginen ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz segituko dut. Batzuetan zaila bada ere, elkarriketa elebidunetan ere euskaraz segituko dut kideek ulertzen dutenean.



Belarriprest: Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakiko dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz eginen ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri aldiro euskaraz solas egitea nahi dut, eta horixe eskatuko diet modu esplizituan.



Arigunea: Euskaraz lasai aritzeko gunea da, belarriprest ez eta ahobizi osatua. Entitateko kide guztiek elkarrekin ariketa egitea erabaki duten ariguneak izan daitezke, edo entitateak eta herritarrek harremanetan dauden espazioetan sortutako ariguneak: dendak, harrera guneak...

nabarmendu du: «Euskaraldiak espazio erosoak sortzen du egunerokoa euskaraz egiten dutenentzat eta egiten ez dutenentzat, ariketa ingurukoekin egiten baita». Bide horretan «txa-

pen garrantziaz» aritu da: «ikusgarritasuna eman eta euskararen erabilera indartzen laguntzen du».

Beti euskaraz ari dela dioenari eta euskaraz ongi moldatzen

ez delako egiten ez duenari egin diete deia. Lehenbizikoei «*ahobiziolarekin bertzei laguntzen*» dietelako Zapataren hitzetan, «baita ariketari ikusgarritasuna eman ere. Txapa soinean baldin baduzu ingurukoek ere parte hartuko dute. Adibidez, zerbitzariak igual ez du euskaraz jakinen, baina txaparekin ikusten bazaitu, akaso esfortzu tiki bat egingen du».

Eta euskaraz ongi moldatzen ez direnei «*belarriprest* izanda animatzeko» erran die Txo-karrok: «lotsa alde batera uzteko, inork epaituko ez duen espazioa aurkituko duelako». Zapatak zera gaineratu du: «Hamabortz egun dira, probatu eta saiatu, seguru espazio batzuetan eroso sentituko dela». Eta ondotik zer? «Euskaraldia hamabortz eguneko ariketa da, ongi pentsatua dago denbora tarte mugatuan egitearena. Baina beti ondotik segitzeko deia egiten dugu. Hamabortz egunez hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izan badugu, segi dezagun ohitura horiek mantentzen. Eta entitateen kasuan berdin, ariguneen dinamikarekin segi dezagun, espazioak euskaldunduz eta arnaguneak sortuz, hala, bertako kideek ere euskaraz aritzeko aukera izanen dute».

Zure solasa euskaraz eman eta solaslagun gehiago bilduko dituzu hemen eta han



2018ko eta 2020ko Euskaraldiak gurean

2018an eskualdeko 4.016 herritarrek bat egin zuten Euskaraldiarekin (3.449 ahobizi eta 567 belarriprest). 2020an 4.094 izan ziren (3.684 ahobizi eta 410 belarriprest) eta 255 arigune.



	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2020
BAZTAN	1.069	1.176	946	1.039	126	137	70
Almandoz	4	7	4	7	0	0	0
Amairu	39	45	39	40	0	5	1
Aniz	24	23	24	23	0	0	1
Arizkun	63	54	55	52	8	2	2
Arraioz	31	42	29	39	2	3	1
Azpilkueta	17	28	15	27	2	1	0
Berroeta	16	26	19	26	2	0	0
Elbete	23	26	17	21	6	5	1
Elizondo	544	515	466	432	78	83	47
Erratzu	107	143	101	131	6	12	5
Gartzain	28	41	27	34	1	7	0
Irurita	54	116	44	104	10	12	4
Lekaroz	52	48	49	46	3	2	5
Oronoz	46	37	43	35	3	2	2
Ziga	19	25	17	22	2	3	1
BORTZIRIAK	1.192	1.189	1.009	1.056	183	133	90
Etalar	88	105	82	92	6	13	11
Arantzaz	153	181	144	174	9	7	7
Igantzi	78	95	63	81	15	14	9
Lesaka	355	330	311	307	44	23	35
Bera	518	476	409	402	109	76	28



	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2020
MALERREKA	590	569	557	520	92	49	21
B. Labaien	16	10	15	10	1	0	0
Bertizarana	59	65	48	59	11	6	2
Donamaria	57	80	47	74	10	6	1
Doneztebe	189	168	156	150	33	18	13
Elgorriaga	19	31	18	28	1	3	0
Eratsun	29	13	27	13	2	0	1
Ezkurra	7	3	7	2	0	1	1
Ituren	79	76	67	71	12	5	0
Oiz	2	2	2	1	0	1	0
Saldias	19	8	17	8	2	0	1
Sunbilla	88	63	78	56	10	7	2
Urroz	25	9	17	9	8	0	0
Zubieta	60	41	58	39	2	2	0
LEITZALDEA	624	854	609	812	54	42	62
Leitza*	477	495	435	467	42	28	42
Areso*	-	56	-	55	-	1	2
Goizueta*	147	275	143	265	4	10	17
Arano*	-	28	-	25	8	3	1
XARETA	440	306	328	257	112	49	12
Urdazubi*	-	82	-	71	-	11	0
Zugaramurdi*	-	-	-	-	-	-	1
Senpere	220	111	157	93	63	18	7
Sara*	220	113	171	93	49	20	4
GUZTIRA	4.016	4.094	3.449	3.684	567	410	255

*2018an aresoarrek Leitza eman zuten izena; eta litekeena da aranoarrek Goizueta eman zuten izena. Urdazubiarrak eta zugaramurdiarrak Saran apuntatu ziren. 2020an zugaramurdiarrak Urdazubin, Saran eta Baztanen eman zuten izena.



Hitz bakar batek sua pizten du maiz

Martxan jarri




aho eta belarri

HITZEZ EKITEKO GARAIA





www.euskaraldia.eus



Arrakastatsua izan da XXXIV. Lurraren Eguna

Lesakako Agorlekuk eta Aialdek irabazi zuten gazta eta sagardo lehiaketa

A. LARRETKEA

Lurraren Egunaren XXXIV. edizioa ospatu zuten urriaren 23an. Merkatu Plazan barazki eta lanabesen erakusketa izan zen, eta Altxateko karrikan, aldiz, eskulangileen postuak.

34. Gasna lehiaketan hamai-ka ale aurkeztu ziren eta horien artean, Lesakako Agorlekuko Maite Urroz Telletxeak aurkeztutakoak irabazi zuen 400 euroko lehen saria eta Arantzako Serorenbordako Margari Madariagak eskuratu zuen 200 euroko bigarren saria. 23. Sagardo lehiaketara, berriz, 16 botila sagardo aurkeztu ziren eta horien artean, Lesakako Aialde baserriko Alberto Otxotekok lortu zuen 300 euroko lehen saria; bigarrena, 150 euro Pilar Zubietak.

Eguna hasteko Zubietako joaldunak ibili ziren Altxaten,

eta ondotik, musika eskolako talde instrumentala, txistulariak eta trikitilariak, Berako Banda eta Irats eskolako trikitilariak alaitu zuten giroa. Arratsaldean Patxi Castillo, Ekhiñe Zapiain eta Julen Zelaieta bertsolariek bertso saioa eta gaztaren enkantea egin zituzten, eta ondotik Altxateko plaza jendez bete zen mutxiko eta Iratzar taldearen erromeriarekin.

Artisau eta eskulangileen postuez gain, ikastetxeetako ikasleek beraiek egindako produktu eta jatekoak paratu zituzten salgai. Horrez gain, Lurraren Eguneko lantaldeak taloak prestatu zituen, eta iluntzean baita gaztaina erreare. Gainera, Argiñenea etxean Pello Irazokiren postalen erakusketa ikusteko aukera izan zen.



Goizean goizetik jendea ibili zen Altxateko karrikan. TTIPI-TTAPA

LABE ZAR
Astelehonetik
ordutokiak:
07:15etik
aitzinerak
Larunbata
eta igandak:
08:00etatik
aitzinerak
948 631 076 • BERA

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com
Enpresentzako materiala
Txartelak, gutun-azalak,
orriak, talonarioak,
zigiluak...

BEKO
LOREAK ETA LANGAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFLOGIA
• Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
• Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuarekin
• Tratamendu estetikoak, armarria eta malformazioak
• Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzioismoa
• Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak
Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera
Telefona: 610 549 507

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 • Altxate, 17 • BERA

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 • BERA

«Zentzurik gabeko» arbola mozketak salatu ditu udalak

Ibardingo bidean, errepide ondoan dagoen intxaurren bat moztu dute berriki, aizkorarekin

TTIPI-TTAPA

Udalak «inongo zentzurik gabe» egiten diren arbola mozketak salatu nahi ditu. «Ez da oraingo kontua. Aitzinero urteetan ere gertatu izan dira horrelakoak, baina azken hilabeteetan tarteka zuhaitzak agertzen dira moztuak. Herri lurretan, nahiz lur pribatuetan», dio udalaren oharrak.

Udalak ez daki zein izaten ahal den oinarrian dagoen arrazoiak ekintza hauek egiteko: «Jolasa? Apusturen bat? Kalte edo txikizioak egin berterik gabe? Ez diogu inongo



Moztuta agertutako arbola. UTZITAKOIA

zentzurik ikusten egia erran, eta zaila da ulertzen ekintza hauen zergatia».

Mozketa guztiak aizkoraz eginak dira. Azkena Ibardingo bidean gertatu da. Oraingo honetan, 20-25 urte inguruko intxaurren bat eta Lawson altzifrea moztu dituzte errepide ondoan, atsedean toki batean. Posta ingurura igotzen den mendiko pistaren inguruan ere egin izan dituzte mozketak.

Udalak nabarmendu du, ingurugiroari sortarazitako kalteaz gain, arrisku egoerak sortzen direla honelako mozketak egiten direnean, izan ere, azken kasuan ibilgailuak dabilen errepide ondoan egin dituztelako mozketak.

Azkenik, Berako Udalak gogorarazi du, «zuhaitz mozketa hauek legez kanpokoak direla, eta burutzen dituztenak salatuak izan eta zigorrak jaso ditzaketela. Zaindu ditzagun gure basoak eta inguruak».

Musikariei buruzko 'Bera' liburua aurkeztu dute

A. LARRETxea

Banizu Nizuke editorialaren ekimenez, eta udalaren laguntzarekin idatzi du Pablo Salgadok *Bera* liburua, eta urriaren 22an aurkeztu zuen kultur etxean. Liburua osatzeko 60 elkarrizketa baino gehiago egin ditu idazleak, eta nabarmendu du gaur egun musika aldetik «Bera dela Euskal Herriko herririk interesgarriena». Horretarako hamar arrazoi ematen ditu: Berako musikariek elkarren artean izandako harreman estua, Isidoro Fagoaga Musika Eskolaren garrantzia herrian, udalaren inplikazioa, herrian izandako kultura musikala... Horiek denak aletu ditu liburuan.



Jaurena

Denda. 948 631 217

T. 630 136 863

Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Sukaldeak
- Etxetresnak
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak

• Probestu eguzkiaren energia eta paratu EGUZKI PANELAK
• Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu.

ekoiztu zure energia, izan EKOfikoa

SMAZIZIOR
edariak

BERA

SILVIA MAZIZIOR S.L.

Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziebi, 1, LESAKA

Tel: +34 948 63 15 57

+34 676 05 16 60

maziziorsenper@gmail.com



Nahi al duzu sorta bat erosi edo zure gustura egin?

Zerbitzuen sektorea dinamizatzeko mahaia osatu dute

Udal ordezkariak komertzio, zerbitzu eta ostatuetako jabeekin egindako bileraren ondorioetako bat da

AITOR AROTZENA

Zenbait lan sektorerekin bile-
rak egin dituzte udal orde-
zkariak azken asteetan eta
horietan gehiago sakontzeko
asmoa ere azaldu dute.

Nolako Lesaka nahi dugu?
Galdera horri erantzun asmoz,
komertzio, zerbitzu eta osta-
tuetako jabeekin bilera egin
zuen urriaren 17an, Lesakako
gaur egungo egoeraren ingu-
ruko hausnarketak, iritziak,
asmoak eta ideiak elkarbana-
tu eta eman beharreko pau-
soekin ekintza plana diseina-
tzen hasiko dira orain. Sekto-



Aziendak plazara bueltatuko dira.

rea gehiago dinamizatzeko
beharra ikusi zuten denek
bilera horretan, baina ez da
herriko kontua bakarrik. Baz-
tan, Malerreka eta Bortzirietan
egin den ikerketa zabalago
batek gisako ondorioak utzi
ditu. Udalak eta arlo hauetako
ordezkariak lan-mahai bat
osatuko dute, gaia lantzen
joateko.

Abeltzainekin ere

Bertze aldetik, azaroaren 24an
izanen dira feriak. Urtero be-
zala azienda lehiaketa izanen
da, eta bertan parte hartu nahi
duten Bortzirietako abeltzai-
nekin bilera egin zuten urri-
aren 21ean. Gauza bat behinik
behin garbi gelditu zen: aurten
behi-azienda Plaza Zaharra
ingurura bueltatuko dira. Ai-
tzinetik, Lesakako abeltzaine-
kin ere bilera egin zuen udalak
eta behar diren azpiegituren
inguruan (askak, ixtegiak, ze-
rrakurak, hesi kanadiarrak...) a-
ritu ziren.

Bertso-gaztaina- jatea Basurden eginen dute azaroaren 12an

Bortzirietako Bertso Eskolak,
udalaren laguntzaz antolatu-
ta bertso gaztaina jatea eginen
dute azaroaren 12an Basurde
elkartean. Lehenik, larunba-
tean 17:00etan, Bertsolari
Txapelketa Nagusiko Duran-
goko finalerdia telebistaz ikus-
teko aukera izanen dute eta
gero, 20:00etan, afari-merien-
da bertsolariekin. Ez nolanahi-
ko bertsolariak gainera, Ber-
tsolari Txapelketa Nagusi
horretako azken bi txapeldu-
nak, Maialen Lujanbio eta
Amets Arzallus izanen baitira
Basurden, Iratxe Muxika
gai-jartzaile dutela. Afari-me-
riendaren prezioa 10 eurokoa
da eta izena eman daiteke 618
96 30 11 whatsapp zenbakia-
ren bidez.

Oinherri egitasmoa abiatu nahi dute herrian ere

Oinherri herri hezitzaileak
egitasmoaren aurkezpena egin
zuten urriaren 10ean udale-
txeko pleno aretoan. Hitzaldian
gurasoek, irakasleek eta hau-
rrekin kontaktua duten per-
sonek parte hartu zuten.
Udalak «haurretan pentsatzen
duen, haurren parte hartzea
bultzatzen duen eta balio he-
zitzaileak transmititzen dituen
Lesaka hezitzaile batean» si-
nisten du eta, bide horretan,
haurrei eta nerabeei buruzko
lehen diagnostiko bat egin
ondotik, batzarrak ere eginen
dituzte datozen hilabeteetan.



UTZITAKOA

Euskaraldiarekin bat eginez taldeko argazkia

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra eginen dute Euskaraldiaren
hirugarren edizioa. Euskaraldia ikusgarri egiteko gune
ibiltaria urriaren 12an izan zen herrian. Horrekin batera,
herri argazkia ere atera zuten plazan.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Carlos Nuñezek laugarren aldiz joko du herrian

Azaroaren 27an, hilabeteko azken igandean 19:30ean izanen dira Andre Mari Elizan Galiziako musikaria eta bere taldea

IRUNE ELIZAGOIEN

2019an eskaini zuen azken kontzertua Carlos Nuñez galiziako gaita jotzaileak eta eliza jendez lepo bete zuen. Itsaso Elizagoien herritarrek taldean trikitixa jotzen segitzen du, eta Eguberrietako biraren barrenean, aurten ere geldialdia egingen dute Etxalarren. Sarrerak dagoeneko salgai daude Kultur Etxean eta www.ataquilla.com webgunean.

Errefusa bilketa

Urriaren 7an Nafarroako Parlamentuan errefusa txapelke-



Carlos Nuñez elizan.

tako sariak banatzeko ekitaldia egin zen. Arantza, Etxalar eta Igantzi atera ziren sarituak 4. postuarekin. Bortzirietan berriz, irabazle izan da herria (29,75 kilo errefusa biztanleko).

Zirko eskola emanen du Maider Yabar akrobatak

Maider Yabar akrobataren eskutik, 6 urtetik goitiko haurrentzat zirko eskola eskainiko da ortzegunetan Landagain eskolako aretoan. 16:30etik 17:30era eta 17:30etik 18:30era, 10 hurreko bi talde osatzeko aukera dago. Hilabeteko 26 euro ordaindu beharko da.

Gazteendako Streaming Live ikastaroa

Azaroaren 3 eta 10ean, 17:00etatik 20:00etara, 12-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako doako euskarazko ikastaroa izanen da Kultur Etxean. Oier Fuentes izanen da zuzendaria eta izena ematea www.sareaneuskaraz.eus atarian egin behar da.



Usategietan ez ezik, plazan ere giro ederra izan zen. IZARO IRIBARREN

Eguraldi ederra lagun, Usategietako asteburua giro bikainean joan da

I. ELIZAGOIEN

Eguraldia lagun, urriaren hirugarren asteburua jendetsua izan zen. Larunbatean, herriko gazteek antolatutako mus txapelketan 23 bikotek hartu zuten parte eta txapeldunak Aritz Irazoki eta Imanol Tellexea izan ziren. Partxis txapelketan berriz, Izaro Iribarren eta Itsaso Elizagoien izan ziren garaile. 41 taldek hartu zuten parte patata tortilla txapelketan. Gazteetan txapeldunak Oxel Arburua, Añez Iribarren eta Ainitze Zubieta izan ziren, eta helduetan Maitane Altzuren, Leire Olagarai eta Ana Serrano. Arratsean Burrunba elektrotxarangak alaitu zuen giroa.

Usategietako Igandean ere jende andana hurbildu zen goizean Usategietara, nahiz eta haize zakarra zela eta, ez zuten sareak hedatzeko auke-



Mus txapelketako finala.



Epaimahaia tortillak dastatzen.

rarik izan. Arratsaldean kaxkoetatik herrira mugitu zen jendea. Modesto akordeoilariek arratsaldea alaitu zuen

KAGU
LIBURUDENDA
Tel./Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osakun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZeko GUREA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKALERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

ETXALAR
HOTEL-VENTA

*laguntze, familia,
kinto besta...*

**OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA**

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

Guraso Eskola tailerrean 18 lagun hasiak dira

'Hazkuntza positiboa: Eguneroko jarduna errazteko gakoak' gaia lantzen ari dira lau saiotan

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Nafarroako Guraso Eskolaren eskutik eta Igantziko Guraso Elkartearen bidez, ikastaro hagitz interesgarria antolatu dute herrian. *Hazkuntza positiboa: Eguneroko jarduna errazteko gakoak* izenburupean, 3-12 ute bitarteko haurren gurasoek badute gaia jorrazteko aukera. Lau egunez ari dira: urriaren 20an eta 27an, eta azaroaren 3an eta 10ean, 17:30etik 19:30era eta bertzeak bertze seme-alaben autoestimua nola zaindu, autonomia nola sustatu, entzute aktiboa...

lantzen ari dira 18 lagun doako tailer honetan.

Liburutegia berriz ere martxan

Udako atsedenaldiaren ondotik, liburutegiak ireki ditu ateak urteroko martxan. Ordutegia ondokoa da: asteartean 17:30etik 18:30era eta asteazkenetan: 16:30etik 17:30era. Jendeari liburutegira joateko gonbitea luzatu nahi diogu, denetarik baitago bertan. Bertzalde, institutuan irakurtzeko bidaltzen dituzten liburuak ere bertan izaten dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sexologia tailerra eskolan

Bortzirietako Gizarte zerbitzuak bultzatutako tailerrak direla eta, Iratxe Arretxea eta Itsaso Bakedano emaleen eskutik, joan den urriaren 6an sexologia tailerra egin zuten eskolan. Neska-mutikoei interesez aditu zituzten azalpenak eta jokoak ere egin zituzten.

Mediku faltaren arazoa moldatuko dela hitz eman du gobernua

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Maribel Latasa medikuaren erretiroa dela eta, azken asteetan herrian sumatzen den kezkaren harira, udalak karrikaratu duen idatzitako batean osasun arretari dagokionean, herritarrei lasai egoteko eskatu die. Bortzirietako osasun

kontseilua urriaren 17an bildu zen eta bertan Nafarroako Gobernuak bi ordezkari izan ziren; egoera moldatzeko lanean ari direla adierazi zuten eta kosta ala kosta zerbitzua eskainiko dela helarazi nahi izan die udalak herritarrei idatzitako honen bidez.

Charly Speratti Europako jiu jitsu txapelkun

Europako jiu jitsu txapelketa jokatu zen Valentzian urriaren 22an. Charly Sperattik Nafarroako Lotus Clubarekin parte hartu zuen eta urrezko domina lortu zuen. Bigarren aldiz lortu du Europako txapelketa.





Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa



LIDERA
HORITZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Itzurunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es @liderahortzklina





Joanes Illarregi irakaslearekin euskara ikasten ari dira. LEIRE MITXELENA

Herrira bizitzera etorri direnak euskara ikasten

Ortzirale arratsaldetan herriko etxean biltzen dira Joanes Illarregi irakasle dutela

NEREA ALZURI

Rita, Mariely, Evelin, Meylin, Ruth, Fernanda eta Laura azken boladan Arantzara bizitzera etorri direnak dira. Ez dira euskal hiztunak, baina izan nahi dute eta bide horretan, pausobat ematera animatu dira berriki: euskara ikasten hasi dira.

Irail hondarrean azken hilabeteotan bizitzera etorri direnei ongietorria egin zieten herriko etxean, eta hainbat herritarrekin batera, Euskal Herriko bertze tokietatik, eta Espainiatik, Nikaragutatik eta Hondurastik Arantzara etortakotako hamar lagun bildu ziren.

Bertzeak bertze, euskara eta herri euskaldunak izan zituzten hizpide eta euskara eta euskal kulturara hurbiltzeko gonbita egin zieten. Horren ondotik sortu da euskara ikasteko taldea.

Bortzirietako IKA euskaltegi-ko Joanes Illarregi leitzarra dute irakasle eta ortziralero herriko etxean biltzen dira, 15:30etik 17:30era. Oraingo, zazpi lagunek eman dute izena, norbaitek apuntatu nahi badu ateak irekiak izanen ditu. Aipatu behar da Bortzirietan euskara ikastea debalde dela, Euskara Mankomunitateak % 100ean diruz laguntzen baitu.

Kulturaldiak asteburu honetan izanen du segida

N. ALZURI

Orain arte izan diren dokumentalaren proiektioaz eta Base-ritarren Egunaz gain, ortziraletik eta igandera, kultur ekitaldi andana izanen dira herrian.

Ortziralean, azaroaren 4an, 19:00etan liburutegian, *Etxe izenak: ezaugarri orokorrak eta Arantzako erabilera* solasaldia emanen du Andres Iñigo hizkuntzalari eta euskaltzain iturrendarrak.

Larunbatean, 17:00etan eskolan, *Oso printzesa iletsua* haurrentzako antzerkia izanen da; eta ilunabarrean, 19:30ean,



Aire Ahizpak larunbatean ariko dira.

herriko etxeko gorapean, Aire ahizpen kantaldia. Igandean, 16:00etan gaztetxoentzako partxis txapelketa eta 18:00etan helduentzako mus txapelketa izanen dira Ekaitza Elkartean.



IMANOL LUKANBIO

Gaztainondoen jardunaldi jendetsua

Joan den urriaren 11n, udalak, Foresna Zurgaik eta Nafarroako Gobernuak antolatuta, gaztainaren inguruko jardunaldia egin zuten. Hagitz harrera ona izan zuen, 90 inguru parte hartzaile bildu baitziren solasaldiak eta argibideak aditzera..

Fermín Matellanes doktorea
Otorrinolaringologia
 Laser kirurgia eta irrati-frekuentzia

Bertigoaren diagnostikoa eta tratamendua 3D bidez

BERTIGOAREN ETA OREKA ALTERAZIOEN UNITATEA

Artzai Onaren Plaza, 7. Donostia.

T. 943 322 646 - 691 775 458

Iciar Mikelperizena saritu dute autonomoen ferian

Artea, aisialdia, entretenimendua eta zerbitzu soziokulturalen arloko profesional autonomo onena izendatu dute

MAIDER PETRIRENA

Nafarroako Gobernuak Gara-pen Ekonomikarako Lan Zer-bitzuak bultzatuta langile autonomoak errekonoizteko jardunaldia egin zuten urriaren 15ean, Nafarroako Lan Autonomoaren Ferian. Ceder-na-Garalur elkarteak proposatutako sariak ere banatu zituzten hamasei arlotan eta artearekin, aisialdiarekin, entretenimenduari eta zerbitzu soziokulturalari zerkusua duten jardueri dagokion saria Iciar Mikelperizena Telletxeasun bildarrak hartu zuen.



Mikelperizena sariarekin.

Nafarroako sokatira txapelketa herrian abiatu da

Nafarroako sokatira txapelketa urriaren 22an hasi zen herriko frontoian. Gizonezkoen 640 kiloko eta txapelketa mis-yoko (560 kilo) lehen jardunaldia jokatu zen. Kategoria hauetako bigarren jardunaldia Lesakan jokatu dute larunbatean.



Lehen tiraldiak Sunbillan.



UTZITAKOA

6.000 euroko txekia Bartzelonara

Mukopolisakaridosia eta erlazioa duten sindromeen Elkarteak antolatutako MPS Zientzia-Familiaren Nazioarteko XVI. Kongresua egin zen Bartzelonan. Bertiz-Juanenea familiak, maiatzaren 21ean herrian egindako osasunaren egunean lortutako 6.000 euroko txekia eman zuen.



UTZITAKOA

Jaione Otxandorena 'Salvados' saioan

Salvados La Sextako telebista kateko inflazioaren inguruko saioan Jaione Otxandorena Andiarrena agertu zen bere egoeraren berri emanez. 2018ko maiatzan Maira jatetxea ireki zuen eta ordutik, pandemia eta gaur egun prezioen igoera bortitza bizitzea egokitu zaio.



Caser Cuidados

- Etxez etxeko languntza
- Osasun arreta (fisioterapia, erizaintza, psikologia, podologia, etab.)
- Teleasistentzia 24h
- Akonpainamenduak ospitalean

Edozein egoera, iraupen, adin eta lekutan laguntzarako behar duzun arreta.

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - IRUJIN

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caserresidencial.es



KULTURKARI
Discoz grafikoa | Publikatzailea

INPRENTA-LANAK

RULEGO | ENPRESAK
Fargogintza | Gortun-arazak | Txartelak | Zigiluak...

ARGITALPENAK
Aldizkariak | Katalogoak | Bistetak programak | Udai aldizkariak
Eskueerak | Liburuak | Mapak...

Koskontako bidea, 7-1.
31770 LESAKA
T. 948 63 54 58 | kulturkari@tntip.es
www.kulturkari.com

Iruñeko Bertsopaper Lehiaketan hainbat bertsolari sarituak

Iraun Zestauk, Kattin Madariagak eta Ander Fuentes 'Iturri' bertsolariek hartu dituzte kategoria bakoitzeko lehenbiziko sariak. Eskualdeko bertze hiru bertsolari ere saritu dituzte



Helduetan Ander Fuentes 'Iturri' zubietarrak irabazi du lehenbiziko saria.

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Bertsotzale Elkartek antolatutako Iruñeko III. Bertsopaper Lehiaketan saritutako lanak jakinarazi dituzte berriki eta bederatzi lanetatik sei eskualdeko bertsolarienak izan dira.

A mailan, Berako **Iraun Zestau Telletxearen** Amilotxalanak irabazi du. Epaimahaiak «hiztegiaren aberastasuna» eta «hizkuntzaren erabileran heldutasuna» nabarmendu ditu.

B mailan, Arantzako **Kattin Madariaga Apaolazaren** Uda lanak irabazi du, eta «teknikoki txukuna eta ongi kontatua da eta bisio errealista du» epaimahairentzat. Bigarren saria Berako **Ziortza Goia Mitxelearen** Irukin pozoinduaklanak hartu du. «Gaiaren trataera» azpimarratu du epaimahaiak, baita «egilearen ahotsetik bertze baten kontakizuna transmititzeko gaitasuna» ere. Hirugarren saria Berako **Loitzate Goñi Elortzarentzat** izan da, *Gurasoak* lanagatik.

C mailan, Zubietako **Ander Fuentes Mujika Iturriren** Iluntzean lanak irabazi du. Epaimahaiaren hitzetan, «lansendoa da, ideia bat garatzen doa puntuz puntu (...)». Gainera, «teknikoki aberatsa» dela adierazi dute. Bigarren saria Lesakako **Eneko Fernandez Maritzalarren** Aurkia eta ifrentzua lanak hartu du. Epaimahaiak egitura goraiatu du, «hainbat doinu erabiltzeko egindako hautua, eta pertsona beraren bi gai kontatzeko bi ahots erabiltzeko hartutako bidea». Forma aldetik «originala» dela gaineratu dute.

Elkarrekin talde bikaina osatzen dugu

Zer garrantzitsua den ñabardurei arreta jartzea.
Ez baita gauza bera entzutea edo *kasu egitea*.

Honelakoa da gure Banka Pribatua.

Esaneko banka

www.cajaruraldenavarra.com

Errekaren Mendiaren Eguna azaroaren 12an

Goizean mendi irteera egingen dute, eta bazkariaren ondotik 'Anwar' pelikularen emanaldia izanen dute

TTIPI-TTAPA

Bi urtez modu xumeagoan antolatu ondotik, berriz ere egun osoko egitarauarekin antolatu dute aurten Errekaren Mendiaren Eguna azaroaren 12an.

07:30ean hasiko dute eguna Bonozorrotzera egingen duten mendi irteerarekin. Autobus geltokian paratu dute hitzordua. Handik bueltan, 12:30ean poteoa egingen duten, eta ondotik 14:30ean bazkaria Casino Elkartearen.

Alex Txikonen bisita eta proiektzioa

Arratsaldean izanen du jarraipena egitarauak Alex Txikonen *Anwar* filmaren proiektzioarekin. Doneztebe-ko zinema aretoan izanen da emanaldia, 17:30ean, eta sarrerak aitzinetik salgai daude Titi ostatuan eta Ostizen bortz euroren truke.

Apirilean Bilbon aurkeztu eta Europako hainbat hiritan proiektatu ondotik, Nafarroan lehenengoz Donezteben estreinatuko du Txikonek pelikula. Nepal, Sierra Leonan

eta Pakistanen filmatutako pelikula honek, Alexen neguko Manaslu 2021 (Nepal) espedizioan murgiltzen du ikuslea. Kutsatu gabeko lehenengo espedizioa izan zen hura, eguzki panelekin bultzatua. Igoera horren ondotik, lan solidario bat hasi zuen alpinistak EKi fundazioaren laguntzarekin. Fundazioak Sierra Leonako hainbat eskola eta ospitaletan energia-autonomia ahalbidetzen duen eguzki-energia sistema eskaintzen du eta hura ezagutu du pelikulan protagonistak.

Txikonen proposamena, Diamerren (Pakistan), beretzat oso berezia den Günter Messner Mountain eskolan berdina egitea da. Horrela, bi kultura desberdin elkartuko ditu. Pandemia garaian zailtasun askorekin filmatutako proiektua da eta Txikonen hitzetan «balio humanitarioak azpimarratu nahi dituen proiektua da, ikusleek hausnartzera eta enpatizatzerara bultzatzen dituen bi herrialde horietako haurren aukera faltari buruz».

Ernairen aurkezpena egingen dute ortziralean

Ortziralean, azaroaren 4an Ernairen Malerrekako aurkezpena egingen dute Azkarretan (liburutegi ondoan) 17:00etan hasita. Bertan Ernairen jardunaz, eta Ernaik aurten egindako III. Kongresuko ondorioez solastatuko dira.

Suizidioari buruzko hitzaldia hilaren 11n Lapaitzak antolatuta

Lapaitza Gazte Asanbladak antolatuta, *Estigmak hausten, solas egin dezagun suizidioaz* mintzaldia izanen dute heldu den ortziralean, hilaren 11n. Herriko ostatuan elkartuko dira 18:30ean eta Bizi-raun elkarteko Iratxe Etxenike izanen da hizlaria.



ERREKA GURASO ELKARTEA

Kalabazak apaintzeko tailerra

Erreka Guraso Elkartek antolatuta, kalabazak apaintzeko tailerra egin zuten urriaren 24an eta 25ean. Kalabazak hartu, barrenetik hustu eta Gau Beltza ospatzeko moduan apaindu zituzten. Haur aunitzek hartu zuten parte tailerrean.

Auto klasikoen bilkura egin dute herrian

Urriaren 22an dozenaka auto klasiko bildu ziren Donezteben Clasicos San Fermin elkarteak antolatuta. Goizean Merkatu plazan elkartu ziren denak, eta herrian barna ere itzulia eman zuten. Auto klasikoez gain, autobus klasiko bat ere izan zen herrian, eta jende aunitz joan zen horiek denak ikustera.



OIER ZULAIKA

Aterpea arratsaldetan irekia egonen da asteen zehar

Hemendik aitzinera aterpea arratsaldetan irekita egonen da astelehenetik ortziralera bitartean. 16:15etik 20:00ak arte egonen da irekia, eta argiak paratuko dituzte. Aterpea ongi zaintzeko deia egin dute, goizean eskolako kideek erabiliko baitute.

Autodefentsa feminista tailerra hilaren 4an eta 11n

Emaginek, Nafarroako Gobernuak eta Malerrekako Man-komunitateak antolatuta, autodefentsa feminista tailerra egingen dute azaroaren 4an eta 11n. Ikastaroa kiroldegian izanen da, 16:00etan hasi eta 20:00ak arte. Aitzinetik izena eman behar da.

«Orain arte egindako lana mantentzea da erronka»

IBAI MARIZKURRENA SAGASETA ERREKAKO MENDI ALORREKO ARDURADUNA

25 urtez Errekako mendiko arduradun izan ondotik irailean utzi zuen ardura hori Sanba San Miguelek. Ibai Marizkurrena da orain arduradun berria, eta «gogotsu» hartu du erronka

A.LARRETXE

Irailetik ardura berria du Ibai Marizkurrenak: Erreka Elkar-teko mendi sailarena. Ttikitatik izan da Errekako parte, baita zuzendaritzako kidea ere. Erreka «familia haundi bat» dela dio eta bere ardura «ahalik eta hobekien» betetzen saiatuko dela. Hilaren 12an ospatuko dute Mendiaren Eguna.

Errekako mendi alorreko ardura hartu duzu berriki. Nola ailegatu zaizu proposamena?

Gazte-gaztetatik egon naiz Errekari lotuta, 18 urterekin sartu nintzen lehenbizikoz Errekako zuzendaritza batzordean 2005etik 2013ra. Gero Alemaniara joan nintzen, eta 2018an itzultzean eta mendia gustuko nuenez, beti saiatu izan naiz Sanba laguntzen. Azken bi urteetan Sanbakerrana zidan, jada urte aunitz zirela eta iradoki zidan pixka bat nekatua zegoela ardura urtero mantentzeaz. Lehengo urteko neguaren ondotik adostu genuen aldaketa.

Zein izanen dira zure egitekoak?

Sanbak egiten zuen moduan, urteroko mendi irteerak ahalik eta hobekien antolatu eta zuzendaritza batzordearekin batera Mendiaren Eguna antolatzea. Azken bi urteetan, pandemia dela eta, ez dugu egin, baina gustatuko litzaidake udako mendi irteera berreskuratzea. Azken urteetan Pirinioetan barna izaten zen ateraldi bat, eta Euskal Herri-



Ibai Marizkurrena Mendaurren.

ko mendietara irteerak ere antolatu nahiko nituzke.

Eta zure erronkak?

Sanbak egiten zuen lan txukuna mantentzea batik bat. Nik uste duguna baloratu eta bai edo bai mantendu behar dela. Hasierako erronka Mendiaren Egunean jende gehiago biltzen saiatzea da, batik bat goizeko mendiko bueltan. Azken urtetan *betikoak* joan gara eta gustatuko litzaidake jende berri eta gazte gehiagok parte hartzea. Beraz, aprobeixatu nahi dut hemendik jendea animatzeko aurtengo Mendiaren Eguneko mendi bueltara, bazkarira eta proiektiora. **Mendiaren Egunaz gain, zer bertzeko ekintza antolatzen dituzue urtean zehar?**

Urteroko irteerak daude: Mendiaren Egunean Bonozorrotzera, abenduaren 24an Saioara eta abenduaren 31n Mendaurren izaten dira. Urte aunitzez udan irteera bat Pirinioetara egin izan da. Horrez gain Sanbak urte batzuek Malerrekako itzulia antolatzen zuen, eta neguan ere bertze irteera bat egiten zen. Errekak orain dela 25 urte baino gehiago bi astetik behin irteera antolatuak egiten zituen autobus bat eta batzuetan bi ere betez. Bertze garai batzuk ziren, gaur egun ezinezkoa da horrelako zerbait egitea nik uste bakoitz norbere kasa ibiltzen baita. Baina, garai horietan sortu zen lehenbizikoz afizioa jende aunitzen artean, Donezteben eta inguruko herrietan eta hori Txomin, Oscar, Peioko, Manolo, Joxerra, Sanba, Xanti, Zarbo eta Utergak antolatutako irteerei esker izan zen. Jende aunitz joan zen lehenbizikoz mendira beraiei esker eta txalotzekoa eta meritu haundikoa da urte horietan egin zuten lana.

90 lagun baino gehiago daude egun mendian federatuak Errekaren bitartez. Mendirako afizio haundia dagoela uste duzu?

Bai, 96 zehazki, Malerrekako jendea batik bat. Afizioa azken urte hauetan aunitz igo da, eta batez ere, pandemia eta gero. Hala ere, gaur egun bakoitza norbere kasa ibiltzeko ohitura gehiago duela erranen nuke, afizio gehiago bai, baina ba-

koitza bere taldetan. Ez diot txarra denik, ni neu gehienetan jende berarekin joaten bainaiz, baina nik uste lehen izaten zen talde haundien elkartasun hori orain zaila dela mantentzea.

Eta zuri nondik heldu zaizu afizioa?

Hasteko gurasoengandik, ttiki-ttikitatik ibili naiz mendian, lehenik attaren sorbaldan kilometro eta ordu aunitz eta, gero beraiekin bai gure eskualdeko mendi aunitzetan eta Pirinioetan. Aunitz eskertzen diet orain horrela disfrutatzen dudan afizio bat ttiki-ttikitatik sartzeagatik. Neguko kranpoien afizioa, berriz, batez ere Txominekin egin nituen irteerengatik etorri zitzaidan, eta bai udan eta bai neguan eskalatzeako afizioa Igor Agestaren bidez.

Errekako sare sozialetan ageri da udan batean eta bertzean ibili zarela mendian. Zein erronka duzu orain esku artean?

Azken bizpahiru urte hauetan aunitz gozatzen ari naiz mendian eta udan Pirinioetan zeharkaldi polit batzuk egin ditut Aitor Vertizekin batera, baita eskalatzeako bide eder batzuk Igor Agestari esker! Erronka bat bezala ez dut hartzen, baina ikusirik ia ehun hiru milako guttienez behin bederen igo ditudala, agian Pirinioetako 3.000koak akitzen saiatzea izaten ahal da dudan burutapenetako bat, Alpeak bisitatzea ere bai... Ikusi beharko dut, mila ideia ditut burutan, baina, denbora falta. Benetako erronka, Oteitzoianan, Mendaurren, Pirinioetan edo edozein menditan orain arte bezala disfrutatzen segitzea izanen da.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Eskerrak eman Sanbari hainbertze urtez Errekako mendi sekzioa hain ongi eramateagatik, baita Errekan lanean dabilen jende guziari ere, Malerrekako guziari aukera ematen diotelako gauza diferente aunitz egiteko. Ikaragarria da jendeak egiten duen esfortzua ekintza horiek guztiak aitzinera ateratzeko. Gora Erreka!



Haurrendako jokoak izanen dira aurten ere. ARTXIBOKOA

Aurtizko San Martin bestak azaroaren 10etik 13ra prest

Egun handian profesionalen arteko pilota partida, herri bazkaria Lizaso eta Lizarralde bertsolariekin eta dantzaldia izanen dute

ARKAITZ MINDEGIA AURTITZ

Bi urtez ospatu ezinik egon ondotik, aurten bai, San Martin bestak ospatuko dituzte Aurtitzen. Ohi bezala, egitarau zabala prestatu dute.

AZAROAK 10, ORTZEGUNA

17:00etan Txupinazoa. Ondotik, kalejira herriko txistulari eta trikitilariekin. 18:00etan, herriko gazteen arteko herri kirol desafioa: Goiko barridea, Beheko barridearen kontra. 21:00etan zopak ostatuan.

AZAROAK 11, ORTZIRALEA SAN MARTIN EGUNA

10:00etan diana txistulariekin. 11:00etan Meza nagusia San Martinen ohorez. 12:00etan profesionalen arteko pilota partidua. 14:00etan herri bazkaria, Sebastian Lizaso eta Ander Lizarralde bertsolariekin. Segidan dantzaldia Beñat

eta Fernandok alaitua. Arratsaldean haurrendako jokoak frontoian. Ondotik zentsuzkoa. Gauez gaupasa.

AZAROAK 12, LARUNBATA

10:00etan diana txistulariekin. 11:00etan Herriko eta Ados pilota eskolako gaztetxoaren arteko pilota partidak. 17:00etan Mendaurren trikitixa eskolaren emanaldia. Ondotik dantzaldia Trikidantz taldearekin. 21:00etan gazte afaria ostatuan. 00:00etan Gaupasa Trikidantz taldeak alaitua.

AZAROAK 13, IGANDEA

10:00etan diana txistulariekin. 12:00etan motozerra erakustaldia, Mikel Lasarteren eskutik. 15:00etan Mus txapelketa. Ondotik, patata tortilla eta postre lehiaketa. Akitzeko, herri afaria soziedadean.

2021eko uholdeek kaltetutakoak moldatzeko deialdia

Iturengo Udalak 2021eko uholdeek sortutako kalteak konpontzeko lizitazioa kaleratu du. Lizitazioaren prezioa 73.884,22 eurokoa da eta interesatuek urriaren 25era arteko epea zuten izena emateko eta eskaintza egiteko. Udalak kaleratutako memoria teknikoaren arabera, abenduaren 9tik 11ra izandako uholdeek hainbat kalte sortu zituzten Iturengo bideetan: Auntzalekuko bidean, Maki-lipurdin eta Mendaurreko bidean. Horiek moldatzeko intentzioa dute orain.

Uso eta basurde ehiztariak kontent dabilta

Aurtengo ehiza denboraldia ederki joaten ari da. Urri garaian ehiztariak gustura igo dira postuetara, eguraldi bikaina lagun izan dute eta usoa pasatzen ari da. Tiro soinuak entzun eta bandoak ikusiz, batzuk etxera saria ekarri dute, punteria onari esker. Gure herriko ehiztariak ez dira geldirik egoten, han eta hemen baitabilta basurde ehizean ere. Urriaren 12an, Pilarika egunean, bi basurde bota zituzten, bata 107 kilokoa eta bertzea 80 kilokoa, biak ere aketz ederrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pulunpako ena ateraldia Amaiurrera

Pulunpa eskolakoek Amaiur bisitatu zuten urriaren 14an. Gaztelua eta museoko bitxikeriak ikusi ondotik, Amaiurko errotaren funtzionamendua ikusi eta ikasi zuten. Talo tailerrean beraiek egindako taloa jan zuten azkenik. Duela 500 urte Amaiurren gertatutakoa lantzen aritu dira eskolan.

BAZTAN BIDASOKO EHIZARI BURUZKO

XXX. JARDUNALDI

GASTRONOMIKOAK

URRIAREN 15etik

AZAROAREN 30era

EHIZA MINAK

ARGAZKI LEHIAKETA

Geuretik sortuak ekimena bigarrenenez prest du Udalbiltzak

Euskaraz sortutako artea sustatu eta hedatzea helburu duen egitasmo hau 2023 eta 2024 urteetan luzatuko da

TTIPI-TTAPA

Lehenengo edizioaren arrakastak bultzatuta, eta hainbat hilabetez luzatu den prestaketa garai baten ondotik, martxan da berriz ere Geuretik Sortuak ekimena. Euskaraz sortutako artea sustatu eta hedatzea helburu duen egitasmo honek bigarren edizioa izango du, 2023. eta 2024. urteetan zehar luzatuko dena. Lehen urtea egonaldien eta sormenaren urtea izango da; bigarrenean, aldiz, kultur zirkuitua osatuko da ekimenean parte hartu duten udalerrietan zehar, lanak hedatzeko.

Zinegintzan, antzerkigintzan, literaturan eta, estreinakoz, komikigintzan aritzen diren sortzaileei zuzendutako beka deialdia ortzegunean zabaldu zuten Udalbiltzak, eta Aldizkari Ofizialetan argitaratzen den unetik hilabetez egongo da zabalik (epemuga laster jakinaraziko da, Udalbiltzaren gardentasun atalean).

Lehenengo edizioan bezala, ireki berri den beka deialdiak honakoa sustatuko du: goian aipatutako arte alorretako sortzaileek, euren bizilekua ez den herri batean hiru aste- bitarteko egonaldia egingo dute, bertako errealitatean modu askean oinarrituta, herriarrek harremanean, euskarazko sormen lan bat garatzeko. Hautatua den sortzaile bakoitzari bi beka eskainiko zaizkio: bata lanaren sormen, garapen edota ekoizpenerako; eta bertzea, aldiz, etorriko den hedapen fasean sortzaileek egingo dituzten aurkezpen/ emanaldien ordainsari gisa (azken hau emanaldi kopu-

ruaren arabera izango da). Bi beka horiez gain, egitasmoak sortzaileen egonaldiko dietak, ostalua eta garraio-gastuak ere estaliko ditu.

Herria edo eremua aukeratu

Deialdian ez da edizio honetan parte hartuko duten udalerrien zerrenda argitaratuko. Bertara aurkeztu diren sortzaileek, eurek garatu nahiko luketen proiektuaren proposamen ireki bat aurkeztu beharko dute, baita eremu ezberdinetara egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna adierazten duen dokumentu bat ere. Herri bakoitzari hoberen dagokion artista eta proposamena esleitzeko Balioespen Batzordea osatuko da, behin deialdia bukatuta.

Hautatu eta garatzen diren literatura lanak ipuin luzeak izanen dira, lehenengo edizioan bezala, bilduma batean argitaratuko direnak. Komikigintzarekin berdinean egingo da, sortzen diren lanak bilduma batean argitaratuz. Horrez gain, alor horretako lanen prozesu dokumentatutako duen erakusketa ibiltari bat antolatuko da. Antzerki lanak bakoitzaren bere aldetik aurkeztuko dira emanaldi zirkuituan; eta, azkenik, zinegintzaren arloan, lehengo urtean ez bezala, film laburrak ez dira film luze bakanrean ekoiztuko.

2024KO HEDAPEN ZIRKUITUA EZ DA ESKLUSIBOA IZANEN



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MEOKI

Legasako eskolakoak udazken giroan

Legasako eskolan ere udazkeneko giroan murgilduta daude. Gaztainak biltzera mendira atera eta gero Miguelek gaztainak erre eta merienda goxoa antolatu zuen eskolako atarian. Orain dela urte batzuk ikasle faltagatik eskola hestekotan egon ondotik, gaur egun 45 ikasle daude eskolan.



UTZITAKOA

Liburu mailegu zerbitzua Zubietan

Liburu mailegu zerbitzua urriaren 21ean abiatu zuten Zubietan, eskolako goiko solairuan. Egoera onean dauden 800 bat liburu bildu dituzte irailean eta urrian. Ondotik, lokala egokitu eta liburuak sailkatu eta erregistratu dituzte. Zerbitzua ostiral arratsaldetan ematen dute, 16:30etik 18:00etara.

 ANELAN LAN BERTIKALAK 948 031 174 info@anelan.pro	Egiten ditugun lanak: - Fatxaden konponketak, - segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar. 
---	---

 KULTURKARI Diseinu grafiko Publizitatea www.kulturkari.com	Biniloak Pareta eta erakusleihoetarako Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiakoak, gardenak, jartzeko errazak...
--	---



Argazkian Mintzasarea dinamikan parte hartu duten kide batzuk. ELHUYAR FUNDAZIOA

Euskara indartzeko dinamika osasun etxean

Elhuyar Fundazioarekin elkarlanean, Doneztebeko Osasun Etxean proba pilotua martxan paratu dute

TTIPI-TTAPA

Euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko hainbat hizkuntza plan ditu martxan Nafarroako Administrazioak, eta horietako bat da Osasun Departamentuarena, euskara normalizatzeko aurrerapausoak emateko asmoz sortua. Hain zuzen, oinarri horretatik abiatuta, 2018an eremu euskalduneko osasun etxeetako hizkuntzaegoera biltzeko diagnostikoak egin zituen Elhuyar Fundazioak, eta geroztik hainbat lanketa ere egin dituzte. Orain, berriz, «jauzi kualitatibo bat eman nahirik», proba pilotu bat paratu dute martxan Doneztebeko Osasun Etxean.

Donezteben zer?

Doneztebeko Osasun Etxeko zuzendaritzaren babesarekin, proba pilotua diseinatzeko eta garatzeko lantaldea osatu dute bertako administrari, erizain eta mediku banarekin. «Ahozko harremanetan eragitea eta idatzizko dokumentazioaren lanketa egitea» dituzte helburu, eta orain arte, euskararen barne erabilera eragiteko pausoak eman dituzte bi formakuntza

saio eginez eta Mintzasarea ariketa martxan paratuz.

Bi formakuntza saio eta Mintzasarea dinamika

Alde batetik, 2021eko azaroan euskaraz ulertzen ez duten osasun etxeko langileekin sentsibilizazio saioa egin zuten, «hizkuntzek osasun zerbitzuaren kalitatean duten eraginaz ohartarazteko». Eta bertetik, osasun etxeko zuzendaritzarekin eta langileekin hizkuntzen kudeaketa eta jarraipenari buruzko saioa egin zuten, «pazienteen hizkuntzak kudeatzeko duen garrantziaz jabetzeko eta zer

eta nola egin daitekeen azaltzeko».

Irailaren 27an akitu zuten Mintzasarea egitasmoa, euskaraz ulertzen duten osasun etxeko langileekin egindako dinamika. Elhuyarren arabera, «20 bat profesionalekin taldetxoa sortu eta euren arteko harremanetan euskara zenbat erabiltzen duten bildu dugu». Gaineratu dutenez, «euskararen erabilera handitzeko *eusleak* identifikatu ditugu, euskarari eusten dioten pertsonak». Hamalau astez egin dute ariketa, eta «parte hartzaileek hagitx ongi baloratu» omen dute. Bertzeak bertze, «baliagarri iruditu zaie kanpo harremanetan ez ezik, langileen arteko harremanetan ere euskara gehiago erabiltzeko, euskaraz ikasten ari diren profesionalak euskaraz erosoago aritzeko eta langile euskaldunak identifikatzeko».

Datuak ere eman ditu Elhuyarrek: «Mintzasarea dinamika hasi baino lehen, euskaldunen arteko euskararen erabilera (euskaraz eta batez ere euskaraz solas egiten zutenen kopurua) % 53koa zen. Mintzasarearekin lehenbiziko fasean euskararen erabilera % 72ra igo zen. Uda ondoko fasean, ordea, % 66an gelditu da».

Hemendik aitzinera bide beretik segitu nahi dute. «Dinamika mantentzea» dute erronka, gisa horretara, «euskararen erabilera eutsi eta herritarrei emandako zerbitzua ahalik eta aberatsena eta kalitatezkoena izateko».



MALERREKA MOTORSPORT

Malerrekako Rallyan parte hartzeko izen ematea zabalik


TTIPI-TTAPA

Malerrekako Rallya prestatzen hasiak dira Malerreka Motorsport kirol elkarteak kideak. Azaroaren 26an egingen dute lasterketa, seigarrenez, baina aurtengoa berrikuntzekin dator. Unai Apezetxea Malerreka Motorsporteko kideak kontatu duenez, «bortz urtez rallysprinta egin dugu, tarte berean hiruzpalau pasaldi. Aurten, berriz, Malerreka guzian barna rally bat egitera animatu gara. Lau tarte izanen dira, bi aldiz errepikatuz gero guztira zortzi. 90 kilometro konometratuak izanen dira». Gaineratu duenez, «kotxe gehiago espero ditugu». Asfalto gaineko Nafarroako Rally Lasterketarako puntuagarria izanen da. Baina ez hori bakarrik. Aurten, estreinakoz, Renaultekoak ere bertan izanen dira lehian. Espainiako Rally Solo Renault txapelketa jokatuko dute.

Izen ematea azaroaren 16ko 20:00 arte izanen da zabalik, www.fotomotor.com atarian. Azaroaren 18an argitaratuko dute parte hartzaileen zerrenda. Eta hilaren 26an, 08:00etan hasiko da proba. «20:00 arte luzatuko dela» dio Apezetxeak.

Bertzalde, komisario bila da biltza Malerreka Motorsportekoak. Lagundu nahi duenak 608 83 07 14ra dei dezake.

MINTZAGRAMAREN EMATZA OROKORRAK



Doneztebeko Osasun Etxeko langileen artean euskararen erabilera aztertu dute.

DONEZTEBEKO FERIAK

2022 / AZAROAK 18



BI URTEREN ONDOTIK FERIAK BUELTAN DIRA NORMALTASUNEZ

Udazkenarekin batera feria giroa dator eskualdera, eta Baztanen ondotik Malerreken txanda da. Azaroaren 18an ospatuko dira feriak Donezteben, eta neurri murriztaileak eta maskarak alde batera utzita, normaltasun osoz gozatuko ditugu aurten.

Azienda erakusketa ikusteko, postuz postu buelta bat emateko eta herri kirolen ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da, bertzeak bertze, feria egunean. Doneztebeko Herriak gustu guztietarako ekitaldiak antolatu ditu eta haur, gazte zein helduek izanen dute zer ikusi eta egin.

ongi pasa feriak!

goldea
taDerra s.l.l.

tel./fax: 948 450 060
e-mail: goldeataDerra@gmail.com
Pol. Industrial Azenan, 4
31740 Doneztebe (Nafarroa)

IRRINTZ

**LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!**

ONGI PASA FERIAK!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

OSTATUA

Mailposta

PUBLIZITATE BANAKETA / INPRIMATEGIA

EGUTEGIAK / TXARTELAK / KARTELAK / ORRI MUTUAK
KARTAZALAK / FOILETOAK / TALONARIOAK / BOLETOAK...
INPRIMITZEN DITUGU.

FOILETOAK / KARTELAK / EGUTEGIAK...
BANATZEN DITUGU.

(0034) 686 747 713
(0034) 648 847 167

Arribilagako bidea, 55 • 31793 NARBARTE (Na)
www.mailpostabuzoneos.com

MENDAUR MOTOR

T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRAVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

ongi pasa feriak!

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN

Diseinua prestatzetik inprimatzera, prozesu osoa



KULTURKARI
Etiketak, grabatuak, Polimerak

Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com



Aizkolariak lehiarako prest

Urtero bezala, kirolak bere lekua izanen du ferietan; Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatu dute aurten 18:00etan pilotalekuan. Lekunberin egindako finalaurrekoan erabaki zen boskotea lehiatuko da bertan: Ibai Sorroa arribetarra, Joxean Etxeberría zigatarra, Iker Vicente otsagabiarra, Txomin Amundarain arribetarra eta Eneko Saralegi errazkindarra.

Aizkora gustuko dutenek galdu ezin duten hitzordua izanen dute Donezteben feria egunean; lehia sutsua izanen da eta bortz lagunek erakustaldi ederra emanen dute!

Aziendak nagusi

Ohitura zaharrari segida emanez, azienda erakusketa ere ez da faltako feria egunean. Behiak, ardiak, behorrak... abeltzainen topaleku bihurtuko da bertze behin Doneztebeko Merkatu plaza eta aziendak erakustiaz gain, tratuan aritzeko ere baliatuko dute aunitzek hitzordua.



Belarra jatetxea ONGI PASA FERIAKI

Ametzia zeharkaria, 3 - 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 - www.restaurantebelarra.com

Armedo Inda SL **Allianz** **Ongi pasa feriak!**

Eztegara, 26 • BERA • T. 948 625 259
Parroquia, 21 • DONEZTEBE • T. 9484 50 266 } M. 691 384 651
Londres, 16 • IRUÑEA • T. 948 319 725 • M. 633 714 485

armedo.ind@allianzmed.es

ALTUNEA ERRETEGIA **Ongi pasa feriak!**

Kontsejo, 27 • ITUREN
T. 948 450 410

Ostia egundik ginde egundera
Bista egunetan eta bista bezperetan

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
 - Zerbitzu fiskalak
 - Lan-aholkularitza
 - Aholkularitza juridikoa
 - Herentzia eta Testamentuak
 - Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
 - Datuen babesa
 - Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com



Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 • F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 • F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948 638 077
---	---	---	---

Karrikak saltzailez beteak

Ohikoa den bezala, postuek eta dendariak Doneztebeko karrikak beteko dituzte egun osoan, 200 salmahai inguru izanen baitira. Batzuk urrunetik etorritakoak izanen dira, bertzeak berriz, eskualdekoak, eta denen artean produktu sorta zabala eskainiko dute, gustu guztientzako; artisau lanak, arropa, gozoak eta jatekoak, lanabesak, jostailuak, osagarriak...

Goiz-goizetik jendea bueltara ibiliko da herritik eta aukera ezin hobea izanen da saltzaile eta artisauekin egoteko eta aspalditik erosi nahi genuen hori lortzeko.



Rosa Semirano, 15 DONEZTEBE
T. 948 450 591 M. 659 894 374
dseminano@telefonica.net
www.veterinariaostiz.com

ONGI PASA
FERIAK



Merkatarien kalea, 29
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

TALLERES ELIZGOYEN

Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

Ongi pasa
feriak!

Mekanika azkarra
Multimarka diagnosis
Injekzioa
Gasolioa
Direkzioa
Balaztak eta ABS
Elektronika
Aire girotua
IAT aurreko azterketa
Esekidura
Txapa eta pintura

MULTIMARKA TALLERRA

Leitzako bidea, 78 - Doneztebe | 948450158
elizgoyen@telefonica.net



Ongi pasa
feriak



ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA

ZURE BETIKO DENDA
ORAIN ON-LINE ERE:
www.libriercasaoitiz.com

Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
imprimircasaoitiz@gmail.com

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea 57 · DONEZTEBE · 948 450 525





Arozena
ostatu · jatetxea

ongi pasa feriak!
T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE



ongi pasa feriak!!

T. 948 456 152
Zazpigarutze, 8 · DONEZTEBE



Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE



Ongi pasa feriak!

MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



«Gure seme-alaben ongizatea bermatzea dugu helburu»

Erreka Guraso Elkartea

Belaunaldiz belaunaldi, Erreka Guraso Elkartek Doneztebeko eskolako gurasoak lantalde batean bildu ditu. «Guk ttikitatik, ikasleak ginenetik eza-gutu dugu elkarte, baina azken lau urteotan aldaketa nabarmena eman da kudeaketa eta funtzionamenduan. Talde polita dugu eta lan egiteko gogotsu gaude». Izan ere, elkarte 134 familiek osatzen badute ere, lantalde inplikatuan 12 lagunek parte hartzen dute, eta Leire Uterga Labiano da lehendakaria.

Elkartearen helburua argi dute: «elkarlana; irakasle, ikasle, langile, udal eta gurasoen arteko elkarlana gure seme-alaben ongi izatea bermatu ahal izateko». Hezkuntza komunitatearen parte direnez, eskolan laguntza eskaintzen dute eta gurasoen iradokizunak kudeatzen dituzte; «elkartea eskolaren eta gurasoen arteko lotura da».

Horretarako, «etengabeko komunikazioan gaude ikastetxearekin, eskola

Sampi Aragón S.L.



T. 948 450 354 | DONEZTEBE • sampiaragon@sampiaragon.com • www.arincar.com

kontseiluan, jantokiko batzorde ekonomikoan eta bizikidetzat batzordean parte hartzen dugu eta gurasoen proposamen eta kezak biltzen ditugu». Gainera, hainbat jarduera antolatzen dituzte ikasturte osoan; solasaldiak, tailerrak... «gure edo Doneztebeko Udalaren ekimenez». Hau guztia antolatzeko, «beharren arabera» elkar-tzen dira; «normalean astean behin edo bi astetik behin egiten ditugu bil-lerak».

Ferletarako prest

Aurten, lehenbiziko aldiz, ferietan postu bat paratzea erabaki du taldeak. «Dirua lortzeko kanpaina bat egitea ezinbertzekoa dela ikusi dugu, gurasoei ekonomikoki lagun-tzeko eta ekitaldiak antolatzeko be-harrezkoa baita».

«Lortutako dirua suertatzen diren beharren eta ideien arabera erabiliko dugu»

Hainbat produktu egin dituzte eta fe-rietako eguna «salmentarako apropo-sa» ikusten dute; «kamisetak, botilak eta bokata eramailak salduko ditugu. Honez gain, boletoak egin ditugu eta feria eguneko eguerdian egiten dugu zozketa. Lau sari izanen dira: Donez-tebeko Belarra Jatetxean bi pertso-nendako otordua, Iturengo Herriko ostatuan bi pertsonendako otordua, Donamariako Bentan bi pertsonen-dako otordua eta Elgorriagako Bai-nuetxean bi pertsonendako zirkuitu termala eta otordua». Lana aitzinatu

dute dagoeneko; «boletoak famili-
en artean banatu ditugu saltzeko, baina
goiz horretan ere postuan izanen di-
tugu».

Lortutako dirua «etorkizunean suer-
tatzen diren beharren eta ideien ara-
bera» erabiliko dute, «eskolak izan
ditzakeen beharrak betetzeko».

Disfrutatzeko eguna

Lana ez ezik, ongi pasatzeko eguna
da feria eguna. Gurasoek «lasaitasu-
netik» bizi duten eguna da; «umeekin
buelatxo bat eman, bertako produk-
tuak dastatu eta inguruko jendearekin
harremantzeko probaxten dugu». Ba-
koitzak bere mo-
dura bizi badu
ere, «familiako
partaide guztiok
disfrutatzen du-
gun eguna da».

Bi urteren ondotik feriak normalta-
sunez ospatzeko «gogotsu» daude;
«gainera, aurtengoak bereziak izanen
dira guretzat, bertan txoko bat izanen
dugulako».

Azkenik, taldekideek azpimarratu
nahi izan dute elkarteak «ikasle eta
familia guztiontzat» egiten duela lan,
eta «oraindik Guraso Elkarteak kide ez
diren familiak bazkide egitera gonbi-
datu nahi ditugu. Elkarlanean segitu-
ko dugu gure seme-alaben ongizatea-
ren alde».



**2022ko
UDAZKENEKO
ESKAINTZAK**

UDAZKENA STIHLekin HASTEN DA

Zure Denda Espezializatuan bakarrik

José Luis San Miguel

Merkatarien zeharkarrika, 11 DONEZTEBE - 948 45 07 11

www.joseluisanmiguel.com

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

**ONGI PASA
FERIAK!**

**24 ORDUKO
ZERBITZUA**

**BEZEROARENTZAKO
ARRETA-ZERBITZUA ITXIA
DAGOENEAN**

**BETE DEPOSITUA MAKINA
AUTOMATIKOAN**

**TXARTELAREKIN EDO
ESKUDIRUTAN**

**GASOLEA
ETXERA
ERAMATEN DUGU**

**SUPERMERKATUKO
PREZIOAK**



Ctra. N-121-A - Km 48,8 - DONEZTEBE
T. 948 450 272 - 948 450 787

«Desberdina da sektore publikoko eta pribatuko langileen poztasuna»

LOURDES GASTEARENA BALDA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO DOKTOREA

Sektore publikoko eta pribatuko langileen ongizatea aztertu du Gastearenak bere tesian. Ikerketan atera dituen ondorioak azaldu dizkio TTIPI-TTAPARI

G. PIKABEA

«Sektore publikoko eta pribatuko langileen poztasun maila desberdina» dela ondorioztatu du Lourdes Gastearena Baldak (Ezkurra) bere tesian egindako ikerketan. Eta alde hori lan baldintzekin lotu du. Ez da, ordea, eragina duen arrazoi bakarra bere hitzetan. Enpesatik kanpoko beste faktoreek duten eragina ere ikertu du, baita presentismoaren determinatzaileak. Presentismoa «gaixorik egonda lanera joatea» dela azaldu du.

Sektore publikoko eta pribatuko langileen ongizatea ikertu duzu. Nolakoa izan da ikerketa?

Sektore publikoko eta pribatuko langileen ongizatea eta hori azaltzen duten faktoreak izan ditut ikergai. Ongizateari dagokien, tesian bi adierazle aztertu ditut, bata laneko satisfazioa, adierazle positiboa bera, eta bestalde, alderdi berritzaile bat, presentismoa. Literaturan arreta mugatua izan du eta ongizatearen adierazle negatibo bat da. Lan hau egiteko hiru ikerketa egindut. Lehenengoan jakin nahi nuen sektore publikoko langileek zergatik duten poztasun gehiago sektore pribatuko langileek baino. Bigarren ikerketan laneko poztasunean sakontzeko haratago joan nahi nuen herrialde bakoitzeko faktore instuzionalek langileen poztasunean zenbateraino eragiten duten jakiteko. Hirugarren ikerketan, laneko presentismoa aztertu nahi nuen,

batez ere zein diren lanarekin lotutako determinatzaileak eta haien eragina ea ezberdina den sektore publikoan eta pribatuan. Hiru ikerketak inkestetan oinarritu nituen.

Sektore publikoko eta pribatuko langileen poztasun maila desberdina dela ondorioztatu duzu...

Bai. Desberdintasun hori bi sektoreetako lan baldintzen ondorio da. Sektore publikoan

lan eskaera txikiagoa da, lanordu gutxiago dituzte eta esfortzu gutxiago eskatzen duen sektorea da. Eta aldi berean, lanerako baliabide gehiago dituzte, hala nola, telelanerako aukerak, kontratu finkoak... Alde horien ondorioz, enplegatu publikoak sektore pribatukoak baino kontentuago daude beraien lanarekin. Hortaz, kudeatzaileek, ahal den neurrian, lanorduei

edo errutinari dagokienez, laneko eskakizunak gutxitzen saiatu beharko lukete, eta horrekin batera, baliabideak gehitzen: telelanerako aukerak, kontratu finko gehiago....

Faktore instuzionalek ere laneko poztasun mailan eragiten dutela diozu. Azalduko zenuke?

Langileen poztasunean eragiten duten faktoreak enpresa barrukoak, hau da, lan baldintzak, edo kanpokoak, faktore instuzionalak, izan daitezke. Faktore instuzionalen artean bi mota bereizten dira; alde batek, faktore formalak eta horren adibide, laneko askatasuna, eta bestetik, informalak, hau da, herrialdeko kultura. Bi faktore horien eragina ikertu dut: alde batetik, laneko askatasunak langileen poztasunean duen eragin zuzena, eta bestetik, eragin hori nola aldatzen den herrialde bakoitzeko kulturaren arabera, hau da, nolakoa den haien arteko efektu interaktiboa. **Eta zer ondorioztatu duzu?**

Unibertsitatean ikerketan eta irakaskuntzan aritzea amets

Ezkurran sortua da Lourdes Gastearena, baina ikasketak eta lana tarteko, gaztetatik Iruñea eta Ezkurra artean eman du «bizi gehiena». «Alderdi praktikoak erakarritza» Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua ikasi zuen: «modu batera edo bestera denak enpresarekin harremanetan gaude, laneko kontratu baten bidez, langile autonomo edo sindikatuko kide izanda... Harreman horiek arautzen dituen oinarritzko legedia ezagutzea interesgarria zela iruditzen zitzaidan eta gradu honek hori eskaintzen du».

Ikasketak bukatuta lanerako pausoa eman zuen. Aitortu duenez, «betitik administrazio publikoetan lan egiteko interesa izan dut, nahiz eta tarteka beste lan batzuetan aritu».



NUP

Nafarroako Unibertsitate Publikoan hamaika urtez aritu zen lanean, «besteak beste, Psikologia eta Pedagogia Departamentuan, matrikulen atalean eta euskara zerbitzuan», eta beti «kudeaketa administratiboan». Irakasleekin ere «harreman handia» izan duela dio. Lehenagotik, berriz, «Nafarroako Aurrezki Kutxan eta Baztango Udalean» aritu zen, «aldi baterako».

Unibertsitateko kontratua bukatuta erabaki zuen Bigarren Hezkuntzako Masterra egitea, «bigarren hezkuntzako oposizioak prestatzeko asmoz». Baina «masterra egin eta gero, tesia egiteko aukera» sortu zitzaionean bide hori aukeratu zuen: «ez nuen inoiz pentsatu tesia egitea, baina erronka polita zela ikusi nuen. Gainera, gustuko duzun gai batean espezializatzeko bidea ematen dizu eta hori oso polita da». Gisa horretara erantzun zion «betitik» izan duen «ikasteko jakin-minari eta kuriositateari».

Doktorea da gaur egun, eta ANECA Espainiako Kalitate eta Akreditazio Ebaluaziorako Agentziaren akreditazioa lortzea du begiz joa; «horrek unibertsitateko ikerkuntzan eta irakaskuntzan modu egonkorrean jarraitzera bideratzen zaituelako. Bitartean, beste ikerketa proiektu batzuk prestatzen ariko naiz».

Faktore instituzionalek laneko poztasun mailan eragina dute. Zehazki, laneko askatasunak langileen poztasuna areagotzen du. Hau da, lan baldintzak zenbat eta gutxiago arautuak izan, orduan eta askatasun gehiago akordioak lortzeko, eta horrek poz gehiago dakar. Bestalde, poztasun hori handiagoa da dimentsio kultural jakin batzuk nagusi diren herrialdeetan; adibidez, boterearekiko distantzia txikia den kulturetan, ziurgabetasunak ezinikusi txikia sortzen duen kulturetan eta indibidualismoa nagusi den herrialdeetan. Hau da, enpresatik kanpoko faktore horiek jendeak lan esperientzia bizitzeko duen moduan eragin dezakete, eta hori poztasun mailan nabaritzen da. Argi ikusi da lanean askatasuna izateak herrialde batzuetan besteetan baino ondorio hobekak dituela. Langileak beraien eginkizunetan eragin korrak izateko, ardurdadunek arreta berezia jarri beharko lukete herrialde bakoitzeko kulturetan, eta horren arabera, laneako askatasun maila egokitu.

Presentismoa ere aipatu duzu, zure hitzetan, «gaixorik egonda lan egitea» da. Kontatuko zeniguke?

Langileek, gaixorik egon arren, batzuetan lanera joatea erabakitzen dute. Erabaki horren atzean arrazoi asko egon daitezke, konparazio batera, lan baldintzak. Langileek presentismoa joera handiagoa izan dezakete lankideek ordezkatzeko zailtasunak dituzten enpresetan ari badira, edo lanaren ardura sentitzen badute. Kasu horietan langileak beti lanera joateko prest egoten dira, nahiz eta ez ongi sentitu. Presentismoaren literaturak erakusten du presentismoak ondorio txarrak dituela bai enpresarengan, produktibitate gutxiago duelako, baita langilearengan ere, bere osasunak okerrera egin dezakeelako. Horregatik presentismo maila murriztea da enpresaburuen erronka nagusietako bat.

Zenbaterainokoa da lan baldintzek presentismoan duten eragina?



Ikasketak eta lana tarteko, Ezkurra eta Iruñea artean ibiltzen da Gastearena. UTZITAKO ARGAZKIA

Lan kontratu finko batek ematen duen ziurtasunak sektore publikoan presentismoa murrizten du, baina sektore pribatuan ez. Gisa berean, etorkizunean lanean jarraitzeko pertzeptzioak sektore pribatuan presentismoa murrizten du, baina sektore publikoan ez. Bestalde, telelanak bi sektoreetan areagotzen du presentismoa; nagusien eta langileen arteko konfiantzak bi sektoreetan murrizten du, eta enpresako prestakuntzak sektore pribatuan lan egiten dutenengan soilik areagotzen du presentismoa. Beraz, lan eremu osasungarriak eta estimulatzailerak sustatzeko, lan baldintzeaz gain, sektore bakoitzaren eragina ere kontuan hartu beharko litzateke.

«DESBERDINTASUNA BI SEKTOREETAKO LAN BALDINTZEN ONDORIO DA»

Zergatik aukeratu duzu gai hau?

Langileen ongizateak erakarri ninduelako hasi nintzen, bereziki unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako irakasleen ongizateak. Irakasleek, klaseak emateaz gain, beste zeregin asko dituztela eta zeregin horiek lan karga areagotzen dietela konturatu nintzen eta haien ongizatea nolakoa zen jakitea interesgarria iruditzen zitzaidan. Hortik abiatu nintzen, baina ez nekien oso ongi nola egin, eta azkenean, zuzendariarekin batera ibilbidea zehaztu, eta sektore publikoko eta pribatuko langileen ongizatean sakontzea erabaki genuen.

Zer erakutsi dizu bide honek?

Tesia egitea ibilbide luzea izan da, oso gogorra, ahalegin han-

dia eskatzen duena, ordu asko lanean eta kanpotik ez da ikusten. Baina pertsonalki oso esperientzia aberasgarria eta gogobetegarria izan da; jende asko ezagutzeko aukera eman dit, ikertzen ikasi dut, beste hizkuntza batean lan egiteko aukera eman dit [ingelesez egin du tesia] baita bidaiatzeko aukera politak ere [bi egonaldi egin ditu Londresen]. Gisa berean, gaitasun intelektuala eta pentsamendu kritikoa garatzeko lagungarria da. Momentu hobekak eta okerragoak izan ditut, baina oro har, positiboa izan da.

Ikerketara nahiko diru bideratzen dela uste duzu?

Ez, ikerketarako dituzten diru-laguntzak gero eta murriztagoak dira, eta deialdiak gero eta konpetitiboak. Nire kasuan, tesia egiteko hiru aldiz eskatu behar izan nuen dirulaguntza, eta azkenean lortu nuen, baina ez zen erraza izan. Doktoretza aurreko kontratua edukitzea da nire ustez tesia egiteko eta gozatzeko modurik hoberena.

Hainbat ikastaro eta hitzaldi antolatu ditu elkarteak azaroan

Beran frantses klaseak, eta nutrizioari buruzko ikastaroa izanen dute, eta Elizondon baratze-gintzari buruzkoa

TTIPI-TTAPA

Azkeneko aleetan aipatu izan dugun bezala, hainbat ikastaro eta hitzaldi antolatuak ditu elkarteak heldu den asteetarako eta hilabeteetarako. Aitzinetik aipatutako horiez gain, hainbat ikastaro berri izanen dira urri akabailan eta azaroan eskualdeko bi herritan.

Beran, Ixiar Andueza dietistaren eskutik dietetika eta nutrizio ikastaroa izanen dute azaroaren 18an eta 25ean, eta abenduaren 2an eta 9an. Ikastaroa Beralandetan izanen da, 10:00etan hasi eta 11:30ak arte.

Horrez gain, frantsesa lantzeko aukera ere izanen dute Beran asteazkeneko azaroaren 2an hasita. Kasu honetan, bi talde izanen dira. Alde batetik, frantsesaren ezagutza dutenak 09:30ean hasi eta 11:00ak arte izanen dute ikastaroa, eta hutsetik hasten diren ikasleek, aldiz, 11:00etan hasi eta 12:30ak arte.

Berako ikastaro berriez gain, Elizondon ere bada bertze berritasunik. Baratzea lantzen

ikasteko tailerra izanen dute Arizkunenean. Urriaren 25ean egitekoa zuten lehenengo saioa, eta gainerakoak azaroaren 8an, 15ean, 22an eta 29an izanen dituzte. Ikastaro hau 16:30ean hasi eta 18:30ak arte luzatuko da.

Izena eman nahi dutenek bulegoko 948 450 878 zenbakira edo 618 567 837 telefonoetara deitu behar dute.

Azaroaren 16an hitzaldiak

Azaroaren 16an, asteazkena hitzaldia izanen dute Leitzan, Beran, Elizondon eta Donezteben. Jubilatuen egoitzak, egoitzen arteko desberdintasunak eta dependentzia izanen dituzte mintzagai. Hitzaldi denak 17:00etan hasiko dira.

Leitzan, Herri Aretan izanen da solasaldia eta Junkal Otxotorenak eskainiko du; Beran, Beralandeta aretoan eta Jokin Apezetxea izanen dute hizlari; Donezteben Arkupeak elkartearen egoitzan, eta Edurne Anzizarrek emanen du, eta Elizondon, aldiz, Arizkunenean eta Pablo Argaz solaskide dutela.

Mus txapelketako finalak jokatuko dituzte azaroaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Herriz herri mus txapelketak jokatu ondotik, aurtengo mus txapelketako finala azaroaren 10ean jokatu dute Doneztebeko Santamaria jatetxean. Elkarteak berak abisatuko ditu herrietako irabazleak. Musean ariko dira

goizean goizetik, eta otordua ere izanen dute jatetxean. Finala gutti batzuk jokatu duten arren, bazkide guztiek izanen dute egunean parte hartzeko aukera. Eguna Donezteben igaro nahi duenarentzako prezioa 42 eurotako da.



34 mendizalek egin zuten urriko irteera Bertiz inguruan. UTZITAKOA

Bertizen egin dute urriko mendi irteera elkarteak bazkideek

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko hirugarren astearteko ohiturari jarraituz, Arkupeak elkarteak 34 lagun elkartu ziren Isaak Alzugarai antolatutako mendi ibilaldia egiteko urriaren 19an.

09:00etarako egin zuten hitzordua Bertizko aparkalekuan. Mendian ibiltzeko eguraldi ezin hobea izan zuten, 17 gradu. Aizkolegi alderako bidea hartu zuten, eta bigarren kilometroan desbideratu ziren, handik Plaza Zelai aldera joateko.

Bertizko eremu barrenean gosaldia zuten. Gero Plaza-

zelaiko atakatik atera eta Oronoz aldera abiatu ziren. Paraje izugarri politak ikusi zituzten Legate aldean eta Oronoz-Mugairiko baserrietan barrena jaitsi ziren herriera, bertatik Bertizko aparkalekura joan ziren berriz ere.

Lau ordu eta gehixeagoko ibilaldi izan zen denera eta eguna bukatzeko, ohi bezala elkarrekin bazkaldu zuten denek, Urgain jatetxean.

Hurrengo hitzordua, azaroaren 15ean izanen da Arantzán, ea eguraldiak laguntzen duen!



UTZITAKOA

Portugalen izan dira 64 bazkide

Irailaren 17tik 24 bitartean Portugalen izan ziren elkarteak 24 bazkide bidaian. Portugalgo hegoaldean izan ziren, Algarve inguruan, eta bidean Cáceres, Plasencia eta Salamanca ikusteko aukera ere izan zuen. Talde polita elkartu ziren eta hagitx ongi pasatu zuten.

Hitzarmen duina eskatu dute zahar etxeetako langileek

ELA, LAB eta UGT sindikatuak deituta, greba egin zuten zahar etxeetan urriaren 24an, 25ean eta 26an

TTIPI-TTAPA

Hitzarmen eta baldintza duinak eskatu zuten urriaren 24an, 25ean eta 26an greba egin zuten ELA, LAB eta UGT sindikatuak deituta Nafarroako zahar etxeetan. «Nafarroako zahar etxeetako langile guztientzako hitzarmen bathemen eta orain onartzea» aldarrikatu zuten. Grebaren harira, elkarretaratzea egin zuten Elizondoko plazan urriaren 26an.

Grebaren bitartez egin duten lanaren garrantzia «aitortzea» eskatu zuten. Hiru sindikatuak

oroitarazi zutenez, urtebete baino gehiago daramate sek-

torerako «hitzarmen duin» bat eskatzen. «Gure lan baldintzak duinak izan daitezten bermatuko digun hitzarmena behar dugu, hilaren bukaerara soldatak handituz ailegatzea ahalbidetuko diguna; gure bizi baldintza materialak hobetuko dituen, eta horrekin batera, gure bizitzaren kalitatea hobetuko duena; atsedeen hartzeko eta familiarekin eta lagunekin egoteko denbora gehiago emanen diguna».



Elizondoko plazan urriaren 26an egindako kontzentrazioa. UTZITAKOA

Vitagramaren aurkezpenak azaroan eskualdean

TTIPI-TTAPA

Belaunaldien arteko transmisioa galdu ez dadin eta etxeko memoria betiko gordetzeko sortutako tresna digitala da Vitagrama, eta azken asteetan batean eta bertzean aurkezpenak eginen ari da Labriteko kideak. Azaroan ere horretan segituko dute eta hiru aurkezpen egingen dituzte lehen bi asteetan.

Beran, azaroaren 3an, ortzeguna aurkeztuko dute 19:00etan Beralandeta aretoan. Urriaren 4an, ortziralea, Arizkongo Medikuen Etxean egingen dute aurkezpena 19:00etan, eta hilaren 11n, hurrengo ortziralea, Lekarozen egingen dute, hori ere ordu berean.

Urriaren 28tik azaroaren 24ra

Oinarriak centrocomercialmendibil.com

80 Opari-Txartel

ZOZKATUKO DITUGU!

4.000€ saritan

Eskaneatu Mendibilen aurkituko duzun QR kodea, erregistratu eta irabazi.

Mendibil
CENTRO COMERCIAL
MERKATARITZA GUNEA

ZURE MERKATARITZA GUNEA IRUNGO ERDIGUNEAN

P **BM** **BURROS KING** **Bershka** **GAME** **ZARA** **MERKATUA** **IKEA** **TimeRoad**

Zuhaitz mugarroei buruzko jardunaldia azaroaren 10ean

Egun osoko egitaraua prestatu dute. Hainbat adituk hartuko dute parte, tartean, 2007ko mugarratzeetan ibili zen Helen Readek

TTIPI-TTAPA

Duela hamabost urte mugarratu zituzten zuhaitzen egoterra aztertzeko eta gaiak gogotara egiteko jardunaldia antolatu du Bioma Forestal elkarteak, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin eta hainbat entitateen laguntzarekin. Azaroaren 10ean egin dute hitzordua.

08:30ean plazan elkartu eta Leitzalarreko Urkizu parajera igoko dira. Eguraldi txarra baldin bada, ordea, herrian egingen dute. Lau zatitan banatuko dute jardunaldia. Alde batetik, gaian adituak diren Helen Read eta Vikki Bengtssonek hitzaldia emanen dute. Aipatu behar da Read 2007an ere Leitza izan zela. Miel M. Elozegi *Luzek* TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «Europako aditu haundienetarikoa da eta berak eta, bestek beste, Ingalaterrako ikerlariak



2011n egin zen jardunaldiko irudia.

osatatuko zuhaitz mugarroen lantaldeak Leitza zuhaitz mordoska mugarratu zituzten». Hain zuzen, Elozegi eta Gabriel Saralegik ere hitza hartuko dute, zuhaitz horiek mantentzeko

beharrari eutsi dioten bi herri-tarrek.

Zuhaitz mugarroen kimaketan aditua den Samuel Alvarezek segurtasun eta kimaketa teknikak azalduko ditu arbola batean. Saralegik, berriz, aizkorakin mozteko teknika tradizionalak esplikatuko ditu.

Azken hamabost urteotan landutako zuhaitzak ere bertatik bertara ikusiko dituzte, eta azalpenak emanen dituzte. Elozegi eta Oscar Schwendtnern zuhaitzen inguruko aniztasun biologikoa zaintzeaz ariko dira.

Jardunaldia borobiltzeko, parte hartzaileen artean eztabaida irekia egingen dute zuhaitz mota hauen kudeaketa egokiaz.

Izen ematea

Jardunaldia arbolazaintzat, basozaintzat eta parkeetako zuhaitzekin lan egiten dutenentzat da.

Gehienez 30 lagunek parte hartu ahal izanen dute, eta horiez gain, antolatzaileek. Parte hartzeko info@biomaforestal.es helbidera idatzi eta transferentzia bidez 25 euro ordaindu beharko dira. Edukiera bete arte onartuko dituzte izen emateak, beti ere, azaroaren 4ra arte egindakoak baldin badira.

Familia txokoaren programazioan aldaketak egin dituzte

TTIPI-TTAPA

Familia txokoaren programazioan aldaketak egin ditu Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Adin Txikikoen Tratu Onen Sareak. Urte bukaerara arte hainbat saio egingen dituzte eta batzuk aipatzearren, azaroaren 8an, 0 eta 3 urte bitarteko haurren gurasoentzako sorospentailerra egingen dute udaletxean, 16:30ean. Azaroaren 17an, 18 eta 36 hilabete arteko haurren autonomia eta mugak izanen dituzte hizpide Estitxu Fernandezekin, 17:00etan. Azaroaren 29an bizkar osasuntsuaren inguruko tailerra egingen dute eta abenduaren 15ean zeinuen bidez komunikatzen ikasteko tailerra.

Bestalde, gurasoak izan behar dutenentzako *Jaio naiz, zaindu nazazue, zaindu zuen burua* gida berri dute, gurasoentzako eta ama eta haurren zainketaz hainbat gomendio eta erreferentziako zerbitzuak bilduz. Gizarte zerbitzuetan eta osasun etxean eskura daitezke.



LEITZAKO UDALA

Herriko plazan hasi eta bukatu ibilbidea

«Zoragarria izan da horrela bukatzea». Halaxe zioen Oinatz Bengoetxeak bere azken partida jokatu aurretik, eta ez du gutxiago esanen urriaren 15aren ondoren. Asier Garcia lehengusua lagun, Xala eta Barriolaren kontra partida, Aurrerako pilota eskolako ikasleen arku, antolatzaileen eskutitza, aurrekua, opariak, 800 lagun bildu ziren herri bazkaria.... Ongi merezitako omenaldia jaso zuen.

Leitza eta Aresoko produktuen VIII. azoka hilaren 13an

Azokaren harira, LeitzEKO kontsumo taldeak aste osoko zikloa antolatu du *Izan burujabe!* lelopean

TTIPI-TTAPA

Izan burujabe! Lelo horixe aukeratu du LeitzEKO kontsumo taldeak azaroaren 8tik 12ra prestatu duen ziklorako. Azaroaren 13an egingen duten Leitza eta Aresoko produktuen azokak borobilduko du aste osoko zikloa, baina horren aurretik beste hainbat hitzor- du izanen dira.

Azaroaren 8an argindarraren eta gasaren fakturari buruzko tailerra egingen dute, 18:30ean Atekabeltzen.

Biharamunean, hilaren 9an, *Itsasoiko* dokumentala ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan. Horrekin batera, Ondarroa 12 Milia elkarte-ko ordezkariekin arrantza iraunkorrari buruzko solasaldia antolatu du LeitzEKO. Bi saio egingen dituzte: 11:00etan in- stitutuko ikasleentzat eta

19:00etan herri osoari irekitako.

Azaroaren 10ean *Aisialdian ere burujabe!* izenburupean, kontzertua izanen da 19:00etan Torrean, eta bertako produk- tuak kontsumitzeko aukera ere izanen da.

Azaroaren 11n bertako pro- duktuekin landutako pintxo- potea egingen dute eta bihara- munean, Energia berriztaga- rrien komunitateen topaketa.

Azaroaren 13an, zortzigarren aldiz, Leitza eta Aresoko pro- duktuen azoka egingen dute, 10:00etatik 14:00etara. Egu- raldi ona baldin bada plazan bilduko dira eta txarra baldin bada frontoian. Garaiko pro- duktuez gainera, azienda era- kusketa ere antolatu dute eta, besteak beste, behiak, behoa- rrak, ardiak eta ahuntzak iza- nen dira ikusgai.



UTZITAKO ARGAZKIA

Amnistiaren aldeko hitzordua

Jardun koordinakundeak antolatuta, Amnistia Eguna egin zuten urriaren 22an. Goizean *Amnistia eta errepresioa, iraganetik gaurkotasunera* mahai ingurua egin zuten Herri Aretoan, eta bazkalondan manifestazioa, frontoitik abiatuta. Gaueko kontzertuekin borobildu zuten eguna.

Mendialdeko Independentzia Eguna larunbat honetan

TTIPI-TTAPA

Hainbat solasaldiren ondoren, larunbat honetan, hilaren 5ean, borobilduko dute Independen- tziarako Indarra dinamika. Mendialdeko Sortuk, LABeketa Ernaik antolatuta, Independen- zia Eguna ospatuko dute.

10:00etan Leitzako txistula- riekin diana izanen da eta 11:00etan mahai ingurua hasi- ko da Herri Aretoan. *Prozesu independentistan zein momen- tutan gaude?* izenburupean Sortuko Kizkitza Gil San Vicen- tek, Ernaiko Unai Irigarai eta LABeko Imanol Karrerak har-

tuko dute hitza. 13:00etan Goi- zuetako zahagi dantza abiatu- ko da plazatik eta 14:30ean bazkaria egingen dute Torrean.

17:00etan Aiztek bazkaloste akustikoa izanen dute plazan eta 19:00etan Independentzia- rantz ekitaldia hasiko da plazan. 19:30ean Elektrobuiaka elektro- txarangak hartuko du lekukoa eta 22:30etik aurrera DJ gaua antolatu dute gaztetxean.

Txartelakerosteko azken egu- na osteguna da. Torrean eros daitezke, edo Goizuetan 688 84 39 40ra eta Larraun bailaran 600 38 60 28ra deituta.

Zinema eta antzerkia Herri Aretoan

Asteburuan, hilaren 5ean eta 6an, 16:30eko saioan *Barraski- loa eta balea* filma emanen dute eta 19:00etako saioan *Los Ren- glones torcidos de Dios*. Hilaren 13an helduentzat *Nirebaitatu- rik* antzezlan izanen da, 19:00- etan. Eta 19an eta 20an, *Cerdi- ta* eta *Mira como corren* filmak.

EH Mendi Erronkaren IX. edizioa ekainaren 3an

«Mendizaletasuna, auzolana eta ofizialtasuna» oinarri dituen hurrengo Euskal Herria Mendi Erronka, bederatzigarrena, 2023ko ekainaren 3an izanen da. Bakarkako ohiko modalita- tea (ultra, 67 km) eta erreleboen modalitatea mantenduko di- tuztela aurreratu dute.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIA: PABLO FEO

Historia eta kantua bat eginik Iberon

Leitza eta Goizuetako jende asko hurbildu zen urriaren 23an Iberoko dorrean egin zen ekitaldira. Mikel Zabaleta alkateak inguruaren historia azaldu zuen, eta ondoren Jeiki abesbatzak saio ederra egin zuen han bildutakoen gozamenerako.

Bertso musikatuak izanen dira azaroaren 11n

Azaroko hirugarren asteburuan jubilatuen eta etorkinen egunak ospatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz ongi hornitutako hila-betea joan zen urria, eta azaroa ere ez da gutxiago izanen. Hitzaldia, bertso musikatuak, jubilatuen eguna dira azaroko aurreneko asteetan izanen diren hitzorduak.

Konexio emozionala hizpide

Hilaren 10ean, 0 eta 3 urte arteko haurren konexio emozionalaren inguruan hitzaldia emanen du Estitxu Fernandezek. Adin txikikoek tratatu onen sareak antolatu du eta 17:00etan udaltzeko ganbaran izanen da.

Bertso musikatuak

Bertsolari eta musikari gazteak izanen dira protagonista azaroaren 11ko emanaldian. Bertsoan Ekhiñe Zapiain (Bera), Aner Euzkitze (Zarautz, Gipuzkoa), Haizea Arana (Eskoriatza,

Gipuzkoa) eta Maider Altuna (Arrigorriaga, Bizkaia) ariko dira eta Leire Retegi leitzarri pianoan eta Ane Apezetxea herriarrai gai-jartzaile. 18:00etan hasiko da udaletzeko ganbaran.

Jubilatuak eta etorkinen egunak

Umore Ona elkarteak, berriz, herriko jubilatuentzako hitzordua azaroaren 19an eta 20an egingen du. Hilaren 19an, arratsaldean, mus eta truk txapelketak jokatu dituzte eta 20an, goizean meza entzun ondoren, pilota eskolako partidak ikusteko aukera izanen dute. Ondoren bazkaltzeko bilduko dira, eta okerrikezean, musika izanen dute bazkalondoa.

Bestalde, azaroaren 19an etorkinen eguna ospatuko dute, Oxeguardan bazkalduz. Amaia kafetegian eta estankoa apuntatu behar da hilaren 13rako.



ARAINBURU MENDI TALDEA

Hiru Erregeen Mahaian

Arainburu Mendi Taldeak Hiru Erregeen Mahaira antolatutako ateraldiak arrakasta ederra izan zuen. Bukaera zuten eguraldia alde izan baina hantxe igo ziren tontorrera eta argazki eta guzti ospatu zuten. Adierazi dutenez, «mendian ibiltzeko afizionatuak izaki gehienak, espedizioen pare izan zen».

Hirigintza plana aldatzeko prozesu parte hartzailea martxan

TTIPI-TTAPA

Alsua-Escudero senideak eraikundeak 16 etxebizitza egin nahi ditu Zibola inguruan, lur partikularrean; zehazki zortzi etxebizitza libre bi familiako lau eraikinetan elkartuta eta blokean babes ofizialeko zortzi etxebizitza. Horretarako, ordea, lurra urbanizagarri bihurtu behar da eta, hala, hirigintza plana aldatzeko prozesu parte hartzailea abiatu du udalak. Hilaren 22an bukatuko da alegazioak aurkezteko epea. Unai Miranda alkatearen hitzetan, «prozesu luzea» izanen da eta «hau lehen-



Urbanizazioaren proposamena.

biziko urratsa da». Horren aurretik, proiektua ezagutarazteko bilera egin zuten urriaren 24an, eta alkateak argitu duenez, «jende dezente hurbildu zen. Herriarraiaren interesa piztu du».

Medikuaren etxe zaharra erosteko eskaintzak ostiralera arte aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

Urriaren 11ko ezohiko batzarrean onartu zuen udalak Medikuen etxea eraikina enkan-te publiko bidez saltzeko prozedura hastea, eta urriaren 14az geroztik zabalik da eskaintzak aurkezteko epea. Ostiral honetan, azaroaren 4an, itxiko dute epe hori eta bitartean, 09:00etatik 12:30era aurkeztu ahal izanen dira udaleko erregistroan.

Eraikina erosteko gutxieneko diru kopurua 104.064.41 euro-tan ezarri du udalak, legez bidezkoak diren zergak kanpo. Kopuru hori gorantz hobetu

ahal izanen da, baina udalak adierazi duenez, ez du horren azpiko eskaintzarik onartuko.

Bizitegi erabilera

Erosleak beheko solairua gehi bi altuerako bi etxebizitza libre egin ahal izanen ditu gehienez eta lanak eskriturak sinatzen direnetik gehienez ere bi urteko epean hasi beharko dira. Horrez gain, esleitutako ondasuna ezin izanen zaio beste pertsona fisiko edo juridiko bati eskualdatu eskritura formalizatu eta bi urteko epean, udalaren berariazko baimenik gabe.



www.casapuntos.com  armeriacasapuntos  618 68 98 55

Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa



Ezkerretik hasita hirugarrena Unai Miranda alkatea proiektuaren aurkezpenean.

Adinekoen bizi kalitatea hobetzeko proiektu pilotua

Zortzi hilabeteko proiektua Nafarroako Gobernuak, Solera Fundazioak eta Nafarroako Rural Kutxan abiatu dute

TTIPI-TTAPA

Bi herri aukeratu dituzte landa eremuan bizi diren adinekoen bizi kalitatea hobetzeko asmoz martxan jarri duten proiekturako, eta Goizueta izan da horietako bat, Arguedasekin batera. Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentua, Solera Fundazioa eta Nafarroako Rural Kutxa dira proiektuaren bultzatzaileak, eta 70.500 euroko inbertsioa egingen dutela iragarri dute. Gobernuak 15.000 euro bideratuko ditu eta gainerakoa Solera taldeak eta Rural Kutxak hartuko dute beraien gain.

Izan ere, Nafarroako Estatistika institutuaren arabera, azken 25 urteotan 80 urtetik gorako adinekoen kopurua %44 hazi da Nafarroan; 1998an 23.072 izatetik gaur egun 41.015 izatera pasatu dira. Goizuetan ere antzekoa da portzentajea. Azken 20 urteotan %42 hazi da 80 urtetik gorako kopurua: 2003an 41 ziren eta gaur egun 71 dira.

Hain zuzen, adineko horiei, zaintza egokia jasoz, beraien herrietan bizitzeko segitzeko

aukera eman nahi diete eta horregatik garatu nahi dute eredu pilotu hau.

Zortzi hilabeteko proiektua izan da, eta lau zatitan egingen dute. Hasteko egoera erreala zein den ezagutzeko diagnostikoa egingen dute; gero neurriekin ekintza plan bat garatuko dute; hirugarren fasean plana martxan jarri eta emaitzak ikusiko dituzte; eta azkenik, lortutako emaitzen jarraipena, etengabe hobetzeko lan bat eta sor daitezkeen beharretara egokitzeko aholkularitza eta jarraipena egingen dute.

Garatuko dituzten ekintzen bidez adinekoak komunitatean gizarteratzea eta parte hartzea nahi dute, bakardadea saihestuz, baina beraien duintasuna eta autonomia zaindiz. Horrekin batera, zahartze aktiboa bultzatu eta adinekoen autonomia eta konpainia hobetzeko teknologia eta digitalizazioa sartu nahi dituzte; baita kalitateko zerbitzuak ezarri eta belaunaldiarteko harremanak indartu ere, gisa horretara, adinekoen ezagutzaren eta esperientzien balioa azpimarratzeko.

Umore Ona Pilota Eskola logoa berritzeko proposamen bila

TTIPI-TTAPA

Logo berria nahi du pilota eskolak eta proposamenak umoreo-napilotaelkartera@hotmail.com helbidean bilduko ditu, abenduaren 22ra bitarte. Aukeratu-tako logoaren egileak Umore Onaren motxila eder bat jasoko du saritzat.



ARTXIBOKO IRUDIA



FELIX LOIARTE

Urrezko Ezteiak ospatu dituzte

Urriaren 12an, urrezko ezteiak bete eta ospatu zituzten Goizuetan bizi diren Lorentxo Apezetxeak eta Pilar Lujanbiok, eta Leitzan bizi diren Txomin Urrutia eta Maria Pilar Apezetxeak. Familiarekin batera ederki ospatu zuten ezkondu zirenetik 50 urte pasatu direla.



GOIZUETAKO UDALA

Mitxelkoko Florentinari oroigarria

Duela hilabete aurreratu bezala, urriaren 15ean ehun urte bete zituen Mitxelkoko Florentina Loiarte Arotzenak. Eta mendeurrena betetzea mauka ederra delako, Maialen Apezetxea Gizarte Gaietako zinegotziak eta Unai Miranda alkateak bisita egin eta lore sorta oparitu zioten bezperan.



Joan den urteko sanmartinetan herritarrek bertso musikatuak begira.

Azaroaren 11n sanmartinak ospatzeko gogotsu

Dokumental emanaldia, talo eta gaztaina jatea eta bertso saioa antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Aspaldiko ohiturari eutsiz, San Martin Eguna ospatuko dute aurten ere aranoarrek, eta horren bueltan, hainbat ekitaldi prestatu dituzte azaroaren 11rako, ostirala.

19:00etan Maisuenean pantaillaratu duten *Ibaia ez da toki bat* dokumentalarekin hasiko dira hitzorduak. Nagore Legarreta argazkilaria urtebete pasatu du Urumea ibaiari argazkiak egiten, eskuz eraikitako kamera estenoekoekin. Hainbat testigantza entzunez, ibaiaren inguruko bizipenak, ikuspegiak eta emozioak biltzen

ditu dokumentalak, Urumea bailarako herritarrek ibaiarekin duten erlazioa ur-azaleratuz. Hain zuzen Nagore Legarreta proiektuaren sortzailea eta Beñat Iturrioz dokumentalaren zuzendaria Maisuenean izanen dira.

Dokumentalaren ondoren, 20:30ean talo eta gaztaina jatea egingen dute eta jarraian bertso saioa hasiko da. Lerro hauek idazterakoan antolatzaileek erabaki gabea zuten zein bertsolari gonbidatuko dituzten, baina aurreratu zuten, «Txapelketa Nagusian parte hartzen ari diren inguruko bertsolariak osatuko dugu saioa».

Aresoko haurrak eta gurasoak gaztainak biltzen

Urtero bezala, gaztainak biltzera joan ziren urriaren 18an Aresoko haur eta gurasoak. Saskiak eskuetan gaztaina pila ederra bildu zuten. Merienda goxoa izan zuten gero eta gaztainak jateko laster elkartuko dira.



J. OLAZABAL

Eskoletxean erabilera anitzeko espazio bat sortzeko lanak egin dituzte

ENERITZ IRAOLA

Garai batean irakasleen etxebizitza zen Eskoletxeko aurreneko solairuan hainbat lan egin ditu udalak herritarrei erabilera anitzeko gela bat eskaintzeko helburuarekin, eta laster izango da erabilgarri. Egin beharreko obra guztiak bukatzean hainbat erabilera izango ditu Eskoletxeko gela berriak: jangela edo bulego bat, ikus-entzunezko aretoa, bilera gela, biltegia, informatika gela eta komuna.

Lan horiek egiteko 112.026,80 euroko (BEZa barne) aurrekontua onartu zuen udalak joan den abuztuaren 1eko osoko bilkuran. Baina proiektuak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ere jasoko du. Hezkuntza Departamentuak gehienez 80.000 euro bideratuko ditu proiektu honetara.



Eskoletxea kanpotik. ENERITZ IRAOLA

Oihan ustiapenerako enkanter publikoa

Bestalde, udalak Merku, Atxulegi, Otaberro, Elutseder eta Urteaga parajeen ustiapenera aprobetxamendua enkantera atera du. Eskaintzak aurkezteko epea azaroaren 7an bukatuko da. Egun horretan 15:00etan zabalduko dituzte eskaintzak eta horiek aurkezteko epea 30 minutu lehenago bukatuko da, 14:30ean.

Euskararen Eguneko prestaketak

Aurten ere ez du hutsik egingo Euskararen Eguna eta abenduaren 3ko pesta antolatzeko bilerekin hasiak dira batzordeko kideak. Laster egingo dituzten bileretara joateko deia egin diete herritarrei.



EUSKARAREKIN, GORA ETA GORA BETI!

URDAZUBI / URDAX
ARANTZA
ELIZONDO
ZUBIETA



**GORA▲
GORA▲**

**FEST
2022**

50 ekitaldi baino gehiago,
Nafarroako txoko guztietan,
haur, gaztetxo eta familientzat,
Euskararen Nazioarteko
Eguna ospatzeko

Abenduaren 11ra arte

IRUSI EGITARAZIA





Baztango herrietako alkateak Iruritan elkartu ziren urriaren 23an. TTII-TTAPA

Alkateek Erdizi buruzko galdeketak antolatu dituzte

Azaroaren 20an egingen dituzte eta Almandoz izanen da parte hartuko ez duen herri bakarra

TTII-TTAPA

Baztango Batzar Nagusiak Erdizko proiektuari buruzko herri galdeketa antolatu zuen urriaren 23an, baina Espainiako Gobernuak bertan behera uztera behartu zuen. Hortaz, Baztango alkateak, Almandozkoa ez bertze, Iruritan elkartu ziren egun horretan, «baztandarren lurrak eta hauen kudeaketa bertako herritarren esku dagoela» aldarrikatzeko.

Baztango historia ekarri zuten gogora: «duela 600 urte Nafarroako erregeak Baztango lurrak bereganatu nahi izan zituen, bertako jendearen nahiaren gainetik. Uste ez bezala, herritarrek erregearen nahiei kontra egin zieten, Baztango lurrak haienak zirela aldarrikatuz». Orain, Gobernuak Batzar Nagusiaren erabakia eta burujabetza «deuseztatu» dituela salatu zuten; «nola da posible gure etxean, gure iritzia jakin gabe, erabakiak hartu ahal izatea? Geuk ere badugu zer erran».

Herri galdeketak

Hau dela eta, Baztango alkateek iniziatiba hartzea erabaki dute,

«eta bailarako ordenantzez baliaturik, azaroaren 20an Baztango herri guztietan, Almandoz izan ezik, egingen diren galdeketetan parte hartzea» gonbidatu dituzte herritarrek.

Galdera ondokoa izanen da: «Erdizko bazkaleku komunalean okupazioa Magnari baimentzearen alde zaude?». Herritarrek baiezeko edo ezezeko erantzuna eman beharko dute.

Helburua «herritarren hitza aditzea dela» azpimarratu dute, «aukeratzeko eskubidea bermatzea gure betebeharra dela uste baitugu». Gainera, Nafarroako Gobernuari «UGEParen eskaerari erantzunik eman baino lehen, baztandarren iritzia entzun dezala» eskatu diote. Hortaz, «alde nahiz kontra, zuen iritzia ematera animatzen zaituztegu. Baztandarrek Baztan egiten dugulako. Baztan guztiok osatzen dugulako».

Herri bakoitzak egokien ikusten duen bezala antolatuko du galdeketa eta Almandoz izanen da parte hartuko ez duen herri bakarra.



Sarai Robles txapeldunaren agurra kantatzen. UTZITAKOA

Sarai Robles barañaindarrak irabazi du X. Mariano Izeta bertso sariketa

TTII-TTAPA

Urriaren 21ean jokatu zuten X. Mariano Izeta Bertso Sari-keta, Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Baztango Udalak antolatua. Guztira, Nafarroako 16 bertsolari gaztek hartu zuten parte, horietatik sei eskualdekoak: Patxi Castillo (Bera), Egoitz Gorosterrazu (Ituren), Urko Gartzia (Lekaroz), Ekhiñe Zapiain (Bera), Eki Mateorena (Leitza) eta Etxahun Azkarraga (Etxalar).

Arratsaldean bi kanporaketa jokatu zituzten, zortzina bertsolarirekin, eta seik lortu zuten finalerako txartela. Elizondoko Intza ostatuko kanporaketan Sarai Robles, Bittori Elizalde eta Patxi Castillo izan ziren sailkatuak. Erratzuko Zubi-puntako jokaturako saioan, aldiz, Ekhiñe Zapiain, Ekain Alegre eta Eki Mateorena.

Elizondoko Kortarixar jate-txean jokatu zuten finala afa-londoan. 70 lagun ingururen aitzinean kantatu zuten, Zigor Gartzia Zian gai-jartzaile zela. Bortz epaile izan ziren: Amaia Telletxea, Cesar Etxeberria, Izaro Mitxelena, Joseba Beltza eta Julen Zelaieta. Horiek emandako puntuen arabera, Sarai Robles izendatu zuten txapeldun, 333,5 punturekin. Haren ondotik sailkatu ziren Ekhiñe Zapiain (320,5), Ekain Alegre (302), Patxi Castillo (297), Eki Mateorena (295) eta Bittori Elizalde (252).

Txapeldunaz gain, saioko bertso onenaren saria ere eman zuen epaimahaiak, Ekhiñe Zapiainentzat izan zena, zortziko handiko bigarren bertsoagatik. Bi sariak, txapela zein bertso onenarena, Juana Mari Izetak, Mariano Izeta zenaren alabak, banatu zituen.

Fakturen garestitzearen kontra azaroaren 9an

Talde Ekosozialak elkarretaratze deialdia egin du azaroaren 9an 19:30ean Elizondoko plazan, «fakturak garestitzearen kontra eta Iberdrola eta enpresa energetikoak publikatzearen alde, Europako estatu batzuetan egiten ari diren bezala».

BRIKO
BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuk
 Ferretaria · Sukaldeko tresnak
 Mozorroak · Papertegia
 Kiroleko eta mendiko jantziak
 Moda · Oinetakoak
 Laneko arropa · Bitxiak
 Lurrin-denda
 Kosmetika, Elektronika
 Telefonoak · Poltsak eta mailetak
 Etab.

T. 608 016 052
 San Andres, 66 - NARBARTE
 (Sarrera Legasatik)

1.400 bertsozale bildu dira Baztan pilotalekuan

Alaia Martin oartzuarra izan da Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenbiziko finalaurreko irabazlea

TTIPI-TTAPA

Elizondon abiatu ziren Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoak urriaren 22an. 1.400 bertsozale bildu ziren Baztan pilotalekuan saioa bertatik bertara segitzeko. Amaia Castorene Luro gai-emailea buru zutela, sei bertsolari aritu ziren kantatzen: Unai Agirre Goia, Joanes Illarregi Marzol, Iñaki Apalategi Astigarra, Agin Laburu Rezola, Alaia Martin Etxebeste eta Onintza Enbeita Maguregi.

Ariketa guztiak egin ondotik, Alaia Martin izan zen garaile 729,5 punturekin. Ondotik gelditu ziren Joanes Illarregi 711 punturekin, Agin Laburu 677 punturekin, Unai Agirre 652,5 punturekin, Onintza Enbeita 639,5 eta Iñaki Apalategi 623 punturekin. Larunbateko saioa irabazita, Alaia Martinek zuzenean lortu du finalaurrekoetako bigarren itzulirako txartela eta Amurrión kantatuko du azaroaren 19an. Bertze borts bertsolariek hurrengo saioen zain gelditu beharko dute aitzinera eginen duten edo ez jakiteko.



Alaia Martin bertsolaria. ALBERTO ELOSEGI

Bertsolarien lana

Bertsolariek egin beharreko lanak aldatu egin dira aitzineko fasetik. Lehen bezala, binaka aritu ziren zortziko handian eta ttikian lehenik. Gero, berriz, puntuka egin zuten zortzi bertso osatu arte eta seiko motzean hiruna bertso bota zituzten gero. Azkenean, ganbarako lana egin zuen seikoteak: «Eskua hartu dizu. Indartsuago sentitu zara».



ARITZ ELIZEGI

Giro ezin hobea Gartzaingo bestetan

Giro ederra izan dute aurten Gartzaingo bestetan. Antolatzaileen erranetan, «inguruko jende aunitz hurbildu da, lan aunitz egin behar izan dugu baina merezi izan du». Egun pare batez euria izan bazuten ere, ongi moldatu ziren, eta eguraldia lagun izan zuten asteburuan.



TTIPI-TTAPA

Iruritarrek Euskaraldiarekin bat

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra eginen da aurten Euskaraldia eta baztandarrek ere parte hartuko dute bertze behin. Ekimenaren aldeko argazkiak aterako dituzte herri guzietan eta iruritarrek izan dira lehenbizikoak; haur, gazte eta helduak euskararen alde bildu dira.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN, S.L.
HARRIEN MANTENTZAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

«Kukulineren helburua eskolaren kanpo espazioa eraldatzea da»

ZURIÑE ZUBILLAGA IZAGIRRE ELIZONDOKO ESKOLA PUBLIKOKO IRAKASLEA

Kukuline proiektua martxan da Elizondoko eskolan eta auzolanean patioa haur guziendako leku bihurtzea dute helburu, «haien beharrei erantzunez eta eskola birnaturalizatuz»

R. OSKARIZ ELIZONDO

Elizondoko Eskola Publikoko Haur Hezkuntzako irakaslea da Zuriñe Zubillaga Izagirre, baita gurasoa ere; «nire alaba zaharrena bigarren mailan dago eta ttikia hurrengo ikasturtean hasiko da». Hezigarri programari esker, Kukuline proiektua abiatu zuten 2019an eskolako irakasle eta gurasoek, eta bertan buru-belarri ari da lanean Zubillaga, «haurrei begira, haurrendako eta haurrengatik».

Noiz hasi zinen Elizondoko Eskolan lanean?

2018an etorri nintzen eskolara oposizioetako praktikaldia egitera, eta aitzineko ikasturtean bueltatu nintzen berriz lanera, bi ikasturteko epea duen zerbitzu eginkizuna betetzera. Zerbitzu eginkizun hau Hezigarri programari loturikoa da.

Zer da Kukuline proiektua?

Kukuline proiektua eskolako kanpo espazioa eraldatzen ari den proiektua da. Aspektu ugari lotzen ditu espazioen eraldaketa bilatzearekin batera: haurren parte hartze eta inplikazioa, funtzio hezitzailea, herriari lotzea, auzolana, espazioen birnaturalizatzea, partaidetza, inklusioa, euskara eta euskal kulturari presentzia eskaintzea...

Nola sortu zen proiektua abiatzeko ideia?

Ikastetxea Hezigarri izeneko programa baten baitan murgildu zen, hezkuntza inklusioa



Elizondoko Eskolako irakasle eta gurasoa da Zuriñe Zubillaga. UTZITAKOA

eta eskola arrakasta sustatzeko helburuarekin. Honi loturik, egiten ditugun hainbat ekintzen barne Tertulia dialogikoak ditugu. Klaustro mailako irakurketa hauetako batean kanpo espazioen funtzio hezitzailearen inguruko testu bat leitu genuen. Gero, 2019 urtean, Txusma Azkonarekin kanpo-espazioen eraldaketaren inguruko formakuntza hartu genuen, eta haurrak eta familiak prozesuan

inplikaturik, abian jarri genuen proiektua. Honez gain, Tonucci, Heike Freire eta Malaguzzi bezalako autoreek inspiratu gaituzte prozesu guzti honetan.

Kanpo espazioaren eraldaketa aipatu duzu. Nola daude egituratuak gaur egun eskoletako patioak?

Helduaren begiradatik egituratuak daude, naturari espazioa ia eskaini gabe eta joko mota konkretu batean soilik

aritzen den ikaslea erdigunean kokatuz.

Nola alda daiteke hau?

Begiradak aldatuz eta haurra erdigunean kokatuz. Haurrak entzun behar ditugu, beraien-gandik ikasi eta fokua beraien beharretan kokatu.

Nolakoa izan da proiektuaren garapena?

Txusma Azkonarekin aipatutako prestakuntza egin ondoren, ikasleak material desegituratuarekin jolasean jarri genituen, eta diagnosi ttiki bat egin genuen jolasa aztertu ondoren. Honetaz gain, beraien ametssetako patioa marrazteko eskatu genien. Hori guztia aztertuta, patioaren diseinuarekin hasi ginen. Fase hau helduon artean egin dugu.

Zergatik paratu diozue Kukuline izena?

Proiektuari abiapuntua edo hasiera eskolako oilategiak eman ziolako. Garai haietan eszedentzian nengoen nire bigarren alaba sortu zelako, baina burua ez nuen geldirik. Halako batean, oilategi bat martxan paratzea bururatu zitzaidan, eta Josunerekin, eskolako zuzendariarekin, jarri nintzen kontaktuan. Une horretan, ikasleen beharrak aztertuak zituzten eta txitategi bat atera zela aipatu zidan. Beraz, jada ez genuen aitzakiarik! Proiektutxo bat egin nuen eta udaletxean aurkeztu nuen, baiezkoa eman ziguten eta materiala erosteko dirua eman ziguten. Oilategia nire bikotekideak eta bere aitak egin zuten eta gainerako guztia auzolan ttiki bati esker eraman genuen aitzinera. Haurrak presente egon ziren, nola ez. Eta zer dute oiloek buru gainean? Gandoorra, Baztanen *kukuline*. Horrik etorri zen taldearen izena! **Nortzuk osatzen duzue Kukuline taldea?**

Eskola mailako batzordea da Kukuline. Eskola barneko taldea da eta irakasleez gain, familiek ere parte hartzen dute. Izan ere, eskola komu-



Oilategia izan zen proiektuaren abiapuntua. Ikasleak «txandaka» arduratzen dira oiloen zainketaz, «gela bakoitzak aste batez hartzen du ardura». UTZITAKOIA

nitrate moduan jardutea ikastetxe mailako irizpidea dugu. Kukulinen, beraz, ikastetxeko zuzendariak, irakasle batzuek eta familia batzuek parte hartzen dugu. Dena den, proiektu hau ez litzateke aitzinera aterako hainbertze lagundu diguten eta parte hartu duten familia horiek guztiak gabe. Oilategiaren zaintza lanetan, baratzearen zaintza lanetan, auzolanetan, antolatu ditugun postu eta txosnetan... gogotsu eta ilusioz parte hartu dute. Beraz, Kukuline beraiek ereosatzen dute eta hemendik bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu.

Beraz, auzolana garrantzitsua izan da proiektua aitzinera eramateko?

Garrantzitsua baino gehiago, ezinbertzekoa! Auzolanik gabe ezinezkoa litzateke hau guztia. Gainera, Hezkuntza Komunitate moduan jarduteko aukera eman digu, bertze eragileekin, familiekin, hainbat talderekin... lanean arituz.

Adibidez, Lanbide Eskolakoek proiektua aitzinera ateratzen lagundu digute. Elkarlana izan dugu ardatz. Haurrak aipatzea ere beharrezkoa dut, izugarrizko lanak egin dituzte auzolanetan eta ikastorduetan! Aupa zuek!

Inklusioa da proiektuaren ardatzetako bat. Nola laguntzen du haurren integrazioan?

Azken urteotan eskolan matrikulatutako ikasleen artean etorkin kopuruak nabarmen egin du goiti, eta hau geure herriaren eta geure ikastetxearen errealitatea da. Errealitate honi, beraz, erantzuna eman behar diogu, aniztasuna positiboki baloratuz eta inklusioa bultzatuz. Inklusioak aspektu ugari biltzen ditu, eta

patioaren eraldaketak honen alde egin duela erranen nuke, ikasle guztiak eta hauetako bakoitza kontuan hartzen saiatu bakara.

Familien inklusioan ere lagundu du?

Bai, parte hartzea eta presentzia eskainiz integratu nahi izan ditugu familiak geure ikastetxean, herriaren eta geurea den euskal kulturaren barne; pixkanaka ikusaraziz eta geure kultura eta hizkuntzaren ateak zabalduz, bertan eroso senti daitezten. Auzolanak, adibidez, honetan lagundu digu, familia konkretu batzuk zuzenean gonbidatu baititugu parte har dezaten. Eta emaitza politak ikusi ditugu. Honetaz gain, herri

mailan antolatu ditugun ekin-tzetan parte hartu duten aldiro, beraien presentzia bermatu dugu, herrian txertatuz eta haurren alde lan eginez.

Baratzea eta oilategia zainzteak erantzukizuna lantzeko ere balioko dizue, ez?

Dударik gabe, honek guztiak gaur egungo gizartean eskas topa ditzakegun balore anitzen alde egiten du, hala nola: jasangarritasuna, lurraren lan-keta, Baztango ohituren erro-tzea, lana, animalia eta landareen zaintza, erantzukizuna eta errespetua...

Nola antolatu duzue zainketa hau?

Baratzea eta oilategia Hezkuntza Proiektuan ditugu txertaturik. Oilategiaren zaintzaren ardura txandaka dugu banatuta eta gela bakoitzak aste batez hartzen du. Baratzea berriz, beharren arabera antolatzen dugu. Eta jaiegunetan eta oporraldi garaian familiek hartzen dute ardura hori. Gainera, laster ne- →

«ANIZTASUNA POSITIBOKI BALORATU BEHAR DUGU»

«PROIEKTUAREN EMAITZAK HAURRENGAN IKUSI DITUGU»

gutegi bat paratuko dugu Nafarroako Gobernuan aurkeztu genuen berrikuntza proiektu bati esker. Honekin ere ildo bera segituko dugu. **Eta nolakoa izan da ikasleen erantzuna?**

Izugarri polita. Auzolanean ikaragarria da nolako lana egin duten ikustea, bakoitzak bere gaitasunen arabera. Batzuk margo lanak egiten dituzte, bertzeek indarra eskatzen dutenak, bertze batzuk eraikuntza edo muntaia lanak... hainbat lan egin dituzte eta honek guztiak zaintza eta ardura kontzientzia dakar. Honez gain, eskola barnean ere, zaintzakegiterako orduan, ikasle batzuk bereziki lanean eta gozatzen ikusten ditugu. Joan den ikasturtean bortz urteko ikasleen tutore izan nintzen eta ikasturte osoko proiektua oilategiari lotuta egin genuen; oiloak ekartzetik bisita gidatuak martxan paratzeraino. Izugarri polita izan zen eta aunitz gozatu nuen.

Aurten enbor zirkuituak eraiki dituzue patioan. Zergatik?

Preziki espazioak birnaturalizatzeko bidea ere egin nahi dugulako, eta alderdi motorren aldetik erronkak bilatzen dituzten ikasle aunitz ditugulako, bertzeak bertze. Espazio hau brearen eremuan jarri dugu itxitura batean enbor zabalak bilduz, naturari presentzia emanez.

Proiektua finantzatu ahal izateko diru iturriak bilatzen aritu zarete, ezta?

Bai, hemendik eta handik. Baztango Udalak 25.000€ko dirulaguntza eskaini digu aurtengo ikasturterako, adibidez. Kontuan hartu behar da enbor zirkuituak 28.000€ko gastua ekarri digula. Gainerakoa mota guzietako ekintzen bidez biltzen saiatu gara: Berrikuntza Proiektuetara aurkeztuz, jasagarritasunari lotutako dirulaguntza ttikiak eskatuz, zozketarako txartelak salduz, ferietan postua paratuz, Behi Piriniotarraren



Gurasoen laguntza eta auzolana «ezinbertzekoak» izan dira. UTZITAKOA



Patioko espazioa «birnaturalizatzeko» bidea egiten ari dira. UTZITAKOA



Ikasleek auzolanean parte hartu dute eta «lan anitzak» egin dituzte. UTZITAKOA



Baratze bat ere paratu dute eta «beharren arabera» zaintzen dute. UTZITAKOA

Lehiaketa egunean txosna paratuz...

Arrakasta izan duela erranen zenuke?

Bai, dudarik gabe. Emaizak ikusi ditugu, bereziki haurrengan, eta hau da guretako garrantzitsuena, haurren dako eta haurrengatik egiten baitugu. Bisita izan ditugu, proiektua ezagutzeko eta baita geure proiektuaz aholkatzeko edo lan egiteko ere. Hala nola, hondakinei lotutako adituak etorri zaizkigu (Miren Meoki adibidez), oilategikoak, baratzeakoak, zume egiterako orduan Garaion Sorgingune-k kideak etorri zitzaizkigun... Arrakasta baina indar gehiago baitu guretako bidean ikasten ari garen guztiak!

Proiektua hainbat lekutan aurkeztu ibili zarete. Azalduko zenuke?

Bai, proiektua aurkeztu izan dugu, adibidez, Oinherriko jardunaldietan. Eta gure proiektua ezagutzera ere etorri izan dira. Seinale ona izan delakoan nago!

Zein dira zure asmoak etorkizunera begira?

Ahal dudan bitartean, proiektuarekin segitzea eta bizirik mantentzea da nire asmoa. Apustu egin dugun honen guztiaren alde lanean segituko dugu finkatu ditugun helburuak betetzeko. Badakit denak duela iraungitze data eta zaila dela hor mantentzea, baina nik ahal dudan guziaz egiten dut hala segitzeko. Hurrei begira, haurren dako eta haurrengatik egindako proiektua da. Ez dakit ikastetxean segituko dudan baina proiektuarekin, dudarik gabe, segituko dut.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Ilusio haundiz egiten dugula hau guztia, geure bihotzaren puska bat eskaintzen baitiogu. Nire kasuan irakasle eta ama bezala. Proiektua herriko haur guzientzako eta nire alabentzako opari ttiki bat dela erranen nuke. Eta nola ez, ezagutzera eta gozatzera gonbidatuak zaudete!

Azaroko agenda kulturala jardueraz beteta Baztanen

Musika, ikuskizunak eta filmen proiektzioak nagusi izanen dira hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak eta eragile kulturalak hainbat jarduera antolatu dituzte.

Musika

Bidea Zabalduz zikloaren barnean, Mendi Abesbatzaren kontzertua izanen da azaroaren 5ean Arraiozko elizan 19:30ean. Folk Ametsetan zikloaren barnean, Hoot 'n' Holler taldeak musika amerikarra joko du Elizondoko Arizkunenea Kultur etxean, azaroaren 6an 18:00etan. Azaroaren 20an, berriz, Baztan Kantuz ekimenak Amaiurren egingen du geldialdia. 12:00etan herriko plazan bilduko dira.

Ikuskizunak

Hilaren 11n *On Kixote eta Mutikote* haurrendako antzerkia aurkeztuko du Euskarabideak,



'Sans Nom Sarea' filmaren irudia.

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Arizkunenean 18:00etan. Azaroraren 13an, berriz, *Arineketan* dantza eta musika ikuskizuna egingen dute Arizkunenean 18:00etan Folk Ametsetan zikloaren barnean. Iñar Sastrek eta Jagoba Astiazaran musikarien proiektu bateratua da, eta doinu tradizionalak eraberrituko dituzte, bertzelako erritmoekin uztartuz. Azaroaren 27an *Memoria eraikiz* ikuskizuna izanen da

Iruritako Gizarte Bilgunean 17:30ean, 18:30ean eta 19:30ean. Antzerkia, dantza eta ikus-entzunezkoak uztartuz, emakumeengana hurbiltzeko aukera izanen da. Pase bakoitzean 28 lagun sartzen ahalko dira eta aldeztu aurretik izena eman beharko da 948 581 279 telefono zenbakira deituta.

Zinema

Azaroaren 18an Iruritako Gizarte Bilguneko Zinema zikloaren barnean *Sans Nom Sarea* dokumentala aurkeztuko dute 19:00etan. 1942an, II. Mundu Gerran Alemania naziak Frantzia okupatu zuenean, erresistentziak jendeari ihes egiten laguntzeko sare baten historia kontatzen du, Mendibe eta Orbaitzeta artean sekretuan jarduten zena. Hilaren 24an, berriz, Berdinzinemazikloaren barnean *Sasiak eta haziak* dokumentala proiektatuko dute Elizondoko Arizkunenean 18:00etan. Filmak indarkeria matxista du hizpide, eta Aiaraldeko zazpi emakumeren bizipen eta hausnarketak biltzen ditu.

Honez gain, mahai-jokoen kutxa ibiltaria Arizkun izanen da hilaren 12an eta 13an.

Zapatillera inauguratzeko kontzertuak 5ean eta 20an

TTIPI-TTAPA

Baztango Musikazale Elkartek Zapatillera proiektua abiatu zuen joan den urtean Elbeten, bailarako musikariek entseatzeko ez ezik, musika sortzeko eta kontzertuak emateko leku bat izan dezaten. Orain inaugurazio besta antolatu dute hainbat kontzerturekin azaroaren 5ean eta 20an.

Azaroaren 5ean, larunbatean, Pottoka artista amaiurtarraren, Occhi di Farfalla talde zaraustarraren eta Zakill talde leka-roztarraren kontzertuak izanen dira 18:00etan hasita. Sarrerak debalde izanen dira eta musikaz gain, mural margoketa egingen dute eta pintxoak izanen dira.

Azaroaren 20an, igandean, Mice abeslari eibartarrak eta Rüdiger artista beratarrak kontzertuak emanen dituzte, 18:00etan baita ere. Sarrerak 5 eurotan egonen dira salgai.

Kontzertuetara norberak bere edalontzia eramateko eskatu dute antolatzaileek.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Arizaleak taula gainean. MENDI URRUZUNO

Herriko jendeak eta ardiek parte hartu dute pastoralean

'Maddiren trajeria' Xaretako pastoralean aritu dira, bai jendaurreko baita gibeiko lanetan ere

IRAIA ETA ARANTXA

Joan den urriaren 15ean eta 16an Zugarramurdiko leizean eta 22an eta 23an Sarako plazan, Xaretako herritarrek *Maddiren trajeria* pastora eman zuten. Nola ez, Zugarramurdi, Sara eta Ainhoako bizilagunekin batera, Urdazubikoak ere aritu ziren, bai taula gainean, baita gibeiko lanetan ere. Urte guztiko lana erakusteko aukera izan zuten bi asteburuetan. Goizean, desfilea izan zen herriko karriketan barna, arizale guztiak musikaz lagundurik ibili ziren, baita Etxelekuko ardiek lagundurik



Etxelekuko ardiak artista.

ere. Beraz, herriko jendeak ez ezik, ardiek ere parte hartu dute ikuskizun eder honetan. Arratsaldean, aldiz, emanaldi osoa eskaini zuten hurbildu ziren guztien plazerendako.

Halloweeneko magia gaua Trikuharryn

Halloween gaua ospatze aldera, Trikuharry animalia zentroak magia gaua eskaintzekoa zuen joan den urriaren 31n eta azaroaren 1ean. Magia ikuskizunaz gain, pintxoak ere izan ziren hurbildutako herritar eta bisitariendako eta animalia parkea bisitatzeko aukera ere izan zuten. Hauek, moztortuta agertu behar izan zuten, gau honetan ohitura den bezala. Gualdiaren ondotik, moztorro onenaren saria banatu zuten. Trikuharryn hainbat espezieetako animaliak bildu eta zaintzen dituzte.

Montxo jatetxea Ehiza Jardunaldi Gastronomikoetan

Urriaren 15etik azaroaren 30era egiten ari dira aurreko hogeita hamargarren edizioa bete duten Baztan-Bidasoko Ehiza Jardunaldi Gastronomikoak. Hamaika jatetxe parte hartzen ari dira eta aurkezpenean Iturengo Tresanean egin zuten. Jatetxe horien artean, lehen aldiz parte hartzen ari da Montxo jatetxe-erretegia. Jardunaldien izenak dioen bezala, ehizarekin eta udazkeneko produktuekin osatutako menuak eskaintzen dituzte. Argazki lehiaketa ere antolatuko dute jardunaldien barrenean.



IRAIA ETA ARANTXA

Haize bortitza urri bukaeran

Urriaren 20an, arratsalde-gau partera, Alkerdiko bidean zuhaitz bat erori zen, baita Juxtoinborda ondoan ere, herriko sarrera oztopatuz. Horrez gain, Otsondoko bidean ere hainbat zuhaixka eta adar biderat erori ziren. Gidariendako arriskutsua izanik ere, ez zen ezbeharrik gertatu.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MBSI MERIDA
BERGAMONT BH coluer LOOK



Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera



Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Ikusgarria izan zen Pastoralaren estreinakoa. JUAN MARI ONDIKOL

'Maddiren trajeria' pastoralara ikusgarria izan da leizean

Xaretako pastoralaren estreinaldiko bi emanaldietara mila lagun baino gehiago hurbildu ziren urriaren 15ean eta 16an

MARIFA ETA KORO

Izigarri ongi joan zen urriaren 15ean eta 16an leizean eskainitako *Maddiren trajeria* pastoralara. Bi egunetan 1.000 lagun pasa jendek ikusi zuten, eta ziotenez, ikuskizun ederra izan zen.

Ikuskizunaz gain, aipatzekoa da lau herrietako jendeen artean sortutako konplizitatea eta elkartasuna, beharbada hori izan baita ikuskizun honen prestaketak ekarri duen gauzarik onena. Taula gainean 70 lagun aritu ziren, baina bertze hainbertze ere gisa guztietako bertze lanetan aritu ziren: fi-

nantziazoa bilatzen, administrazio gestioak egiten, mus-traka egunetako bazkariak prestatzen, soinekoak egiten, eguneko lan txandak betetzen, ileapaintzaileak eta makillatzaileak, haurretaz arduratu zirenak, artzainak, gauez leizea eta Sarako plazan ziren tresneriak zaindu zutenak... Pastoralako bertset batek dioen bezala: "...Xaretako pastoralara, auzolanaren emaitza".

Eskertza

Horretaz gain, kontuan hartu behar da gisa honetako ikuskizunak gastu handia dau-



Jendetza handia bildu zen leizean.



70 lagun aritu ziren taula gainean.

kala. Beraz, antolatzaileek lerro hauen bidez bereziki eskertu nahi dute laguntza ekonomikoa eman duten erakundeei: Euskal Kultur Erakundea, Euroeskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamentua eta Xareta Elkarteari. Hauekin batera, gure inguruko laguntzaile pribatu aunitz izan dira, ehun baino gehiago, eta horiei ere eskertza berezia eman nahi diete, gure euskal kulturari babesa erakustegatik.

'Filles du feu' filmaren grabaketak egin dituzte leizean

MARIFA ETA KORO

Urriaren 18 eta 21a bitarteko gauetan, *Filles du feu* (Suaren alabak) filmaren grabaketak egin zituzten leizean.

KWAI empresa ekoizlearen fikziozko serie bat da, France 2 telebistan emanen dena. Zuzendaria Magaly Richard-Serrano da.

Sinopsia

1609. Euskal Herria sorgin ehiza odoltsu baten eszenatoki bilakatzen da. Eskualdeko abortista-sendatzailea sutara bidaltzen dutenean, bere hiru alabak amesgaizto baten erdian ernatzen dira. Mendeetako tradizioei eta askatasunari uko egitera behartuta, bizirauteko borroka egin beharko dute.



Magaly Richard-Serrano zuzendaria.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

JOSENEA
ENERGIAK

JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

Erregai Banaketa
Zerbitzu Berria
zure etxera
INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es

Posta zerbitzua atxikiko dutela hitz eman dute

Astelehenetik larunbatera egunero irekiko dute goizez, baina astean hiru arratsaldez irekitzea galdegin dute

GANEX

Posta zerbitzuaz aritzeko bideo-konferentzia bidezko bilkura egin zuten Herriko etxeko gelan. Christelle Miremont departamenduko delegatuak adierazi zuen posta irekia izanen dela urte guzian 09:30etik 12:00etara, egun guziz larunbata barne. Dirua ere ateratzen ahal dela usaian bezala. Patrice Retour, Euskal Herriko zuzendariak onartu zuen ereiarotik izan dituztela zailtasunak langile eskasiarekin, baina orai igauzak normalerat etorri direla eta hazilaren erditik izanen dela enplegatu bat gehiago. Jean Christophe Roussin, Kanboko zuzendariak erran du Sarako tabako bulegoarekin badela antolamendu bat egina, arratsalde guziz postaren zerbitzu batzuk egiteko. Sarako posta atxikia izanen dela ere erran du eta ortzirale guziz, goiz eta arratsalde, permanentzia bat egingen dela bankuko kontseiluko batekin, bertze zenbait konturen artean.

Herriko etxeak eta PostAtxik kolektiboak diote abantza-



Posta bulegoaren atea.

menduak izan direla. Halere, galde egin dute ez ote den bederen hiru arratsaldez irekitzen ahal bulegoa, gutunak behar diren bezala partitzeko, diru ateratzeko beti ongi hornitua, zerbitzu guziak lehen bezala izaita eta primordia- la, paperetan eskribuz ematea denak behar diren bezala. Beharrik izan diren bilkura hauek guziak, orai bederen zerbait badakigu eta agian zerbitzua segurtatua.

Beti Gazte elkartearen urteko azken elgarretaratzea larunbatean Azketan

Beti Gazte adinekoen elkarteak antolatu du bere urteko azken elgarretaratzea, Zugarramurdi-ko Azketa jatetxean hazilaren 5ean, larunbatearekin, 12:30ean. Bazkaria: Aperitif; Hasteko, kroketak, pikillo piperrak, urdaiazpiko eta bertze, txuleta edo legatza patatekin; gasna

gerezi erreximentarekin, lur sagar tarta izozkiarekin, arno gorria eta beltza, kafea ondo-koarekin. Bazkariaren prezioa 35 eurokoa da, eta elkarteko karta duenak 27 euro ordaindu beharko du. Izena emateko epea urriaren 31ra artekoa zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Pastorala arrakastatsua Sarako plazan

Aski ongi pasatu da *Maddiren trajeria* pastorala Sarako plazan ere urriaren 22 eta 23an. Xaretako aktore horiek ongi ikasia zuten beraien gaia eta izan da jendetza handia ere. Aro ederra izan dute bi egunez, haize hegoak ongi harrotua. Ikusi da Pastoralak baduela Zuberotik aparte arrakasta.



SARAKO IZARRA RT

Basurdeek indartsu hasi dute sasoia

Etxean jokaturako bi partidak eta Eibarren jokaturakoa (argazkian) irabazi eta euskal ligako lider dira Sarako Izarra errugbi taldeko gizasemeak. Emakumeak ere ongi hasi dira konpetizioan, eta Animaineen urriaren 22an jokaturako lehen partidari 36-0 irabazi zioten Errioxako taldeari.



Espekulazioaren kontrako elkarretaratzea urriaren 8an Ibarrunen. JL BESSONART

Espekulazioaren kontra egiteko kolektiboa sortu da

Martxoko tindaketei lotutako bederatzia atxiloteta izan dira dagoeneko eta elkarretaratzea egin zuten Ibarrungo plazan

JL BESSONART

Urriaren lehen astean, etxebizitza espekulazioari buruz bi ekitaldi iragan dira. Herriko gazte bat atxilotu zuten bortizki, baina arratsalderako askatu zuten. Bederatzigarren atxiloteta da martxoko tindaketei lotua. Herriko etxe aitzineko elkarretaratzean *Utz gazteria bakean* edo *Gazteria-
ren krimilizazioa gelditu* aldarrikatu zuten. Urriaren 8an, berriz, mobilizazio ederra izan da espekulazioaren kontra Ibarrungo plazan. Hemen etxebizitza batekin egin duena eredutzat har genezake: Hur-

bileko etxe agentzia batek, egoitza bat 730.000 eurotan eskuratu ondotik, bi astetan saltzera proposatu du interneten 1.250.000 eurotan, 520.000 euroren irabaziaz. Honelako maniobrak nola ez du sorturen herritarren haserre, denak suminduak dira espekulazio baliatzailearen aitzinean. Irabazi goseak ez du mugarik, trufa baizik ez du eskaintzen bereziki egoitza baten ondotik ibilki direneri. Senpertarren kolektibo bat sortu da problematika hori hurbiletik segitzeko eta behar diren erabakiak hartzeko.

'Marripuinak' ikusgai azaroaren 8an Mediatekan

Marripuinak emanaldia eskainiko dute Jokin Mitxelena ilustratzaileak eta Pello Añorga ipuin kontalaria azaroaren 8an Mediatekan. Oren erdiko hiru saio izanen dira astear-
tean, goizez 09:30ean eta 10:30ean eta arratsaldez, 14:15ean. Sartzea urririk.

Komedia musikala Larrekon emanen dute hilaren 8an

Eh bien! Dansos Maintenant izeneko komedia musikala emanen dute azaroaren 8an, asteartean 20:00etan Larreko kulturunean. Sartzea urririk izanen da eta 50 urtetik goitikoei zuzendutako emanaldia da, Frédéric Chevaux eta Simon Froget-Legendrek sortua.

Herriko kontseiluan izandako dimisio parrastari erantzun dio auzapezak

Lehen batean bortz kontseilarik beren kargua utzi badute, aste bat barne bertze bortzek dimitutu dute, hauek dira aber-
tzale taldekoak. 2020ko ekai-
nean agintaldia hasi zenetik oposizioko Nousbaum auzapez
ohiaren zerrendatik hamaika
dimisio izan ziren. Dominique

Idiart auzapezak prentsaurre-
koa eman zuen urriaren 18an,
azpimarratuz proiektuen in-
guruan denek adostasuna era-
kutsi zutela. Ez adostasunak
agertu dira gehiago, kudean-
tzan, baita komunikazio mai-
lan ere. Ez da baztertzeko berriz
hauteskundeak egitea.



JL BESSONART

Elur Alberdiri omenaldia

Herriko kontseilari guzien ekimenez, omenaldi ttipi bat egin zaio Elur Alberdiri. Emozio handiarekin errezebitu ditu opari frango eta indarrez beterik nahi du joan Pariseko Joko Olinpikoetara, helburu batekin: Munduko txapelketan bezala, urrezko domina eskuratzea arraunean.



JL BESSONART

Liburua familian arrakastatsua

7. edizioa Larrekon iragan da urriaren 16an. Ekitaldi hau aukera egokia da hainbat ikuslerentzat, baita liburuaren inguruan lan egiten dutenentzat ere. Iaz bezala, liburua promozionatzeko, ipuinez, antzerki eta kantuz beteriko ikuskizun biziak eta animazioak proposatuak izan dira.

Bederatzi pilotarirekin abiatuko da Bortz Kirol txapelketa

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka elkarteak lehen aldiz antolatutako Bortz Kirol txapelketa azaroaren 5ean abiatuko da Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Bederatzi pilotarik eman dute izena eta joko garbian, xaren, paletan, laxoa laburrean eta eskuz ariko dira, orden horretan. Partida bakoitza 20 tantora jokatu dute eta askea tantoa galdu duen pilotariak egingen du.

David Albiasu (Narbarte), Julen Iriarte (Narbarte), Andoni Ugalde (Oiartzun), Imanol de Rueda (Doneztebe), Eloy Garcia (Doneztebe), Goraka Urtasun (Irurita), Iñaki Arzelus (Oroz Betelu), Peio Etxeleku (Donibane Lohizune) eta Jerome Karrikaburu (Donibane Garazi) izanen dira parte hartuko duten pilotariak, bi multzotan banatuak. Lehen multzoan Karrikaburu, Iriarte, Ugalde eta de Rueda izanen dira eta bigarrean Etxeleku, Albiasu, Urtasun, Garcia eta Arzelus. Partidak larunbat eta igande arratsaldetan jokatu dituzte, Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Multzo bakoitzeko bi lehenbizikoek finalerdiak jokatu dituzte abenduaren 10ean eta finala abenduaren 17an.

Lehen jardunaldiak

Lehen jardunaldia azaroaren 5ean eta 6an jokatu dute. Larunbatean, Karrikaburu Iriarteren kontra ariko da eta Arzelus Garciaren kontra. Igandean, Ugalde de Ruedaren kontra ariko da eta Urtasun Albiasuren kontra. Bigarrean, azaroaren 12an Karrikaburu Ugalderen kontra eta Etxeleku Albiasuren kontra eta hilaren 13an, De Rueda Iriarteren kontra eta Urtasun Garciaren kontra ariko dira.



Elizagoien, Lamolère eta Garin, Lizuniagako Igoerako podiumean. AITOR AROTZENA

Azkaingo Lamolère eta Igantziko Arbues garaile Lizuniagan

61 korrikalarik parte hartu zuten berako igoeraren 41. edizioan eta errekorretatik urrun ibili ziren aurtengoan

TTIPI-TTAPA BERA

Valentin Lamolère azkaindarrak nagusitu zen urriaren 22an Beran jokaturako Lizuniagako Igoeraren 41. edizioan. 17 minutu eta 19 segundo behar izan zituen proba burutzeko. Emakumezkoetan, Cristina Arbues igantziarra izan zen bizkorrena, 23 minutu eta 50 segundoko denborarekin. Errekorretik urrun ibili dira aurtun. Gizonezkoena Chakib Lagchar-ek egin zuen 2019an (15.55) eta emakumezkoena Majida Maayoufek iaz (18.30). 61 korrikalarik eman zuten izena eta 58k lortu zuten lasterketa bukatzea.

Gizonezkoetan, Lamolère irabazlearen ondotik, bigarren sailkatu zen Aritz Garin gipuzkoarra (17.39) eta lehiarik estuena podiumeko hirugarren koskarako izan zuten Beste Iruña taldeko Joseba Elizagoien narbartearrak eta Gwendal Larqué beratarrak. Azkenean, segundo bakarragatik nagusitu zitzaion Elizagoien (17.50) Larquéri (17.51).

Emakumezkoetan, Cristina Arbues irabazlearen ondotik, bigarren izan zen Berako Nahia



Olaetxea, Arbues eta Iturria.

Iturria (26.08) eta hirugarren Berako Jone Olaetxea (26.35).

Beteranoetan, gizonezkoetan Beti Gazteko Borja Garcia lesakarra izan zen bizkorrena (19.20) eta seigarren izan zen sailkapen orokorrean. Bigarren, Gure Txokoako Joseba Lasarte beratarrak izan zen (19.49) eta hirugarren Mantaleko Josema Huizi (21.56).

Emakumezko beteranoetan, Mari Karmen Urtxegi izan zen bizkorrena (28.54) eta Irene Matxiarena bigarren (29.12).

Junior kategorian, Mantaleko Beñat Albisu izan zen bizkorrena (20.35.). Unai Susperregi bigarren izan zen (22.07) eta Oihan Pikabea eta Joel Prendes beratarrak 3. postuan batera sartu ziren.

Nafarroako sokatirako lehen txapelak Lesakan banatuko dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketako lehen jardunaldia jokatu zuten urriaren 22an Sunbillaan. Hain zuzen, txapelketa mistoko eta gizonezkoen 640 kiloko lehen tiraldiak egin zituzten eta bietan Beti Gazte gailendu zen. Gizonezkoetan, lesakarrekin Berriozarrekin berdindu egin zuten lehen postuan. Katetoria hauetako txapelak azaroaren 5ean Lesakan jokatu den bigarren jardunaldiaren ondotik banatuko dituzte.

Sunbillaako lehen jardunaldian, txapelketa mistoan (560 kilo) tiraldi guztiak irabazi zituen Beti Gazte eta 7 puntu eskuratu zituen. Bigarren Berriozar izan zen, hirugarren Araxes, laugarren Txantrea, bosgarren Amaiur B, seigarren Amaiur A eta zazpigarren Antsoain.

Gizonezkoen 640 kiloko lehen jardunaldian, lehen postuan berdindu egin zuten Beti Gazte eta Berriozarrekin, elkarren arteko tiraldi bana eta gainerako guztiak irabazita. Amaiur hirugarren izan zen eta Txantrea laugarren.

Katetoria hauetako txapela azaroaren 5ean Lesakan jokatu den bigarren jardunaldian erabakiko dira, larunbatean 17:00etan hasita udal pilotalekuan.

Ondotik, gizonezkoen 600 kiloko eta emakumeen txapelketa (hauek seinaka ariko dira, 380 kiloko kategorian) etorriko dira, azaroaren 12an Barasoainen eta azaroaren 19an Elizondon. Gizonezkoen pisu arinenean bortz talde izanen dira: Amaiur, Beti Gazte, Antsoain, Berriozar eta Txantrea eta emakumeen txapelketan sei: Amaiur, Beti Gazte, Antsoain, Araxes, Berriozar eta Txantrea.



Doneztebeko finalean ariko den boskotea, Lekunberrin. UTZITAKOA

Nafarroako lehen mailako aizkolarien finala Donezteben

Azaroaren 18an, feria egunean ariko dira Iker Vicente, Ibai Soroa, Txomin Amundarain, Eneko Saralegi eta Joxean Etxeberria

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu zuten urriaren 12an, asteazken arratsaldean Lekunberriko plazan. Hamar aizkolarari ziren lehian, bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat nork lehenago moztuko eta borts lehenbizi-

koek lortu zuten azaroaren 18an, Doneztebeko ferietan 18:00etan jokatu den finalerako txartela: Iker Vicente (15.18), Ibai Soroa (17.00), Txomin Amundarain (17.12), Eneko Saralegi (17.19) eta Zigako Joxean Etxeberria (17.36). Borts segundogatik finaletik kanpo gelditu zen Arostegiko

Oier Kañamates (17.41), baita Leitzako Julen Olano (17.59) eta Jon Rekondo (18.25). Azken bi postuetan, bederatzigarren eta hamargarren gelditu ziren Aresoko Asier Pellejerok (19.53) eta Arostegiko Julen Kañamaresek (19.58), berriz, maila galduko dute eta bigarren mailan ariko dira datorren urtean. Doneztebeko finalean lan bikoitza izanen dute aizkolariek eta launa kanaerdiko, launa 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko dituzte. Sarrera 15 euro izanen da.

Emakumeen Euskadiko txapelketa igandean Mungian

Bertze aldetik, Euskadiko emakumezkoen aizkora txapelketa jokatu dute azaroaren 6an, igandean 12:30ean Mungian (Bizkaia). Zortzi aizkolarari ariko dira lehian, tartean eskualdeko hiru: Nerea Sorondo beratarra, Maika Ariztegi iturendarra eta Xanta Sousa lesakarra.

Beraiekin batera Nerea Arruti, Laiene Pikabea, Uxue Ansorregi, Beatriz Tanco eta Irat Astondoa lehiatuko dira. Bakoitzak 5 pago-enbor moztu beharko ditu: kanaerdiko bat (54 ontza) eta bina 45 ontzako eta 36 ontzako.

Sei hirukote ari dira Nafarroako XXIII. Paxaka txapelketan

TTIPI-TTAPA

Baztan eta Malerrekako sei hirukote ari dira Laxoa Elkar-teak antolatutako Nafarroako paxaka txapelketaren 23. edizioan. Ligaxkako lau lehenbizi-zikoak azaroaren 13an jokatuko diren finalerdietarako sailkatuko dira eta finala azaroaren 20an jokatuko da Iru-itako Aranabia pilotalekuan. Hauek dira hirukoteak:

- A: Iru-itako Oscar Urrutia, Joseba Urtasun eta Pablo Dorregarai.
- B: Xabi Barberena (Iru-ita), Egoitz Prim (Iru-ita) eta Juan Mari Maia (Elizondo).
- C: Gorka Urtasun (Iru-ita), Iban Juanena (Doneztebe) eta Kaiet Itoiz (Erratzu).
- D: Ioritz Zelaieta, Iker Bereau eta Laurendi Zelaieta (Oiz).
- E: Manu Irigoien (Erratzu), Mikel Sagaseta (Iru-ita) eta Jabi Apeztegia (Doneztebe).
- F hirukotea: Jon Apeztegia (Doneztebe), Mikel Telletxea (Doneztebe) eta Ugutz Zelaieta (Oiz).



UTZITAKOA

Dani Saldias eta Biurrun txapeldun

Nafarroako arpana txapelketa mistoaren finala irabazi zuten Dani Saldias arraioztarrak eta Antsoaingo Iru-ne Biurrunek urriaren 12an Lekunberrin. Iraizoz-Barberena faboritoak bigarren izan ziren, Berako Ainhua Etxegarai eta Arantzako Alberto Fagoaga hirugarren eta Altuna-Soroa laugarren.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Oier Ariztegi Nafarroako txapeldun

Oberena taldean ari den Oier Ariztegi lekaroztarrak irabazi du lehen mailako buruz buruko Nafarroako pilota txapelketa. Urriaren 22an Labriten jokatutako final estuan 18-17 irabazi zion Zugarraldeko Aitor Alduntzini, 10-17 galtzen joan ondotik. Hiru mailetak finalisteekin ageri da argazkian.

AZAROAK 3 - 17

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



@TVIRUS

ELBETE Zapatillera proiektuaren inaugurazioa

Pottoka, Occhi di Farfalla eta Zakill musika taldeen kontzertuak, mural margoketa eta pintxoak. Zapatilleran, azaroaren 5ean, 18:00etan. Sarrera debalde.

MUSIKA

ARRAIOZ

Mendi Abesbatza

Elizan, azaroaren 5ean, 19:30ean.

ELBETE

Pottoka, Occhi di Farfalla eta Zakill taldeak

Zapatilleran, azaroaren 5ean, 18:00etan.

BERA

Bastardix taldea

Kultur etxean, azaroaren 5ean, 19:00etan. Sarrerak 5 eurotan.

ELIZONDO

Hoot 'n' Holler taldea

Arizkunenean, azaroaren 6an, 18:00etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, azaroaren 5ean, goizez.

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, azaroaren 12an, 10:30etik 13:30era.

LEITZA

Leitza-Aresoko produktuaren VIII. azoka

Plazan, azaroaren 13an, 10:00etatik 14:00etara.

IKUSKIZUNAK

SENPERE

'Marripuinak' ipuin kontaketa

Jokin Mitxelena eta Pello Añorgarekin. Mediatekan, azaroaren 8an, 09:30ean, 10:30ean eta 14:15ean.

'Eh bien! Dansos maintenant' komedia musikala

Larrekon, azaroaren 8an, 20:00etan.

ELIZONDO

'On Kixote eta Mutikote'

Haurrendako. Arizkunenean, azaroaren 11n, 18:00etan.

'Arineketan' musika eta dantza ikuskizuna

Arizkunenean, azaroaren 13an, 18:00etan.

LEITZA

'Nirebaiturik' antzezlan

Herri Aretoan, azaroaren 13an, 19:00etan.

TAILERRAK

ETXALAR

'Streaming Live' ikastaroa

Gazteei zuzendua, Oier Fuentesen eskutik. Kultur etxean, azaroaren 3an eta 10ean, 17:00etatik 20:00etara. Izen ematea: sareaneuskaraz.eus webgunean.

ELIZONDO

'Hizkuntza aktibismoa' ahalduzte tailerra

Euskal Herrian Euskaraz-en eskutik. Arizkunenean, azaroaren 5ean, 09:00etatik 13:00etara. Izen ematea: euskara@baztan.eus helbidean.

'Baztango mintzoa' tailerra

Paskual Rekalderen eskutik. Arizkunenean, azaroaren 9an, 23an eta 30ean, 18:00etan. Izen ematea: euskara@baztan.eus helbidean.

DONEZTEBE

Autodefentsa feminista tailerra

Kiroldegian, azaroaren 4an eta 11n, 16:00etatik 20:00etara.

LEITZA

Argindarraren eta gasaren fakturari buruzko tailerra

Atekabeltzen, azaroaren 8an, 18:30ean.

Zuhaitz mugarroei buruzko jardunaldia

Leitzalarreko Urkizu parajea, azaroaren 10ean, 08:30ean plazaatik abiatuta.

SOLASALDIAK

LESAKA

'Miñan' liburuaren aurkezpena

Amets Arzallusekin. Liburutegian, azaroaren 10ean, 18:00etan.

DONEZTEBE

Suizidioari buruzko solasaldia

Herriko ostatuan, azaroaren 11n, 18:30ean.

BERA

'Zaharren egoitzak, eguneko egoitzak eta pisu tutelatuak'

Jokin Apeztexearekin. Beralandetan, azaroaren 16an, 17:00etan.

GOIZUETA

0-3 urte bitarteko haurren konexio emozionalari buruzko hitzaldia

Udaletxeko ganbaran, azaroaren 10ean, 17:00etan.

NIRE AUKERA

PROIEKZIOAK

LEITZA
Zinema

Herri Aretoan, azaroaren 5ean eta 6an. 16:30ean 'Barraskiloa eta balea' eta 19:00etan 'Los renglones torcidos de Dios'.

'Itsasoiko' dokumentala eta hitzaldia

Azaroaren 9an, 11:00etan eta 19:00etan.

BERA
'Gernika Batzordea' dokumentala

Kultur etxean, azaroaren 11n, 18:30ean.

JARDUNALDIAK

LESAKA
Nafarroako Sokatira Txapelketa

Udal pilotalekuan, azaroaren 5ean, 17:00etan.

LEITZA
Independentzia eguna

Azaroaren 5ean.

Aisialdian ere burujabe!

Torrean, azaroaren 10ean, 19:00etan.

Energia Berriztagarrien Komunitatearen topaketa

Azaroaren 12an.

GOIZUETA
Bertso musikatuak

Udaletxeko ganbaran, azaroaren 10ean, 18:00etan.

ARANO
San Martin eguna

Azaroaren 11n.

DONEZTEBE
Errekaren Mendiaren eguna

Azaroaren 12an.

«Elkarrekin aunitz ikasten dugu eta denok ekartzen diogu zerbait taldeari»

LOREA ZOZAIA SARAKO ERRUGBILARIA



22 urteko neska saratarra da Lorea Zozaia, «Sarako komitean engaiatua naiz eta aski dinamikoa naiz». Musika, besta, kirola eta natura ditu zaletasun, «eta ikastea maite dut».

Hiru urtez Euskal fakultatea egin du eta joan den urtean masterra hasi zuen, «beraz, bosgarren urte hau ene azken urtea da» eta ondotik Seaskan irakasle izateko asmoa du.

Sarako neskak errugbian hasiak

Urte aunitzez eskubaloian aritu izan da Zozaia, eta joan den urtean Sarako emakumezkoen errugbi taldea sortzeko aukera izan zuenean, ez zuen zalantzarik izan; «neskekin bestetan beti erraten genuen errugbi talde bat muntatu behar

genuela, asteazken batez zelaian elkar topatu genuen arte...».

Esperientzia «bikaina» izaten ari dela dio; «oroitzapen zoragarriak sortzen ditugu. Adrenalina aunitz sortzen da eta taldean bizi ki giro ona bada. Denek beti elkar sostengatzen dugu eta izpiritu biziki ona dugu». Zelaian elkartzean, «arazo guziak kanpoan uzten ditugu eta denak elkarrekin momentu onak pasatzen ditugu».

Ligan lehian

Astean bi aldiz entrenatzen dira neskak, asteazken eta ortziraletan, «gutti gorabehera bi orenez», eta aurtan ligan lehiatzen hasi dira.

Urriaren 22an lehen partida jokatu dute Errioxako Domiberia klubaren kontra,

eta baita irabazi ere. «Hor ohartu gara gure indarren balioaz eta gutaz izugarri harro gaudel!».

Orain artean egindako lanak bere fruitua eman du, eta taldearen abantzenak ikusteak «on egiten duela» dio Zozaiak, baina «bide onean» daudela iduritzen bazaio ere, argi du «oraindik aunitz ikasteko badugula. Denek ikasteko eta irabazteko gogoia dugu. Taldeko giro izugarria dugu, horrela segi dezala!».

Errugbiaren alde onena «erronka eta adrenalina» direla dio; «kirol biziki bizia da, baina gehien gustatzen zaidana taldeko kirola dela da. Denok ekartzen diogu zerbait taldeari, eta elkarrekin gauza aunitz ikasten ditugu».

Hortaz, momentuz «dena maite duela» dio, eta ez dio alde txarrik ikusten errugbiari.

Emakumeak ere kirolari

Eskualdean emakumezkoen errugbia «geroz eta hobea goa» dela dio Zozaiak, «ekipo tikiak sortzen ari dira hainbat lekutan. Guk ere gauza politak sortzen ahal ditugu, aupa gu!».

Neskak animatzen hasiak direla dio, eta errugbia probatzera animatu nahi izan ditu; «gure taldean Ainhoako, Zuraideko, Uztaritzeko, Urruñako, Sarako eta inguruko neskak gara».

Etorkizunera begira, ez du helburu zehatzik kirol honekin: «ene xedea horrela segitzea litzateke, giro goxoa atxikitzea». Eta noski, «beti ikasteko eta irabazteko gogoarekin!».

Azkenik, «ametsak segitu behar direla» adierazi nahi izan du; «izan emazte ala gizon, denok lortzen ahal dugu nahi badugu!».

«ADRENALINA AUNITZ SORTZEN DA ETA GIRO ONA DUGU TALDEAN»

«NESKEN EKIPO TTIKIAK SORTZEN ARI DIRA ESKUALDEAN»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



IGANTZI. 85 m²ko pisu zaharberri-tua salgai: 3 logela, egongela eta sukalde bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajea-ekin. Argitsua. Interesatuak goiz eta arratsalde deitu. ☎649 11 06 11.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaez. ☎647 58 81 63.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDON ETA INGURUKO HERRIETAN 3 kideko familia bat pisu bila. Lan kontratuarekin. Jarri WhatsApp bidez harremanetan. ☎642 31 49 30.

SUNBILLA. Pisu ttiki bat errentan hartu nahi dute, gehienez bi logelakoa. ☎605 70 91 49.

IRUNen, HONDARRIBIAN, OIARTZUNen, ERRENTERIAN edo **TOLOSAN** pisu bila. Bikotekide bat, biak lanean eta haurrik gabe. ☎640 65 04 22 / 644 38 41 04.

KONPARTITUAK

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan, ikasle pisu batean gela bat dute errentan emateko. ☎619 51 85 27.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Ostalaritzako negozioa eskualdatzeko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Cederna Garalur elkartearen laguntzarekin. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

SALGAI

LEITZA. Garajea salgai. Ate automatikoa, ura eta hustubidearekin (*desagüe*). ☎629 21 59 46.

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

LESKA. Mendian lur eremua erosi nahi dute. Igual du zein egoeratan eta non kokatuta dagoen. ☎948 63 79 77 / 680 48 39 27.

LANA

ESKAINITZAK

Arti Berrin, Iruñean, lehen mailako ofizialen kategoria duen ile-apaintzailea behar dute, zortzi urte baino

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

gehiagoko esperientzia duena. Apaindegi batez arduratzeko eta 2023ko urtarrian hasteko. Azken joerak dominatzen dituen. Erreferentziak eta fakturazioak eskatuko dira. Bidali curriculum: *amagoia14@gmail.com*. ☎636 18 15 46.

ZUGARRAMURDI. Jatetxe batean aritzeko zerbitzaria behar dute. Baldintza onekin. ☎654 48 99 62 (WhatsApp bidez idatzi).

BERA. Ubela mekanizatu tailerrean mantentze lanetan aritzeko langilea behar dute, galdaragintza eta soldadura dakiena. Bidali curriculum: *administracion@ubela.net*.

ELIZONDO. Santxotena jatetxean zerbitzari baten bila ari dira asteburuetan lan egiteko. ☎948 58 02 97.

DONEZTEBE. Amezti ostatuan lan egiteko bi lagun behar dituzte, es-

perientziarekin edo ikasteko gogoarekin. Asteburuetan, besta egunetan eta udan aritzeko. ☎948 45 00 28.

BERA. 3 urteko haurra arratsaldetan zaintzeko zaintzailea behar dute, 16:00etatik aitzinera. ☎642 46 44 05.

ESKARIAK

Neska lan bila. Etxeko lanetan, haurrak zaintzen, zerbitzari, garbiketan... aritzeko prest. ☎632 87 39 21.

17 urteko beratarra lan bila. Neska bat umeak zaintzen, klase partikularrak ematen, ostalaritzan... ariko litzateke. Arratsaldeetan zein asteburuetan. ☎625 59 54 60.

ANIMALIAK

SALGAI

Hiltzeko diren bi zerri salgai, 180 kilokoa bakoitza, mendian ibili direnak. ☎690 84 85 41.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,00
- 1.koa 4,88
- 2.koa 4,76

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,11
- 1.koa 4,88
- 2.koa 4,76

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 160,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,40/9,50
- 8-10 kilokoak: 7,50/8,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,035 €

Zerramak 0,360€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 14tik 21era bitarteko prezioak)



**SANTESTEBAN
TAILERRAK**



**RENAULT AUSTRAL BERRIA
HEMEN DAGO!**

Etorri ikustera konpromisorik gabe!

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE 1 948 450 282
info@talleressantesteban.com

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.



Zokorako sofa (*rinconera*) salgai. 4 plazetako eta egoera onean. 600 euro (prezio adosten ahal da). ☎649 27 44 28.


BERTZELAKOAK

DONEZTEBE. Ostalaritzako negozioa eskualdatzeko (Pepa's). Funtzionamendu betean. Cederna Garalur elkartearen laguntzarekin. Aparkatzeko leku egokia. Haur parkearen ondoan. ☎677 59 85 64.

URTEBETETZEAK



Donamariako **Maitane Fernandez Telletxeak** 2 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak eta aunitz urtez etxeko ttikiari familia guztiaren partetik eta bereziki Ainara eta Ibaiaren partez. Prestatu merienda goxoa!



Adurrek urriaren 16an 3 urte bete ditu eta **Oierrek** azaroaren 2an urtea beteko du. Zorionak eta musu haundi bana Arantzako eta Goizuetako familiaren partez, eta batez ere Lorearen partez.



Leitza/Lantzeko **Haizeder Mariez-kurrenak** 4 urte bete ditu urriaren 22an. Zorionak sorgintxo! Muxu bat June, Lide eta Izargiren partetik!



Zorionak **Ibai**, segi jator eta alai! Aunitz maite zaitugu!!!



Leitzako **Izargi**, **Laia** eta **Haizederrek** urteak beteko dituzte azaroaren 19an eta urriaren 31n eta 22an. Urte askoz ekipo! Ongi-ongi pasa eta bizkotxo goxoa prestatu!



Zorionak eta aunitz urtez **Iraia!!!** Besarkada haundi bat Urrozko eta Labaiengo familien partez eta bereziki Oihan eta Eriken partez.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade
www.kulturkari.com

2023ko egutegiak
Hainbat modelo

Sakelakoak, paretan jartzekoak, mahai gainekoak, posterrak, hozkailuko imanak...

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENENA
- HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, irailaren 28an emandako 250/2022 Ebazpenaren bidez, 6. poligonoko 70. partzelako kudeaketako hirigintza-hitzar-menaren proiektua onetsi zen hasiera batez.

Espedientea jendaurrean izanzen da hogen laneguneko epean, dagokion iragarkia N.A.O.n argitara ematen denetik (2022ko urriaren 13ko 203. N.A.O.ean argitaratua).

Bera, 2022-10-14
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

BERRIA

WEB eta MULTIMEDIA

MULTIMEDIA

Bideoak, animazioak, gif-ak... informazioa modu erakargarrian.

• WhatsAppz partekatzeko kanpainak (bideoak eta mikrowebak)

3-12 urte (2008-2018 urte bitartean jantxoak)

LEITZA

WEB ORRIAK

Enpresa, elkarte eta erakundeentzako web orriak gailu guztietara egokituak.

• Landetxeak
• Komertzioak
• Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mobiletara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tppi.eus
www.kulturkari.com

ESKATU AURRE KONTUA

EZKONTZAK

- **Pierre Jorajuria** eta **Catherine Goietxe**, urriaren 8an Saran.

SORTZEAK

- **Arkaitz Kortabitarte**, Sarakoa, urriaren 9an.

HILBERRIAK

- **M^a Jesus Etxebeste Bergara**, Lesakakoa, urriaren 11n, 79 urte zituela.
- **Francisca Urrutia Ezkurra**, Zubietakoa, urriaren 12an, 81 urte zituela.
- **Martin Etxepare Irisarri**, Legasakoa, urriaren 12an, 83 urte zituela.
- **M^a Asuncion Larrañaga Huarte**, Etxalarkoa, urriaren 15ean, 86 urte zituela.
- **M^a Asuncion Agara Maritorea**, Lesakakoa, urriaren 16an, 102 urte zituela.
- **Petra Santesteban Santesteban**, Zubietakoa, urriaren 16an, 83 urte zituela.
- **Jose Mari Arraztoa Alkasena**, Elizondokoa, urriaren 17an, 52 urte zituela.
- **Faustino Ziganda Etxandi**, Doneztebekoa, urriaren 21ean, 87 urte zituela.
- **M^a Francisca Ariztegi Etxenike**, Elizondokoa, urriaren 21ean, 80 urte zituela.
- **Santiago Igoa Mitxelena**, Lesakakoa, urriaren 24an, 89 urte zituela.
- **Joël Mariezkurrena Flores**, Doneztebekoa, urriaren 24an, 24 urte zituela.



OROIGARRIAK



- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira



KULTURKARI

Docena grafika | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tipi.eus
www.kulturkari.com

URTEURRENA

Jose Angel ALZUGUREN PERURENA *Kotto*

Beran, 1966/03/03 - Sorian, 2005/10/31
XVII. urteurrena

Izan zirelako gara
Garelako izanen dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.





IZARRA

HENAI, ZURE ONDOKO
ABUL A TOLUO



Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI



24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara



948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



BAZTAN BIDASOA

(Heriotza Zerbitzuak)

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeko

PLAZAN BAZAN



ZERRR?

Ui, ene, hau da pareta...
Jarri irudi bakoitzari dagokion hizkia eta
hiru esamolde azalduko zaizkizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA											
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J		
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T		
U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?		



Kirol hau halterofilia omen da. Horrez gain, ba al
dakizu zein da pisu-jasotzailearen itzal zuzena?

ITZALAK



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

816 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
M^a Carmen Adin Susperregi | ELIZONDO

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Jabier Iturrarte Alduntzin | LEITZA

Bidasoil - 30 euroko deskontua
Estibx Arotzena Albitzu | LESAKA

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Maria Dora Elizalde | BEINTZA-LABAIEN

BKZ Abentura - Sarrera bat
Jesus M^a Arrastio Larraburu | DONEZTEBE

Arrate Estetika Zentroa - Produktuak
Natividad Lorenzo Castellanos | ALMANDOZ

Izar Park - Sarrera bat
Josefina Lanz Apeztegia | BERA

Mauka - Bi CD
Nekane Jara Erasun | ARTIKA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA

www.salttingcenters.com



Bi sarrera

EZKEXA

www.ezkexa.com



Kamiseta bat

IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com



Sarrera bat

OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

IZAR PARK

www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



Liburu bat

TTARTTALO

www.ttarttalo.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.maukamusik.com



www.ibaizabal.com